


Antonio Zavala

# FRANTZESTEKO BERTSOAK

I



-I

## AUSPOA



EUSKALTAZAINDA

Arabake Ordenkariak

# FRANTZESTEKO BERTSOAK

I

---

Auspoa Liburutegia  
EDITORIAL AUSPOA

Plaza Santa María, 2 - Tolosa (Gipuzkoa)  
Tfno. (943) 67 12 82

Antonio Zavala

# FRANTZESTEKO BERTSOAK

I

Auspoa Liburutegia

*Azalean, Donostia 1813'ko abuztuan.  
Juan Ramon Elisbururen marrazkia.*

© Auspoa Liburutegia (Tolosa - Gipuzkoa)  
Fotokonposatzalle: Comctip fotocomposición, s.l. - Pamplona  
Inprimatzalle: Gráficas Lizarra, S.L., Estella (Navarra)  
ISBN 84-7158-147-7  
Depósito Legal: NA. 1048-1991 (I)

## ITZAURREA

Edozeiñek dakianez, gerra luze eta gogorra izan zuten alkarren aurka Frantzia'k eta España'k, 1808 urtetik 1814'era.

Gerra orri, Napoleon'en España'ko gerra esaten diote frantzesak. Ainbeste zalaparta erabili baitzituan arek Europako erreinurik geienetan, eta Bidasoa'z onuzkoan beste bat geiago. España'n, berriz, *la guerra de la independencia* deitzen zaio.

Mugaz ego aldeko euskaldunak, berriz, badute –edo bazuten beintzat– izen berezi bat: frantzestea, gaztelerazko *francesada* itzarekin zer ikusirik duana noski. Izen ori gaur egunean naiko atzenduta dagoala derizkiogu. Ala ere, bera aukeratu degu liburu onen izenbururako.

Ipar aldeko euskaldunak nola esaten dioten ez dakigu. Baiña aiek, edozein izen erabilia ere, gutxiagotan aitaturako dutelakoan gaude.

Gerra artako bertsoak bildu nai izan ditugu,

irakurleari gaur eskeintzen dizkiogun bi liburu auetan.

Ala bearrez, alde batetik ziran orduan ipar aldeko euskaldunak; bestetik, berriz, ego aldekoak. Orregatik, bi aldeetako bertsoak ditugu, naiz eta ego aldekoak askoz ere ugariagoak izan.

Emen bildu aal izan ditugunak baiño bertso geiago jarriko zirala dudarik ez da. Baiña gerok ere uste genduan baiño aundiagoko pilla osatu zaigu azkenerako. Eta denborarekin, guk aztertu gabeko artxiborik eta zokorik an edo emen izango baita, bilduma au azi egingo dala ziurtzat jo genezake.

Sail bakoitzaren ondotik, bertsoak ondo ulertu ditezen eta olakoetan egin oi degunez, kondaira-liburuetatik bildutako argitasunak ematen ditugu. Garai artako gizon-emakumeak etzuten noski laguntza orren bearrik, danak ere gertakizunen berri ondo zekitenak izanik. Guk bai, ordea, bestela askotan baraurik geldituko baigera, esan naia-  
ren erdiaz ere jabetu gabe.

Baiña argitu gabe gelditutakoak ere izango dira, noski. Baita, bearbada, oker argitutakoak ere. Irakurleak gure utsuneak eta gaizki esanak barakatuko al ditu.

Bertso auek ez dute oraintxe asko falta, be-  
rreungarren urtera irixteko. Ezagutzen ditugun zaarrenetakoak dira, beraz. Orregatik, bertsolaritzaren istorirako dokumentu baliotsuak diralakoan gaude.

Besteak beste, gauza bat garbi ta argi erakusten digute: orduko bertsogintza naiko landua eta



eldua zala, eta oraintsu arte izan degun bertso-gintzaren antzekoa. Xenpelar, Udarregi, Pello Errota, Gaztelu eta Txirritak, adibidez, gisa ontako bertsoak jartzen zituzten, gure iritzirako beintzat.

Ori dala-ta, galdera batzuk egin araziko dituzte bearbada liburu auek. Bertso-larritza leendik zeterren noski eta ez du gerra onek sortzen. Baiña ez al zion indar berria eman? Ez al zituan bertso-jartzailleak lanera bultzatu eta beartu? Ez al zituan bertsoak ugaltu arazi? Orrelako zerbait gertatuko baitzan gero, urteen buruan, karlisten gerrateen denboran ere.

Baiña gero geroakoak. Onako au ez baita galdera oiei erantzuna ematen asteko unea; ez eta lekua ere.

Olako gerra batek itzala luzea bear zuan, nai ta nai ez. Pakea egin ta gero ere aren oiartzunak puska batean jarraituko zuan noski. Bein da berriro aren aitamenak egingo zirala esan nai det, jendearen aotan ez-ezik, baita euskal idatzietan ere, naiz eta garai artako euskal literatura ain urria izan.

Aitamen oiek biltzen saiatu gera bigarren liburuaren bukaeran, oietako batzuk itz lauz moldatuak izan arren, eta irakurleari eskeintzen dizkio-gu, osatu degun mordoska ori osoa izango ez dala dudarik egiten ez badegu ere.

A. Z.

«ESPAÑA HORTAN OTE LAITEKE...»

The image shows a musical score for a song. It consists of four staves of music, each with a treble clef and a key signature of two sharps (F# and C#). The first staff is in 2/4 time and contains the lyrics "Es- pa- ña hor- tan o- te lai- te-". The second staff is in 3/4 time and contains the lyrics "ke e- tx- ko mu- til be- ha-". The third staff is in 2/4 time and contains the lyrics "rik? An- da- ña- no bat mun- ta gin-". The fourth staff is in 2/4 time and contains the lyrics "taiz- ke Bai- go- rri al- de". The music is written in a simple, folk-like style with eighth and quarter notes.

Es- pa- ña hor- tan o- te lai- te-  
ke e- tx- ko mu- til be- ha-  
rik? An- da- ña- no bat mun- ta gin-  
taiz- ke Bai- go- rri al- de

hun-ta-rik; Bo-na-par-te-ren  
zer-bi-tzu-ra-ko guk ez di-  
a-gu go-go-rik.

1/ España hortan ote laiteke  
etxeke mutil beharrik?  
Andanaño bat munta gintaizke  
Baigorri alde huntarik,  
Bonaparte'ren zerbitzurako  
guk ez diagu gogorik.

2/ Baigorri'ko mutiko gazteok  
egin baitugu kontzertu:  
soldado joan baino hainitzez  
hobe dugula ezkondu.  
Emaztegaiak txerkatu gabe  
ordenantxa heldu zaiku.

3/ Aurten ezkondu nahi duena  
Baigorri'ra etor bedi;  
nahiz ez izan hamabost urte  
bera premu izan bedi,  
emaztegaiak ukanen ditu  
behar baditu hamabi.

4/ Adios, aita; adios, ama;  
adios, ene maitia.  
Noiz gertatuko ote zait berriz  
zuengana itzultzia?  
Xantza baduzu, etzazula utz:  
ezkon zite, oi maitia!

Doiñu eta bertso auek, Aita Jorje Riezu'k argitaratu zituan, bere *Nafarroa-ko euskal-kantu zaharrrak* liburuan, 1973 urtean.

Leenengo bertsoak esaten digunez, Baigorri'ko mutil gazteak Bonaparte'ren zerbitzurako gogorik ez dute, eta Espaiña'ra iges egiteko asmotan dira. Ortik atera dezakegu bertso auek noiztsu jarriak diran.

Frantzia'n Napoleonek agintzen du, baiña oraindik ez da Espaiña'rekin gerran asi. Bestela, ez luteke baigorriarrak mugaz ego aldera etortzeko ametsik egingo. Agintea 1799 urtean artu zuan Napoleon'ek kontsul bezela, eta 1804'ean enperadore bezela. Espaiña'rekin gerran, berriz, 1808'an asi zan. Bitarte ortan jarritako bertsoak izango ditugu, beraz.

Nolanai ere, frantzestea baiño leenagoko bertsoak. Baiña ez Konbentzioko gerrakoak, eta are gutxiago Iraultzakoak. Ardi galdua bezela degu, beraz, bertso-sail au. Nunbait ere sartu bear, ordea, eta egokiena frantzesteko bertsoen aurretik jartzea iduritu zaigu.

Berdin egin degu urrengo bi bertso-saillekin ere.

## KOMISIONE AHANTZIA

- 1/ Soldado-gai ttipienak  
zuhurrenak ohi dire,  
ez baitira partituko  
maitea agurtu gabe.  
Neureari joan nitzaiot,  
erran diot: «Ikus arte».
  
- 2/ Harek aldiz galdatu daut  
ttipoi bat erosteko,  
lorestatu eta fina,  
bestetan erabiltzeko.  
Bihotzez hitzeman diot,  
musu-sari, ta adio.
  
- 3/ Tarbes'ko artillerian  
sartuz geroz dut aitortzen  
gogotik joan zitzaitala  
nori zer agindu nuen,  
mila zurruburru hutsek  
nindutela libertitzen.

- 4/ Desarmatu egunean,  
oi Baionara heltzean,  
ttipoia jauzi zitzaitan  
dolorezki bihotzean.  
A, segur neure buruaz  
ahalgetua bainintzan,  
ezen ez maite bat utzi deus  
funtsik gabe mindurik.

Bertso auek *Herria* astekarian agertu ziran, 1982 urteko abuztuaren 5'ean, goien «kantu xahar» eta bean «X.X.X. 1805» erantsita.

Kontatzen dutena ez da, nai ta nai ez, gerra batean gertatua. Pake-denborakoa ere izan diteke. Egia esan, bertso auek liburu ontan sartzeko, arrazoi bakarra izan degu: urtea esaten duan beko oar ori. Ez baitute beste argibiderik ematen, noizkoak diran somatzeko.

Iru bertso iru puntukoak dira, eta azkena lau-koa. Baiña lau-koa azken bi puntuak aldrebes samarrak ditu. Oiek etzituan bertsolariak orrela paratuko. Bertsoak ikasi zituanaren buruan eging-dako aldaketak izango dira.

Bertso auek iru lerro dauzkate *Herria*'n, eta azkenekoak lau, Bidasoa'z ipar aldean idatzi oi danez. Baiña *Auspoa*'ren liburu auek estuegiak dira olako lerro luzeak sartzeko; eta, gogoz kontra bada ere, Bidasoaz ego aldeko oituraren arabera idatzi bear izan ditugu.

«BAIONA'KO PATROINA...»





tzen be- har- gi- ra e- gon,  
sain- du- ak on di- re bai- nan  
bi- ba Na- po- le- on!

The image shows three staves of musical notation in G minor (one flat) and 2/4 time. The first staff contains the lyrics 'tzen be- har- gi- ra e- gon,'. The second staff contains 'sain- du- ak on di- re bai- nan'. The third staff contains 'bi- ba Na- po- le- on!' and ends with a double bar line.

Baiona'ko patroina  
deitzen da San Leon,  
saindu aundiagorik  
ez dut senti nehon.  
Sainduen ohoratzen  
behar gira egon,  
sainduak on dire bainan  
biba Napoleon!

Doiñu eta bertso auk, Aita Donosti zanak argitaratu zituan, *Euskal Eres Sorta* liburuan (1921), 82 zenbakian.

Ertz batean, onela irakurtzen da: «Sara». Erri ontan jaso zuala esan naiko du.

Bertsolariak santuen pareko jartzen du Napoleon. Ortik atera genezake noizkoa dan. Etzan orrela mintzatuko Napoleon beeraka asi ondotik. Bai, ordea, ura gaillurrean zala; bere garaipen arrigarri aiek lortzen zituan denboran, alegia: Marengo, Ulm, Austerlitz, Jena... Oiek, 1800'etik 1807'ra gertatu ziran. Garai artakoa izango degu, beraz, bertso au.

«FRANTZIA'TIK ATERA ETA...»



Fran-tzi-a-tik a-te-ra



e-ta Do-nos-ti-an gi-ñan sar-



tu, an-di-kan To-lo-sa-



rai-ño gen-du-en a-ban-tza-

tu. Ma-dril-ko kor-te-ra  
joan da fran-tze-sa le-rro-le-  
rrro, an kan-ta-tzen de-gu-  
la-rik: be-go fran-tze-sa li-  
bro.

Frantzia'tik atera eta  
Donostia'n ginan sartu,  
andikan Tolosa'raino  
genduen abantzatu.  
Madril'ko kortera joan da  
frantsesa lerro-lerro,  
an kantatzen degularik:  
«Bego frantzes libror!»

Bertso au eta bere doiñua Azkue'ren esku-ida-  
zietatik artuak ditugu. Baiña berak argitara eman  
gabe utzi zituan. Orio'ko Josefa Treku'ri jaso ziz-  
kion.

Itxura dancz, bertso onen egillea Bidasoa'z ipar  
aldeko mutillen bat izango da. Napoleon'en guda-  
roztean zetorren euskal soldaduren bat, alegia.

Orregatik, arritzekoa da oriotar baten aotik  
jasoa izatea. Baiña andre orrek berak, Baigorri'ko  
Ibarrart'en «Euskaldun bat zen itsu eta bertsolari»  
bertsoak ere kantatu zizkion Azkue'ri. Ikus onen  
kanta-bilduma, 836 zenbakian. Beste aldeko kanta  
eta bertsoak zerbait ezagutzen zituana zan, beraz.

Frantzia eta España, beren indarrak bat egin-  
da, 1807'ko azaroan jabetu ziran Portugal'ez. Bai-  
ña, egia esan bear bada, otsoaren bildurrez  
otsoaren morroi zebillen orduan España. Alako  
agintariak zituzten, izan ere, garai artan bi nazio  
auk: lotsagabeetan lotsagabeenak batek, eta iño-  
zoetan iñozoenak besteak.

Frantzes soldaduak 1807 urteko urriaren 18'an  
igaro omen zuten Bidasoa ibaia leendabiziko aldiz,  
esan degun bezela, Portugal menderatzeko ai-  
tzakiarekin. Sarritan, ordea, andik aurrera. Baita  
Iruñe'n, Bartzelona'n eta beste zenbait iritan sartu  
eta nagusi jarri ere. Donostia'z, 1808'ko martxoan  
jabetu ziran. Andik laister, eun bat milla gizon ba  
omen zituan Napoleon'ek España'n, Portugal'e-  
koak kontatu gabe.

Garai ortan jarritako bertsoa degu, beraz, ona-  
ko au. Esan bearrik ez dago etzala bakarra izango.  
Lagunak ere izango zituan noski.

**«MILA ZORTZI EHUN ETA  
ZORTZIGARRENIAN...»**

- 1/ Mila zortzi ehun eta zortzigarrenian  
soldado sartu ginen, oi!, enozentzian,  
zerbitzatu behar ginuela Printziaren guardian;  
egin ere badugu behartu girenian.
- 2/ Arribatu ginenian Madrillako hirian,  
begitarte egilia franko izaten ginian.  
Nafartarrak ginela erraiten zaukuteian,  
haren alde izanen ginela, behartzen zirenian.
- 3/ Maiatzeko hilaren bigarrenian  
errebolta izan dugu Madrillako hirian;  
hiritikan kasatu nahi ginituzteian,  
ederki trunpaturik bazauden ordian.
- 4/ Bederatzi ehun ginen kasernatik partitu,  
bi plazetara ginatezten errepartitu;  
españolaren kontra harmetan paratu,  
bistara jinak oro baikintuen garbitu.

- 5/ Xapel gorriak ginenian atera plazala,  
burla egiten hasi zauzkigun behala;  
uste zuten arauz zezenak ginela,  
gure toreatzeko mokanesekila.
- 6/ Mokanesak iharaus ta gibelko aldian jo,  
oihu egiten zaukuten: «*jTira, tira, carajo!*»  
Tiratu giniotzaten dozena bat tiro,  
hun zirenak joan ziren erran gabe adio.
- 7/ Ikusi zutenian gure borondatia,  
kurutze banakin atera ziren biga.  
Bertzek aldiz kapapetik harri ukaldia,  
halakoa pena zen bizirik uztia.
- 8/ Hango anderek zabokaten konbertsazionia,  
desiratzen ere zuten gizon izatia:  
«Frantzes porroxka horiek zertako debru dira?  
Dozena baten aski ninduken bertze batekila.»
- 9/ Fierik hasi ziren zein bere etxetarik,  
pixtola tiroka bere galerietarik.  
Gero sinetsi zuten, ongi progaturik,  
eia frantzes poroxkek bazutenez indarririk.
- 10/ Hango anderek egin dute irabazi eder bat:  
eltziak eta pixerrak aurtiki karriketarat;  
lur baxera egiliaren hori ezta malur bat:  
lehengo bigen prezioan erosten dute orai bat.

11/ Frantziako teilla egiler dautzuet goraintzi,  
orai erna zaitezte nahi baduzie irabazi;  
Madrillen irabaz bide orain bada segurki,  
etxeko teillak ere zauzkie aurtiki.

12/ Kantu hunen emailea motiko gaztea,  
lapurtarra eta mendiko umea.  
Bertsu hoi en emaiteko izan du gutizia,  
ikusi duenian komoditatia.

\* \* \*

Bertso auk Paris'ko Liburutegi Nazionaletik  
ditugu, esku-idatzi batetik. Asieran, izenburu be-  
zela, itz auk ditu:

«*Les Français à Madrid, en 1808.*»

Eta bukaeran, argibide jakingarri au:

«*Pendant ses séjours à Bayonne, Murat s'était formé une garde d'honneur de trois cents Basques: ce bataillon, dont le costume rouge était façonné dans la forme nationale, se composait de l'élite du pays: il donna des preuves d'intrepidité dans plusieurs rencontres et notamment à la prise de Madrid: peu de ces jeunes gens revirent leurs foyers.*

*L'auteur du récit qui précède faisait partie de cette garde d'honneur.*»

Alegia: Baiona'n zalarik, Murat jeneralak iru-  
reun euskal mutil bildu zituala, aukera-aukera-  
koak guztiak, beraren guardia izan zitezen. Euskal



erara jazten omen ziran. Ta txapel gorria buruan, bostgarren bertsoak dionez. Oso ausarditsu portatu omen ziran burruka askotan, Madrid'en batez ere. Baiña mutil aietatik oso gutxi itzuli zirala beren etxeetara. Bertso auen egillea ere talde ortakoa omen zan.

\* \* \*

Madrid'en, 1808'ko maiatzaren 2'an gertatu ziran zalaparten berri ez dakianik ez da izango. Ala ere, itz bitan zerbait esan dezagun.

1808 urteko martxoaren 17'an, Godoy español ministroaren aurka altxa zan erria Aranjuez'en. Bera arrapatu arteko onik etzuan jendeak izan. Erregeak, Karlos IV'ak alegia, aginte guztiak kendu bear izan zizkion. Are geiago: berak ere erregetza utzi egin zuan, bere seme Fernandoren alde.

Aien arteko ixkanbillak konpontzeko aitzakiarekin, aita-semeak Baiona'ra eramán arazi zituan Napoleon'ek. Baita errege-famili guztia ere. An, berriz, beren eskubideei uko egin arazi zien, eta orduan España'ko errege bere anai Jose izendatu.

Erriak, ordea, Napoleon'en jokabide maltzurra garbi ikusten zuan, eta maiatzaren 2'an leertu egin zan madritarren asarrea.

Frantzes soldaduei eraso zieten, aal zuanak aal

zuan arma eskuratuta: pixtolak, arriak, eltzeak, pixerrak, teillak eta abar, bertsoak diotenez.

Español kuarteletara joan eta armak eskatu zituan erriak. Ango buruzagiak, ordea, olako agin-durik etzutela eta eman ez, artilleria-kuartelean izan ezik.

Gogoangarria da bigarren bertsoak esaten duana: bertso auen jartzaillearen taldean nafartarrak ere bazirala entzunik, auek beren alde jarriko zirala uste zuten madritarrak. Onek bi gauza erakusten digu: batetik, etzekitela nunbait Nafarroa bi puska eginda zegoanik; eta bestetik, ekaitza etzala bat-batean sortu; aspalditik ari zala jendea sumintzen.

Gure lapurtar bertso-jartzaillea zegoan kuarteletik bederatzireun gizon partitu zirala esaten digu laugarren bertsoak. Besteetatik soldadu geiago atera zirala esan bearrik ez dago.

Frantzesak, erria menderatutakoan, kalean barena zijoazen guztiak detenitzen asi ziran. Naikoa omen zan patrikan labanen bat eramatea afusillatua izateko. Goya'k ortik artu zuan gaia bere lauki famatua pintatzeko, eta egun artako sarraskia aztu eziña egiteko, urteen buruan Picaso'k Gernika'ko bonbardeoarekin egingo zuan bezela.

\* \* \*

Francisque Michel'ek, bere *Le Pays Basque* liburuan (1857), sail ontako leenengo bertsoa dakar, aldaketarik gabe.

Julien Vinson'ek, bere *Le folk-lore du Pays Basque* liburuan (Paris, 1883), 188 orrialdean, amabi bertso auen frantzes itzulpena dakar.

Azkue'k, bere *Cancionero popular vasco* bilduman, 658 zenbakian, Lapurdi'ko Mugerre'n, Casenave deitura zuan baten aotik jasota, amargarren bertsoa dakar, baita doiñua eta beste bertso berri bat ere.



ta ma-lur bat, ain-tzi-ne-  
ko bi-en pre-zi-  
oan sal-tzen du-te o-rain  
bat.

Madrileko emakumêk egin dute balentria,  
beren eltze eta pegarrak aurtiki karrikara.  
Lur baxera egilendako ori ezta malur bat,  
aintzineko bien prezioan saltzen dute orain bat.

Españian Herodes eta Frantzian Bonaparte,  
gerla horrek iraun dezake horiek biak hil arte;  
duienari edek eta eztuenari galde,  
laster naski izanen gaituk kornadurik gabe.

Aita Lino Akesolo'k bigarren bertsoa agertzen du bere *Bertsolaritza Fernando Amezketarraren garaian*, (Egan, 1969, VII-XII).

Iñaki Zabaleta'k ere eskeintzen ditu bi bertso auek, Azkue'renetik artuta, *Independentziko guda herri kantutegian* izeneko idazlanean, *Oiartzun*, 1978 urtekarian.

Jesus Maria Leizaola'k, bere *1808-1814 en la Poesía Popular Vasca* liburuan (*Editorial Vasca Ekin, Buenos Aires, 1965*), 73 orrialdean, eta bai *Crónicas y romances de la poesía euskérica* lanean ere, badakarzki Azkue'ren bi bertso auek.

\* \* \*

Jesus Maria Leizaola'k, bere *1808-1814 en la Poesía Popular Vasca* liburu ortan, 74 orri-aldean, baditu amabi bertso auek ere.

Aldaketak: 2/1: Madrillako hirira; 3/1: Maiatzako; 4/2: ginutizken; 4/3: españolen; 5/4: mokanasakila; 6/4: ario; 7/1: geure; 7/2: ziran; 8/1: Hango anderek zabiltzaten; 9/1: Finik hasi ziren; 9/4: poroxkak; 10/1: eier; 10/3: lur baxera egilendako; 11/3: Madrillen irabaz lite (o fite?) orai badutzie segurki.

Bere *Crónicas y romances de la poesía euskérica* lanean ere badakarzki Leizaola'k amabi bertso auek, aldaketa oiekin.

\* \* \*

*Herria* astekarian, 1961'eko abenduaren 14'ean, sail ontako bederatzi bertso arkitu ditugu: 1, 2, 3, 4, 5, 6, 8, 10 eta 7'garrena, orden ortan. Baiña oso aldatuta daude eta osorik jarriko ditugu:

Mila zortzi ehun eta zortzigarrenean,  
soldado sartu ginen gu iñorantzian,  
zerbitzatu behar ginela printziaren guardian,  
egin ere badugu, behartu denian.

Arribatu ginenian Madrilgo hirian,  
begitarte egilia frango izatu ginian;  
nafartarrak ginela erraiten ziteian,  
heien alde jartzekoak behartzen zenian.

Maiatzako ilaren bigarrenian,  
errebolta sorturik Madrilgo hirian,  
hiritikan kasatu nahi gintezteian;  
ederki tronpaturik baitaude ordian.

Lauetan hogoi ginen kasernatik partitu,  
gero bi plazetara gintuzten partitu;  
lehenbiziko sua ginuenian abiatu,  
ikus ahalak oro gintuen garbitu.

Xupa gorriekilan gu jinik plazara,  
burlaz ez zaizkiguna hasi berehala?  
Madrillen uste zuten zezenak ginela,  
toleiatu beharrak mokanesekila.

Mokanesak airean, ipurdia lasto,  
oihuka ari ziren: «Tira, tira, karako!»  
Tiratu ginituen bi dozena tiro,  
on zirenak joan ziren erran gabe adio.

Madrilgo andrek zuten konbertsazionea,  
desiratzen baitzuten gizon izaitea:  
«Frantses porroska hoiek zer demontre dira?  
Dozena baten aski naun bertze batekila!»


Madrilen egin dute andrek lan ederra:  
eltze eta pitxarrak bota karrikara;  
lur-baxe-egilentzat ez da, ez, malurra:  
lehengo bien sari saltzen da bakarra!

Ikusi zutenian gure bitoria,  
gurutze banarekin jin zauzkigun bia;  
bertzek kapotapetik harri-ukaldia,  
zer pena holakoen bizirik uztia!

«AGUR ETA ERDI...»







1/ - Agur eta erdi,  
ongi etorri,  
baiñan partikularki  
espainolari.  
Zuendako banituen  
kopla bat edo bi,  
otoi, esan zadazu  
Madrilen zer berri.

2/ - Madrilen zer berri den  
nai badezu jakin,  
joan ta mintzo zaitetz  
an diren aiekin.  
Guk ezkinduan uste  
gerlarik zuekin,  
bainan ezin fiatu  
etsai gaiztoekin.

3/ - . . . . .  
. . . . .  
goazen Frantzia'ra  
Buonaparte'rekin,  
. . . . .

Bi bertso auk beren doiñuarekin, eta irugarrenaren puska ori, Azkue'ren esku-idatzietan arkitu ditugu. Baiña argitara eman gabe utzi zituan. Jaso, Naparroa'ko Imotz baillarako eta Oskotz erriko Justa Goldarazena'ri egin omen zizkion.

Itxura danez, alkarrizketan paratutako bertsoak dira. Bertsolariak aotik aora kantatzen duten bezela, alegia. Bidasoa'z ipar aldeko batek asiera ematen du, eta ego aldeko beste batek eran-tzun. Eta saio luzeagoa zala, irugarren bertsoaren puska orrek garbi erakusten digu.

«Madrilen zer berri den» galdetzen baita, 1808 urteko maiatzaren 2'ko gertaerak artean gertatu berriak zirala jarri edo kantatutako bertsoak izango dirala pentsa diteke. Leen ere esan degunez, batzuen maltzurkeriaz eta besteen iñozokeriaz piztu zan gerra ori. Bigarren bertsoak orixe adierazi nai duala esango genduke.

## «LUZAIDE'KO KARRIKA...»

1/ Luzaide'ko karrika  
puxanten kanpaña,<sup>1</sup>  
aisa egiten dute  
gorputzari maña;  
enplegu gabia da  
damu den konpañia,  
gure gostuz nahia  
egin «*Tour de España*».

2/ Norbaitek ezpanute  
gaizki abisatu,  
nehorendako eztut  
gezurrik pentsatu,  
jendiak ez du behar  
hortaz ofentsatu,  
informen arabera  
nahi dut konfesatu.

---

(1) puxanta: *poderoso*. (Satrustegi'ren oarra.)

3/ Jose «Caldero» jin da<sup>2</sup>  
Napoleongua,  
errege diote bainan  
eztakigu nungua;  
España guzitik  
bota du mandua,  
haren eskuko dela  
gure erreinua.

Bertso auk Jose Maria Satrustegi'k argitara eman zituan, bere *Bordel bertsularia* liburuan (*Auspoa*, 45-46), oar auk egiten zituala:

«Bi Napoleon badira Bordel'en bertsutan. Napoleon lenbizikoarenak, gazte denborakoak izan behar dute, eta menturaz ez dira Bordelenak. Iru bertsu bakarrik eskuratu ditugu.»

Bertsoen ondotik, berriz, beste adierazpen au eskeintzen digu:

«Lengo mendeko paper zaharretan atera zait. Bigarren bertsuari Bordel'en eskua ikusten da. Beste biak ere hala ote dira? 1808'gn urteko gerta-kizunak baidira, amasei bat urte zituen orduan Luzaideko bertsulariak.»

Noizkoak diran, irugarren bertsoak salatzen du. Jose Bonaparte etorri dala esaten baitu. 1808'ko Uztaillaren 9'an sartu España'n, eta 20'an Madrid'en zan. Laster igjerri zion jendearen gogoa-

---

(2) Jose «Caldero», Napoleonen anaiaren izengoitia.  
(Id.)

ren aurka zetorrela. Gasteiz'tik onela idatzi zion anaiari:

«Orain arte ez dizu inork egia esan. Nere alde dagoan espagnolik ez da, nerekin datozen lagun pixarrak izan ezik.»

Irugarren bertso orrek gauza bera adierazten du.

## «BERROGOI TA HAMAR MILA FRANTSSES...»

Berrogoi ta hamar mila frantses  
Bartzelona'n sartu zen,  
ehun mila hil zituztela  
español hoiek bantatzen,  
batto bientzat kondatuz.  
Oi zer mirakulua:  
frantses hilek hartu zioten  
español bizier hiria!

Bertso au Aita Donosti zanaren paperetatik  
degu, *Cuaderno de Argentina* deritzaion batetik.

Laugarren bertsoan *bantatzen* oso garbi irakur-  
tzen da. Baiña bearbada *kantatzen* edo *kontatzen*  
bearko luke.

Bertso au 1808'ko udarakoa izango da, urrengo  
argibide auek aditzera ematen dutenez.

Frantsesak urte artako otsaillean jabetu ziran  
Bartzelona'z, España'rekin gerran asi baiño leen,  
adiskide-itxurak egiñez.

Gerra asi ta laister, 1808'ko udaran, burruka

latzak izan ziran Kataluña aldean. Emen, antziñatik, *somatén* izeneko gizon-taldeak zeuden errietan. Etziran militarrek, baiña armak bazituzten. Kanpai-otsarekin biltzen ziran, etsaiari edo gaizkilleei erasotzeko.

1808 urteko udaran ere, bildu eta arpegi eman zieten *somatén* auek frantzesei. Baita garaile atera ere El Bruch'en eta beste zenbait tokitan. Onela dio Toreno'ko Kondeak, bere *Historia del levantamiento, guerra y revolución de España* liburuan:

«Toca a los catalanes la gloria de haber sido los primeros en España que postraron con feliz éxito el orgullo de los invasores. Fue, en efecto, la victoria del Bruch la que antes que ninguna otra mereció ser calificada con tal nombre».

Ala ere, Bartzelona'ko iriak frantzesen mende jarraitu zuan gerraren bukaera arte; 1813'ko maiatzean atera baitziran andikan.

Argibide oiekin bertso au obeto ulertuko degu. Españolak arro daude, frantzesak menderatzen edo garaitzen asi diralako. Eta frantzesak ere bai, Bartzelona'ren jabe jarraitzen baitute. Kontsolatu onela egiten gera danok ere: komeni zaigun erdia gogoan artuz eta komeni etzaigun erdia bazterrera utziz.

Orregatik, gure iritzirako beintzat, 1808 urteko udarakoa-edo izango da bertso au.

## HARIZPE

- 1/ Napoleon, Frantzia enperadorea,  
Europar egin duzu hanitz balentria.  
Harizpe jenerala, euskaldun garbia,  
haren plazera beita gerlarat joaitia.
  
- 2/ Harizpe jenerala jin da Espainiatik,  
Zaragozatik edo Balenzia aldetik.  
Kolpaturik dagola jaun hura badakit,  
gerlarat joan nahi du oraino hargatik.
  
- 3/ Hanitz aipatuia da aurten Zaragoza,  
guziak mintzo dira hiri haren kontra.  
Harizpe jenerala trankil han egon da,  
brigantentzat eztela harek dio lotsa.
  
- 4/ Kartel bat deitzen da Frantzia Baigorri,  
Etxauze hortan duzu sujet handi hori.  
Jende noble hoientzat hori zen konbeni,  
Harizpe jenerala Jainkoak igorri.



- 5/ Hanitz barreatu da, Harizpe, zure fama,  
kolpatzen zinuzten bainan beti senda.  
Zuk egin balentriak eztaitezke konda,  
Napoleon handia ongi gertatzen da.
- 6/ Kolpatuia zirela munduiak badaki,  
Jainkoak nahi eta halere arinki.  
Hiltzeko damu zira, behar zira bizi  
ehun urtez oraino zure madamaki.

Bertso auk Paris'ko Liburutegi Nazionaletik ditugu, esku-idatzi batetik.

Francisque Michel'ek argitara eman zituan bere *Le Pays Basque* liburuan (Paris, 1857), aldaketa aukin: 1/4: baita; 2/1: Españatik; 2/2: Balenzia ondotik; 2/3: Kolpatuia dagoela; 2/4: bizia galdu nahi du Napoleone gatik; 3/2: herri haren kontra; 3/4: brigantentako diro eztela lotsa; 4/3: haientzat; 5/2: zinuztela; 5/4: zuk egin balentriak ez daitezke konda; 6/4: ehun urtez zure madamareki.

Bertso auk badakarzki J. M. Leizaola'k ere *1808-1814 en la Poesía Popular Vasca* liburuan, eta bai *Crónicas y romances de la poesía euskérica* lanean, Michel'i kopiatuta.

Bostgarrena Azkue'k agertzen du bere kanta-bilduman, 48'gn zenbakian. Baiña oso aldatuta. Onela dio:

Harizpe jenerala, orai zure fama  
barraiatua izan da Espainian barna:  
kolpatzen zinduztela, baiñan beti senda;  
zuk egin balentriak ez daitezke konda.

Ondoren onela esaten du: «*Lo aprendí en Arnegi, con música insignificante*».

\* \* \*

Liburutegi Nazionaleko esku-idatziak, bertsoen ondotik, onela dio:

«*Ce chant date de 1808 et a dû être composé pendant le siège de Saragosse, auquel assistait le général Harispe, aujourd'hui sénateur*».

Alegia, kanta au 1808'koa izango dala, eta frantzesak Zaragoza'ri eraso zioten denboran jarria; an izan zala, gaur *sénateur* dan Harizpe jenerala.

\* \* \*

Jean-Isidore Harizpe Baigorri'n jaio zan, 1768'ko abenduaren 7'an. *Guerra de la Convención* asi zanean, 1793'an alegia, eta mugaz ipar aldean «*chasseurs basques*» edo «euskal ihiztariak» izeneko soldadu-taldeak osatu ziranean, auek lau buruzagi aukeratu zituzten, eta aietako bat Harizpe izan zan. Gerra artako burrukarik geienetan parte artu zuan.

Europa'n barrena ibili zan Napoleon'en gerretan. Jena'n zauritua izan zan, eta ia bizia galdu. Baiña sendatu zan. Orixe aitatu naiko dute bigarren eta bostgarren bertsoak. Heilsberg eta Friedland'ko burruketan ere antxe gertatu zan.

1808'ko Maiatzaren 2'an, madritarrak fran-

tzesen kontra altxa ziranean, an zan Harizpe ere bere «euskal ihiztari» oiekin. Orduko bertsoak, lapurtar batek jarriak, leentxeago eskeiñi dizkiogu irakurleari. Harizpe'ren mendekoren bat izango zan bertso oien gillea.

Balentzia alderaiño ere iritxi zan bere mutillekin, Moncey mariskalaren agindupean, 1808'ko ekainean. Conde de Toreno'k, bere *Historia del levantamiento, guerra y revolución de España* liburuan, onela dio:

*«Impacientado Moncey, destacó por su izquierda y del lado de la sierra de los Ajos al general Harispe con vascones acostumbrados a trepar por las asperezas del Pirineo. Encaramáronse, pues, a pesar de escabrosidades y derrumbaderos, y arrollando a las guerrillas, facilitaron el ataque de frente...»*

Ekainaren 28'an eraso zioten frantzesak Balentzia'ri, baiña ezin artu. Zaragoza bi bider inguratu zuten. Aurrena, 1808'ko ekainaren 15'ean asi eta abuztuaren 13'an alde egin, iria artu gabe. Ostera urte bereko abenduaren 20'an ekin, eta 1809'ko otsaillaren 20'an iria artu. Bigarrengo ontan an zan Harizpe ere.

Orregatik, bertso-sail au 1809'koa izango da, eta ez 1808'an, Liburutegi Nazionaleko esku-ida-tziak dion bezela.

Lerida, Tarragona, Sagunto, Balentzia, Aragoi eta abar korritu zituan Harizpe'k gero. Eta 1813'an, gerra mugaz ipar aldera igaro zanean, Baigorri, Ortez, Toulouse eta abar.

Azken bertsoak, eun urtez bere madamarekin

bizitza opa dio. Andrea Baigorri'ko Etzauze jau-regiko alaba Margarita zuan. Eta eun urte etzitan arrapatu, baiña larogei ta sei bai. Azken urteak Lakarra'ko jauregian pasa zituan.

«Baigorri! Baigorri!» oiu egiten omen zuten Harizpe'ren mutillak, etsaiari erasotzeko.<sup>1</sup>

Eta Azkue'k, ematen duan bertsoaren aurretik, au dio:

*«Por tradición se ha conservado este otro (grito) más enérgico, muy en consonancia con aquellos tiempos y... con los nuestros: Il edo bizi ta oro zori. (Vida y muerte y todo es libre.)*

---

(1) Argibide auek, Harispe'ren ondorengo zan M. Albert Dutey-Harispe'ren *Le maréchal Harispe* itzalditik artu ditugu. Ikus: *La Tradition au Pays Basque* liburua, 1897'an Donibane Lohitzunen egin zan Biltzarraren itzaldiez osatua, eta 1982'an *Elkar* etxeak ostera kaleratua.

## «EIN TA BEROGOI TAMAR AUTX...»

Ein ta berogoi tamar autx  
erronkarietra xin zren  
eta Yenyariko puntan  
guziuak degollatu zren.

Bertso edo koplak au Azkue'k bere kanta-bilduman argitaratu zuan, 148 zenbakian, seaska-kanten artean, aurretik argibide au emanaz:

*«Históricas, como esta copla en que se canta una desastrosa expedición de franceses que en tiempo de Napoleón quedó aniquilada en el alto de Yenyari, monte que me lo mostraron, junto a Isaba.»*

*Autx* itzak zer esan nai duan adierazteko, oneladior:

*«Es el apodo despreciativo que dan en el Roncal al francés: autx, sin duda ao-uts, pura boca. Nunca es lícito tratar así a un pueblo, sobre todo tan culto como el francés. Posible es que los expedicionarios de Yenyari hayan sido hermanos de los roncaleses por su raza y lengua.»*

Íñor gaizki tratatzea ez dago ongi noski, Az-

kue'k esaten duan bezela. Berdin bearko luke, ordea, kulturaduna izan edo kultura gabea. Baiña aldi ontan ez al da Azkue serioegi jarri? Au ez da, gure iritzirako, erri batek bere auzo-erriari egiten dion adar jotzea baizik. Beste aldeko euskaldunak ere bazuten españolei esateko gaitz-izena, liburu ontan zenbait aldiz ikusten danez: Koko beltzak. Harizpe'ren mutillak gaitz-izen orrekin iseka egiten zieten mugaz ego aldeko guztiei, oietan arrazaz eta izkuntzaz beren senideak ziranak ere bazirala batere pentsatu gabe.

Bertsoaren alboan, Azkue'k itzulpena ematen du gazteleraz, era ontan:

*Ciento y cincuenta franceses  
vinieron a los Roncales  
y en la punta Yenyari  
fueron todos degollados.*

Leizaola'k Azkue'ren koplak au ere badakar bere «1808-1814 en la Poesía Popular Vasca» liburuan 90'garren orrialdean, eta bai bere «Crónicas y romances de la poesía euskérica» lanean, 123'garrenean.

\* \* \*

Rafael Gamba'k, bere *El valle de Roncal* liburuxkan, *Navarra, Temas de Cultura popular* saila-

ren 27 zenbakian, esan naia berdiñ-berdiña duan erdal kopla bat agertzen du:

*Ciento cincuenta franceses  
a Val-de-Roncal subieron,  
y en las peñas de Yinyari  
con sus armas perecieron.*

Gure iritzirako, kopla au gazteleraz sortua izango da, eta gero euskerara itzulia, erderazkoa askoz obeto tajututa baitago.

Gertaera ori, 1809'ko maiatzekoa degu. Erronkariarrak frantzesen aurka asiak ziran, Krutxaga eta Gamba bi anaiak buru zituztela. Onela dio Rafael Gamba'k:

*«Noticioso de este ambiente de rebelión, el gobernador militar francés de Pamplona, D'Agoult, envió una fuerte columna de cazadores (tropas de choque, escogidas) mandada por el comandante Puisalís, que llegó de noche inopinadamente y ocupó la villa de Roncal (23 de mayo). Sin embargo, la triste suerte de una avanzadilla que envió a Garde y que fue pasada a cuchillo por los habitantes, le hizo sentirse rodeado de enemigos feroces, armados y preparados para todo. Atemorizado, dispone Puisalís una rápida retirada a la estratégica altura de Santa Bárbara, con el deseo de alcanzar suelo francés. Pero los roncaleses, rápidamente reunidos, se lanzan en su persecución, sosteniendo una encarnizada batalla a vencer o morir, en la que la columna francesa, agotada de cansancio y perdida en el monte y la oscuridad, no puede resistir. Rendido su comandante bajo el puñal de Cruchaga, la columna es totalmente aniquilada.»*

«AU DA BUONAPARTE'REN...»

Au da Buo- na- par- te- ren  
len-bi-zi- ko la- na: Es-pai- ni -a- ko  
tro- pa nai e- zik da- ra- ma;  
gi- zono- rekba- dau-ka gu-zi- en- tzatla-





Au da Buonaparte'ren  
lenbiziko lana:  
Espainia'ko tropa  
nai ezik darama;  
gizon orrek badauka  
guzientzat lana,  
ezagutuko zuten  
traidorea zana.

Buonaparte'k utzi du  
lengo emazia,  
zarra enpleatuta  
artu du gaztia;  
gogoak eman dio  
mundua nastia,  
katolikoan gauzak  
orrela ezta.

Bi bertso auek, beren doiñuarekin, Azkue'ren  
*Cancionero Vasco* kanta-bilduman agertu ziran,  
613 zenbakian.

Berak Ernani'ko Marka Irurtia'ri jaso omen zizkion, liburu ortan dionez. Baiña borrhadore batean Maria Marka esaten du.

Leenengo bertsoa, geroago agertuko degun sail baten leenengo eta bigarren bertsoekin osatuta dago.

Kantutegi ortan, «nai ezik darama» ageri da leenengo bertso orren laugarren lerroa. Baiña borrhadore batean «a fuerza darama» esaten da. Eta ain zuzen, aitatu berri degun sail ortan, «a fuerza darama» irakurtzen da. Erriak modu batera esan eta Azkue'k *garbitu* ote zuan? Itxurak ala dira beintzat.

Bigarren bertsoaren seigarren lerroa onela idazten du Azkue'k: «munduan astea». Dudarik ez da «mundua nastea» bear duala.

Bigarren bertso orren puntuak, gramatikak eskatzen duanez idatzi ditu Azkue'k: *emaztea*, *gaztea*, *nastea*, *eztira*. Baiña aozko literaturaren legeak, Gipuzkoa aldeko bertso gintzan beintzat, *emaztia*, *gaztia*, *nastia*, *eztia* eskatzen dute, eta orrela idatzi ditugu.

Leenengo bertsoak, Napoleon'ek España'ko troparen bat norabait eraman duala esaten digu. Bearbada, *Marqués de la Romana*'rena izango da. Amabost bat milla gizon omen ziran, eta 1807 urtean, artean Frantzia ta España adiskide zirala, Dinamarca edo Jutlandia aldera eramanak. Baiña gerra asia zala jakin zutenean, ingles itxas-ontzitan sartu eta ostera España'ra itzuli ziran.

Bigarren goan, Bonaparte'k leengo emaztea utzi ta berria artu duala esaten zaigu. Leenengoak

Josefina zuan izena; 1796'an ezkondu ziran. Baiña ondorengorik etzuten eta utzi egin zuan, *dibortziatu* alegia, eta Austria'ko erregearen alaba Maria Luisa artu zuan emazte, 1810-IV-1'ean.

Bigarren bertso ori, Aita Lino Akesolo'k ere badakar, Azkue'ri artuta, bere *Bertsolaritza Per-nando Amezketarraren garaian* (Egan, 1969, VII-XII).

Bi bertso auek, Azkue'ren kanta-bildumatik artuta, Iñaki Zabaleta'k ere agertzen ditu bere *Independentziko guda herri kantutegian* idazlanean, *Oiartzun*, 1978 urtekarian.

Baita Jesus Maria Leizaola'k ere, bere *1808-1814 en la Poesía Popular Vasca* liburuan, eta bai bere *Crónicas y romances de la poesía euskérica* lanean ere.

\* \* \*

Au da Bonaparte'ren  
lenbiziko plana:  
Españiya'ko tropak  
artu beregana.  
Adibinatu zuen  
nola egin lana,  
ez bazuten ezagutu  
kontrariyo zana.

Amabost eun milla gizon  
Irun'go Pausuan,

lurrik ikusi gabe  
urte bete osuan;

.....  
.....  
.....  
.....

Bertso-pare au, leenengoa osorik eta bigarrena erdizka, Astigarraga'ko Domingo San Sebastian *Txadonzaia* zanaren aotik jaso nuan.

Leenengoa eta Azkue'ren aurrena berdintsuak dira, eta argibide bearrik ez dute.

Bigarrengeak, Bidasoa'z alde ontara zenbateraiñoko soldadu-pillak igaro ziran adierazten digu.

\* \* \*



Bo- na- par-te'k sal- du du len-



go e- maz- ti- a,



za- rra en- ple- a- tu ta ar-



Bonaparte'k saldu du  
lengo emazia,  
zarra enpleatu ta  
artu du gaztia.  
Orri gustatzen zaio  
mundua nastia,  
katolikuen gauzak  
orrela eztia.


«Gure errege gazte  
Pontzio Pilatos,  
aren ordenarekin  
erretiran gatoz,  
karrorik eztaukala  
arrastaka plakoz.»  
Españolaren kontra  
berriz ere betoz.

Doñu eta bertso-pare au, Oiartzun'go Berin-berri'n jaio eta Lasarte'n bizi zan Ines Berasategi zanaren aotik jaso genituan. Berak bere aitonari ikasi omen zizkion.

Leenengo bertsoaren argibideak leen ere emanak dira.

Bigarrena, berriz, ez da ain erreza. Gure iritzirako, bertsorik geiena erretiran dijoazen frantzesen aoan ezarri du bertsolariak, arronka batekin bukatzeko.

«GOROGI PALTSUAREN...»



be- re Ma- dril- go kor- te-

ra, bai- ña ez- ti- tu- daz i- tzak

kon- pon- du a- re- la.

1/ Gorogi paltsuaren  
lenengo papera,  
Españia'ko soldaduak  
bialtzeko Nortera;  
bai eta frantzes bere  
Madrilgo kortera,  
baiña ezitudaz itzak  
konpondu arela.

2/ Balentzia'ko suan  
ginaden atzera,  
Artzaia denpora artan  
lo izan artera.  
Ogeta bi jeneral  
joiazan galtzera,  
zergatik etorri etzara  
arek libratzera?



3/ Bosteun boluntario  
lengo egunean  
Lekeitio'n sartu diraz  
buenamentean;  
Mina de bebia(?),  
Longa de mi amor,  
Antsotegi, Campillos  
de mi corazón.

Iru bertso eta doiñu auek Azkue'k bere kanta-bilduman argitaratu zituan, 633 zenbakian, berak Gabika'ko (Ereño, B.) Dominga Aboitiz'en aotik jasota.

Emalearen izena ezarri ondoren, onela dio Azkue'k:

*«Debió ser compuesto este humilde poemita hacia el año de 1835. ¿Quién fue ese falso Gorogui? ¿Algún cabecilla?»*

Gorogi ori Godoy da, Karlos IV'aren denboran España'ko aginte guztiak bere eskutik zituana.

Nortera bialdu diran España'ko soldadu oiek, leen ere esan degunez, Marqués de la Romana'ren mutillak izango dira, Napoleon'i laguntzeko Dinamarca aldera eramanak.

Eta frantzesia Madrilleraiño sartu bada, orren errua ere Godoy paltsoari eransten dio bertsolariak.

Itzulpena ematerakoan, *Artzaia* itza *Pastor* itzarekin trukatu eta onela dio Azkue'k oar batean: *«¿El general Jauregui?»*

Bai. Alaxe da: Gaspar Jauregi, urretxuarra, irakurtzen eta idazten etzekiala emezortzi urterekin frantzesen aurka atera eta jeneral izateraiño iritxi zana. Karlisten leenengo gerratean ere (1833-1839) parte artu zuan, liberalen aldetik. Orrekin naastu dala uste degu Azkue, bertso auek 1835'ekoak dirala esateko. Leenagokoak, frantzesen denborakoak, baitira.

Naikoa zuan, ortaz jabetzeko, irugarren bertsoan agertzen diran izenak kontuan artzea: Mina, Longa, Antsoategi ta Campillos. Oiek danak gerri-llero-buruzagiak izan baitziran frantzestean.

\* \* \*

Jesus Maria Leizaola'k ere agertu zituan iru bertso auek, bere *1808-1814 en la Poesía Popular Vasca* (Ekin, Buenos Aires, 1965) liburuan: leenengoa 38 orrialdean, eta beste biak 89 eta 122'garrenean.

Bere *Crónicas y romances en la poesía euskérica* (Auñamendi, Donostia, 1981) idazlanean ere argitara eman zituan Leizaola'k iru bertso auek. Aurretik Azkue'k bezelaxe idazten ditu; eta ondoren, bere ustez bear luteken bezela, aldaketa auek sartuz:

1/1: Godoy paltsuaren; 1/3: soldadu españolak; 1/7: baña eztituez itzak; 2/1: Palentziako suan; 2/5: gure bi jeneralak.

Zuzenketa oiek zergatik egin dituan ere adierazten du. Bigarrengoan egiten dituanak, bertso orrek Palentzia'ko kanpaiñaz ari dalako omen dira. 1808'ko ekainean, Cabezón'go burrukaldian, Lassalle jeneral frantzesak España'ko bi jeneral ia galdu omen zituan: Gregorio de la Cuesta eta Francisco de Eguia. Bearbada ala izango da. Baiña Balentzia'n ere naiko zalapartak gertatu ziran gerra artan, eta gauza auetan ez da bein ere ziurtasun osorik izaten.

\* \* \*

Irugarren bertsoak dionez, bosteun boluntario Lekeitio'n sartu dira. Noiz gertatu ote zan ori? Aita Jose Inazio Lasa'ren *Jauregui, el guerrillero* liburua (*La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1973*) aztertu degu. Baita ere Estanislao Labayru'ren *Historia general del Señorío de Bizcaya*'ren zazpigarren alea (*La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1970*). Eta *Artzaia*'ren gizonak Lekeitio'n bein baiño geiagotan sarrerak egin zituztela arkitu degu. Itxurazkoenak, 1811-VII-28'koa, 1811-IX-8'koa eta 1812-VI-20'koa dirala ematen du.

\* \* \*

Irugarren bertsoan, bostgarren lerroan, «Mina de bebia(??)» idazten du Azkue'k, bi galdera eran-

tsirik, ulertzen ez duala-edo adierazteko. Eta Leizaola'k «Mina de Deba(?)» ezartzen du, galdera bakarrarekin, bere *1808-1814 en la Poesía Popular vasca* liburuan; eta «Mina de bebia (??)», Azkue'k bezelaxe alegia, bere *Crónicas y romances en la poesía euskérica* liburuan.

Izan ere, zailla derizkiogu lerro orri esan nairik arkitzea. Baiña guri, azken lerro oiek, garai batean Jesusen Biotzari kantatzen zitzaion erdal kanta bat dakarkigute burura:

*Dueño de mi vida,  
vida de mi amor,  
ábreme la herida  
de tu corazón.*

Aren antzera egiña ote da? Jesusen Biotzaren debozioa asko zabaldu zan XVIII'garren mendean, bai Euskalerrian Aita Mendiburu eta Aita Kardaberaz'en bitartez, eta bai Kastilla aldean ere. Kanta ori, beraz, orduan asmatua izan diteke. Baiña noizkoa dan ziur jakin gabe, euskal bertso orren azken lerroak erdal kanta orren antzera egiñak dirala esaterik ez dago.

Pio Baroja'k, bere *El aprendiz de conspirador* nobelan, Mina-eta 1830'eko Urrian Frantzia'tik Bera'ra Konstituzioa ekarri asmotan nola sartu ziran kontatzen digu. Gertaera orri buruzko bertso batzuk ere agertzen ditu, Alzate'ko arotz batek jarriak. Bertso oiek liburu onen mugetatik kanpo gelditzen dira. Baiña bertso bakoitzaren ondotik errepikagarri au kantatzen zala esaten du:

*Mina de mi vida,  
Longa de mi amor;  
don Gaspar de Jáuregui  
de mi corazón.*


\* \* \*

Iñaki Zabaleta'k ere argitara eman zituan iru bertso auk, *Oiartzun*, 1978 urtekarian, *Independentziko guda herri kantutegian* izeneko idaz-lanean, aurretik onela esanez:

«Gabikan bildua da, eta 1812 garreneko udarakoa. Dominga Aboitiz da bere egilea.»

1812'ekoa dala zuzen esan ditekela uste degu. Baiña leen ere adierazi degunez, Azkue'k, gizaki baten izena jartzean, ez du adierazi nai kantaren egillea bera danik, emalea baizik.

«NIK EZTUT IÑORENTZAT...»





Nik eztut inorenzat  
gauza gaitzik esanen,  
frantzesaren menean  
umil gaude emen.  
Ark «Jesus» dionean  
guk erantzun «amen»,  
bainan eztakit gero  
zer etorriko den.

Espainia'n sartu da  
milloi bat gizona

billatzen ezta errez  
alako pertsona:  
geiena erejea,  
guzia ladrona,  
berrogei milla ezta  
bizirik egona.

Gure errege zarra  
desbenturatua,  
gaizoak falta zuen  
entendimentua.  
Erregiñagatikan  
Baiona'n autua,  
baiñan eztu izango  
arekin tratua.

Iru bertso auek, beren doiñuarekin, Azkue'ren *Cancionero Vasco* bilduman arkitu ditugu, 666 zenbakian. Berak, Goizueta'ko Tomas Arribilla-ga'ri jaso omen zizkion.

Dirudianez, frantzesak artean nagusi ziran Espaiña'n, bertso auek jarri ziranean. Baiña bertsolariak ez du itxaropenik galtzen.

Irugarren bertsoak aitatzen duan errege zarra, Karlos IV da. Errege gaztea, berriz, Fernando VII. Biak ere Baiona'ra eraman arazi zituan Napoleonek, eta antxe beren errege-eskubideak berari pasa erazi, ondoren berak Espaiña'ko errege bere anai Jose izendatzeko.



Aita Akesolo'k, bere *Bertsolaritza Pernando Amezketarraren denboran* (Egan, 1969, VII-XII), leenengo eta bigarren bertsoak eskeintzen dizkigu, Azkue'ren kanta-bildumatik artuta.

Iñaki Zabaleta'k ere badakarzki bertso auk, *Oiartzun 1978* urtekarian, Azkue'renetik artuta.

Jesus Maria Leizaola'k bigarren eta irugarren bertsoak agertzen ditu bere *1808-1814 en la Poesía Popular Vasca* liburuan, 38'garren orrialdean; eta bere *Crónicas y romances de la poesía euskérica* idazlanean (Auñamendi, Donostia, 1981), 97'garren orrialdean, eta leenengoa eta bigarrena 113'garrenean.

**«GURE ERREGE MAITIA...»**

1/ Gure errege maitia  
famiarekin  
Frantzia'n sartu zuben  
lotsa gutxirekin;  
pikardiaz arturik  
gure fortalezak,  
España guztia  
nai zuben beretzat.

2/ Zubek, andre ezkondu,  
neskatxa ta alargun,  
zarrak eta gaztiak,  
kantatu dezagun:  
Biba gure senartxo,  
anai ta amantiak!  
Biba gure español  
ta erritar maitiak!

3/ Biba gure Fernando  
gogozko erregia!  
Berari bakarrikan  
diogu legia.  
Biba bere senide  
kautibo daudenak,  
Rejenziako eta  
korteko personak!

4/ Ill bedi Bonaparte,  
gaizto zital ura,  
zeren munduban eztan  
iñor aren gura.  
Lenbailen infernuban  
sartu dedilla,  
eta munduba pakian  
geldi dedilla.

Lau bertso auek, Loiola'ko artxibotik ditugu, Aita Jose Inazio Arana zanaren paperetatik.

Frantzestearen denborako bertsoak dudarik gabe, España'ko errege-familia artean Frantzia'n, Bonaparte'ren mende zala, jarriak.

Leenengo bertsoak «pikardiaz arturik gure fortalezak» esaten du. Gerra artean asi gabea zala ere, frantsesak oso maltzur jokatu zutela dudarik ez da. Orra, besteak beste, Iruñe eta beraren *ciudadela* nola artu zuten, *Conde de Toreno*'k bere *Historia del levantamiento, guerra y revolución de España* liburuan kontatzen duanez:


«*Por las estrechuras de Roncesvalles se encaminó hacia Pamplona el general d'Armagnac con tres batallones, y*

presentándose repentinamente delante de aquella plaza, se le permitió, sin obstáculo, alojar dentro sus tropas; no contento el francés con esta demostración de amistad y confianza, solicitó del virrey, Marqués de Vallesantoro, meter en la ciudadela dos batallones de suizos, so color de tener recelos de su fidelidad. Negóse a ello el virrey, alegando que no le era lícito acceder a tan grave propuesta sin autoridad de la corte; adecuada contestación, y digna del debido elogio, si la vigilancia hubiera correspondido a lo que requería la crítica situación de la plaza. Pero tal era el descuido, tal el incomprendible abandono, que hasta dentro de la misma ciudadela iban todos los días los soldados franceses a buscar sus raciones, sin que se tomasen ni las comunes precauciones de tiempo de paz. No así desprevenido el general d'Armagnac, se había de antemano hospedado en casa del Marqués de Vesolla, porque situado aquel edificio al remate de la explanada y en frente de la puerta principal de la ciudadela, podía desde allí con más facilidad acechar el oportuno momento para la ejecución de su alevoso designio. Viendo frustrado su primer intento con la repulsa del Virrey, ideó el francés recurrir a un vergonzoso ardid. Uno a uno, y con estudiada disimulación, mandó que, en la noche del 15 al 16 de Febrero, pasasen con armas a su posada cierto número de granaderos, al paso que en la mañana siguiente soldados escogidos, guiados bajo disfraz por el jefe de batallón Robert, acudieron a la ciudadela a tomar los víveres de costumbre. Nevaba, y bajo pretexto de aguardar a su jefe, empezaron los últimos a divertirse tirándose unos a otros pellas de nieve; distrajeron con el entretenimiento la atención de los españoles, y corriendo y jugando de aquella manera, se pusieron algunos sobre el puente levadizo para impedir que le alzasen. A poco, y a una señal convenida, se abalanzaron los restantes al cuerpo de guardia, desarmaron a los descuidados centinelas, y apoderándose de los fusiles del resto de la tropa, colocados en el armero, franquearon la entrada a los granaderos ocultos en casa de d'Armagnac, a los que de cerca siguieron todos los demás. La traición se ejecutó

*con tanta celeridad, que apenas había recibido la primera noticia el desavisado virrey, cuando ya los franceses se habían del todo posesionado de la ciudadela. D'Armagnac le escribió entonces, a manera de satisfacción, un oficio en el que, al paso que se disculpaba con la necesidad, lisonjeábase de que en nada se alteraría la buena armonía propia de dos fieles aliados; género de mofa con que hacía resaltar su fementida conducta».*

«ATZERRITARREN MENDE...»





- 1/ Atzerritarren mende  
gabiltza lanean,  
soldatarikan gabe,  
zakur-jornalean.  
Soldaduak armakin  
zai aldamenean,  
egurra emateko  
uste gutxinean.
  
- 2/ Gabean lotaratu  
gutziz nekaturik,  
an ere guretzako  
ez da deskantsurik.  
Nola dagon kamaiña  
zomorroz beterik,  
askotan ez daukagu  
begirik ixterik.

3/ Arkakoso, tximutxak,  
bata bezin beste,  
nere odol txamarrak  
txupatu dituzte,  
.....  
.....  
.....  
.....

4/ .....  
.....  
.....  
.....  
lau anka luze ditu,  
bi laburraguak,  
gaztaiña koloreko  
ardi menenuak.

Lau bertso auek, Aia'ko Urdaneta'n jaio eta gaur Lasarte'n bizi dan Pedro Artetxe adiskideak orri batean idatzi eta biali zizkigun. Doiñua, berri, berak kantatu eta guk magnetofonoz jaso. Aurretik onako adierazpen au egin zigun:

«Bertso oek, nik Urdaneta'ko aitonai entzun da ikasiak dira. Nere aitonari batez ere.

Aurrez gauza bat argitu nai nuke. Itz bat dago, zakar samarra dirudiana: zakur-jornalean. Baiña an askotan esaten zan, da ori mantenu-truke bezela zan. Erdi eskean edo orrela ibiltzen ziranak ere, baserri askotan egon izan ziran jan-truke, eta pe-



zetaren bat jairako baldin bazuten, da zakur-jornala deitzen zitzaion biziera orri.

Jatorri garbirik ez dakit zeinena izan zitezken. Baiña an «frantzesteko kantak» esaten zitzaien, eta Pastor Izuela'renak zirala esanaz kantatzen ziran.»

Itxura danez, beintzat, frantzesen mende prisonero zegoan baten bertsoak dira.

Pastor Izuela'ren bizitza eta bertsoak *Auspoa*'ren 106'garren zenbakian eman ziran argitara. Baiña bertso aukeratzetik eskuetaratu genituan. Bijoaz, bada, liburu ontan, doiñua aurretik dutela.

## «KANTORE BERRI POLLITAK...»

- 1/ Kantore berri pollitak  
Maiatzean emanak,  
Espainia'ra jina niz  
hala izanik ordenak,  
Jaun Zerukoak badazki  
nik sofritzen tudan penak.
  
- 2/ Ni sortzeko egunetan  
gauza frango bazterretan;  
arribatu nintzelarik  
munduko portaletan,  
miseria abiatu zen  
zaldiz zela-bridetan.
  
- 3/ Izan banu eskolarik,  
izkiriitzen molderik,  
engoitik banitazkeien  
ni ongi aberasturik,  
pobrezia kitaturik,  
andre eder bat harturik.

4/ Frantzia'tik hunat jinik  
hemen bagira gu hainitz;  
dolu-egingarriena  
guzietarik ni bainiz,  
bertze koblarik eman nio  
orai nik, Frantzia'n banintz.

5/ Aita dizut Xubero'ko,  
leku moneda fineko;  
deliberatu izan zuen  
harek apez egiteko,  
ideia ez balango jin  
ene formarazteko.

6/ Bonapart da leku hautan  
gizon bat aipatua,  
aspaldian harek badu  
beti soldado-galdia,  
bizi gareno ez dugu  
guk ikusiren Frantzia.

7/ Ene aitamak, anei-arrebak,  
bizi zaitezte trankilki,  
gizon gazteak behar du  
denboraz nonbeit ibili,  
ibiltzen denak badaki  
pena-plazeraren berri.

Zazpi bertso auek, Aita Donosti zanaren artxibotik ditugu, leen ere aitaturako *Cuaderno de Argentina* ortatik. Eskuz idatzita daude.

Kuaderno ortan izenburu au du sail onek: «Desertur joan zen bat Espainialat». Ori, bertso auek kopiaturu dituanaren iritzi bat besterik ez da izango. Oker dabilhela uste det, ordea.


Izan ere, bertso auen jartzaillea Espainia'n dabilhela, leenengo bertsoak esaten digu. Baiña sei garrenak dionez, Bonaparte'ren denboran da, eta soldadu-eskea egiten du arek beti, Bidasoa'z ego aldeko gerra ortan gizon asko galtzen ditualako noski. Mutil ori ere orrela etorria da. Eta gizarajoak, gerrarako batere gogorik gabe eta bere buruaz etsita, ez duala geiago Frantzia ikusiko pentsatzen du.

Bigarren bertsoak adierazten digunez, mutil ori jaio zanean, «gauza frango bazterretan» omen zan. Gertakari asko zirala alegia. Ain zuzen, Frantzia'ko Iraultza garai artantxe gertatu zan. Izan ere, Paris'ko *La Bastilla* izeneko gaztelua 1789'ko Uztaillaren 14'ean artu zuten iraultzaleak, eta berak agintean jarri. Espainia'ko gerrak, berriz, 1808'tik 1814'era iraun baitzuan, orduantxe zituan mutil onek soldadu-urteak.

Zazpigarren bertsoa bere etxekoei zuzentzen die. Aiei bialdutako saila izango da, beraz. Eskutitz bat, alegia, bertsoan tajutua, Ameriketatik onuntz eta emendik aruntz egiten ziran bezelakoa.

«INGLES KRUBEL BARBARUAK...»





Ingles krubel barbaruak  
utzi gaitu peritzera.  
Zertan eman etziguten  
gerlako arrantxua jatera,  
.....  
laja gabe peritzera?

Bertso eta doiñu auek Azkue'ren esku-ida-  
tzietan arkitu degu. Ez baitzuan bere kantutegian  
argitaratu.

Ondarrabia'n jaso omen zuan. Noren aotik ez  
du esaten, ordea.

Inglesen prisionero dagoan batek itzegiten du  
emen. Gerra-denborako bertsoa, beraz. Zein ge-  
rra degun somatzeko, egillea nungoa dan jakin

bear genduke. Bidasoa'z ipar aldekoa balitz, Ingalterra eta Frantzia'ren arteko gerraren bat bearko luke. Ego aldekoa izanik, berriz, Ingalterra eta España'ren artekoa.

Ingalterra'k eta Frantzia'k 1793'tik 1795'era izan zuten gerra alkarrekin, iraultzaleak Luis XVI'ari lepoa moztu ondoren.

Urrena, Ingalterra alde batetik, eta bestetik Frantzia eta España, iru nazio auek gerra izan zuten 1796'tik aurrera, 1805'eant Trafalgar'ko burruka-aldia gertaturik.

Ondoren, frantzestearen denboran (1808-1814), Ingalterra'k eta España'k, alkarrekin adiskidetu eta gerra jo zuten Frantzia'ren aurka.

Azkeneko au izan zan danetan luzeena eta gogorrena. Alkarri prisionerorik geiena egingo ziotena ere bai, beraz. Orregatik ezarri degu bertso au gerra ontako bertsoen artean, gauza segurua ez bada ere.

Bi itz baditu bertso onek, Bidasoa'z ipar aldeko euskera salatzen dutenak: «gerla» eta «peritzera». An jarritako bertso-sailen baten kondarra ote degu, beraz?

## EUSKERAZKO AGINDUA

«Nafarro'ko Jenerala edo Gobernadoreak: aspaldian pentsatzen du damutasun andiarekin Probintzia onen trabajuak aundiak direla, zergatik Bandidoen Komendanteak eztuten itzuli nai beren leku antiguetara eta atra ziren kondizionera. Konserbatzen dute poderea, yabetu dire manazeaz terrorearen medioz, azpian konserbatzeko añiz mutil gazte, zein baitaude suspiratzen itzultzeko beren etxetera.

Konsideratzen dut, bada, enpleatu bear direla eta paratu bear direla modu posibleak guziak, akabatzeko gizon batzuk ain opositatuak Nafarro'ko bakiari; zergatik gizon ebek dela medio, erreino au esponiturik dago arruinatzera osoki. Egiten dute, bada, gizon ebek egunero aski gaizki, manatzen dutela asesinatzea, hiltzea eta bearriak ekenetzea alkateri, rejidoreri, bertze añiz personeri.

Dekretatzen dut segitzen den bezala:



I

Nafarro'ko Erreinuko Bandioen Buruak paratzen dire premiotako.

II

Edozein personak arrapatzen duenak edo arraparazten badu edo hiltzen badu Jefe Bandidoena Espoz eta Mina, entregatuko zaizkio Iruñe'ko ziu-dade ontan sei milla duro, agradezimentutako edo premiotako.

III

Orobat entregatuko zaizkio lau milla duro arrapatzen duenari edo arraparazten duenari edo iltzen duenari Jefe Bandidoena Krutxaga.

IV

Orobat entregatuko zaizkio bi milla duro edozein personari, arrapatzen badu edo iltzen badu Jefeak nonbratuak Gorriz, Ulzurrun eta Txolin, baktxandako bi milla duro.

V

Premio eben gañean, Gobernuak idukiko du edozein personagatik, egiten badu zerbitzu hau, konsiderazioa; eta izaten bada haien bandako laguna edo lagunak, izanen dire barkatuak beren

delitoetarik, eta errezibituko dute premia iguala, bertzek bezala, ziudade onetan.

Egina ene palazioan. Iruñe'ko hirian, Agoztoaren 24, 1811. Nafarro'ko Jenerala eta Gobernadora, Kondea Reille.»

\* \* \*

Agindu edo bando au euskeraz eta erderaz eman zan, guk emen euskerazkoa bakarrik agertzen badegu ere. Hermilio de Olóriz'en *Navarra en la Guerra de Independencia. Biografía del guerrillero D. Francisco Espoz (Espoz y Mina)* liburuan arkitu degu: *Pamplona, Imprenta, librería y encuadernación de N. Aramburu, San Saturnino, 14 y Curia 17 y 19. 1910.* Berak, Iruñeko udal-arxibotik omen zuan.

Esan bearrik ez dago dokumentu au beste idazkeraz eta ortografiaz ageri dala dalako liburu ortan. Argitaratu ere ala egingo zan bere garaian. Idazkera ori gaurkotu egin degu guk, bertsoekin ere orrela egiten degun ezkeru.

Baiña berezko ortografia zaar ori nola dan irakurleak ikus dezan, ona zatitxo bat bederen:

«Nafarroco Generala eta Gobernadoreac.- Aspaldian pensazendu damutasun andiarequin Provincia onen trabajuac aundiac direla cergatic Bandidoen Comendanteac ez-tuten Hizuli nay beren lecu antigüetara, eta atraziren condicionera. Conserbacendute Poderea yabetu-dire manazeas terrorearen medios, azpian conservaceco añiz Mutil

Gaste cein baitaude suspiracen Hizulzeco beren hechete-  
ra...».

Dakigunez, Espoz eta Mina Naparroa'ko gerrilleroen burua zan. Reille Kondea, berriz, Napoleon'ek Naparroa'n zituan soldaduen jenerala.

Jeneral onek, 1811'ko Agoztuaren 5'ean, barkamena eskeiñi zien armak entregatzen zituzten gerrilleroei. Baiña artaratzen etziranak, armak eskuan zituztela arrapatu ezkerro beintzat, urkatuak izango zirala; eta beren familikoak preso artuak eta ontasun guziak kenduak. Erri bakoitzeko udal-gizonak, gerrilleroetan ziran mutillen izenak salatu bear zituzten. Baita beren gurasoenak edo aiderik urbillenenak.

Ori jakiñik, Espoz eta Mina'k beste agindu bat zabaldu zuan Agoztuaren 14'ean: armak entregatzen zituzten gerrilleroak eriotz-pena izango zutela; eta bai beren guraso edo aiderik urbillenak ere, edo artarako aolkua ematen zietenak.

Orduan Reille jeneralak, or goien ezarri degun beste agiri ori eman zuan. Oloriz jaunak onela dio:

*«Cuando se redactó este bando, las tropas franceses existentes en Navarra habían recibido un aumento de ocho a nueve mil soldados italianos. Reille lo previno al Intendente Bessieres en oficio de 24 de Julio, en el cual le anunciaba la próxima llegada de 900 caballos destinados a la artillería y a la necesidad de reunir las provisiones necesarias para atender a la subsistencia de 30.000 hombres por espacio de tres meses; transcurso de tiempo y número de fuerzas que sin duda estimaba suficientes para acabar con los mermados batallones y regimiento de caballería del Reino de Navarra. Más adelante veremos si se realizaron sus cálculos».*

Ondo alperrik, ordea, frantzes jeneralaren

prestaketa eta bando guztiak. Askotxo falta zuan gizarajoak, naparrak zer diran ikasteko.

Bandoaren irugarren atalean, Krutxaga'ren aitamena egiten da. Gregorio Krutxaga Urzainki zituari izen-abizenak. Erronkarikoa zan, Urzainki'ko errian jaioa. Espoz eta Mina'ren urrengo izan zan gerra artan. Baiña Ormaiztegi'n zauritu eta Etxarri-Aranatz'en il zan, 1812'ko maiatzaren 30'eant.

Laugarrenean, beste iru gerrilleroren izenak aitatzen dira.

Euskera garai artan Naparroa'n oso zabaldua zegoala, danok dakiguna da noski. Egoera orren aitorpen bat geiago degu bando ontan. Frantzesak ez baitziran gure izkuntza xuxpertz bearrez ari, beren aginduak aal dan geienik zabaldu nairik baik. Eta ortarako euskera bearra zala ikusi.

## MULTA

*«En nombre de Su Majestad el Emperador de los franceses, Rey de Italia, Protector de la Confederación del Rhin, Mediador de la Confederación Suiza, etc., Conde de Reille, Jeneral Nafarro'koa, Gobernadorea eta Ayudante-Campo Enperadoreena naizan partez,*

Mariskal Duke Istria'koak manatu du Nafarroa'ko Reinoak paga dezala ogei milloi erreal bellonen multa.

Multa onen pagurako Konde Dorsenne Norte España'ko Jeneralen Jefe Jaunak disponitu du ametitu daitezela tropai entregatu zaizkaten alimentu ta gauza guztien bonak, urte enetako ot-saillaz geroz, amar milloietaraño.

Disposizio onen bistan preziso da multa au paga dezaten briganteak dituzten erriak, ta orobat oiei ongi egiteko desoea erakutsi dutenak; baña ez briganterik duten erriak, ta desoea ta borondate onarekin gobiernoaren ordenai zuzen obedezitu diotenak; oiek bear dute izan osoki libre multa

onetatik. Onen bista dekretatzen dut modu onetan.

Artikulo I. Edozein modutan tropai urte onetako Ilbeltzaren lenbiziko egunetik eman zaiozkaten gauzen errezibu edo bonak, izanen dira ametituak ogei milloi erreal bellonen multa Garargillaren zortziko ordenean bota zenaren pagurako amar milloietarano; bada beste gañerako amar milloiak bear dute izan pagatuak dirutan.

Erreinuko Diputazioa dago enkargatua Erriak aurreratu dituzten gauza guzien bonak ekusteko eta kontuetan errezibitzeko; bañan ez ditzala ametitu, non-ta legalidade guztiarekin presentatzen ez diran.

Artikulo II. Briganterik kuadrilletan ez duten erriak, izanen dira libre multa onetatik, bañan gelditzen dira obligatuak pagatzera Abuztuko illerañoko mensualidade guztiak.

Artikulo III. Briganteak dituzten erriak pagatuko dute bakoitzagatik berrogei pezeta asteoro; ta gañera bear dute pagatu bereala mensualidade zor duten guzia. Zergatik da nere borondatea briganteak dituzten erriak pagatzea multa guztia, ala berai tokatzen zaiotena, nola beste libre gelditzen diranen partea.

Artikulo IV. Artikulo onetan manatzen den multaren pagurako, Gobernuak uzten du erriaren faborian briganten ondasunak, zeñak edatzen baitira aitara, amara, anaiera, arrebara, semearen eta illobaren graduaraino, Mariskal Duque Istria'k erraten duen bezala bere dekretuan, illaren Garagartzaruaren bosgarrenian pasatuan.

Artikulo V. Irugarren artikuluan erraten den multatik errebatutako dira berrogei pezeta aste bakoitzean, erriak kuadrilletatik erretirazi duten persona bakoitzagatik; ta orobat baldin arrapatu, edo ill, edo ill-erazitzen, edo arrapatu-erazitzen duten bakoitzagatik.

Artikulo VI. Abuztuko illaren ogei ta lauean eman nuen dekretuan konzeditzen zen sariaz gañera, edozein persona kuadrillen aintzindari bakoitza arrapatzen edo arrapatu-erazi, ill edo ill-erazitzen duen bakoitzagatik, -zergatik oien buru infameak premioetara emanik dauden-, baldin aietatik bat erriren baten medioz ill edo arrapatua izaten bada, izanen da errian libre kontribuzio-jenero guzitik bi urtez.

Artikulo VII. Dekreto presenteko au para bedi euskaraz inprimitu, eta paratuak izan dedin paretean Nafarroa'ko erri guzietan; ala erderaz nola euskaraz igande guzietan elizan lei bezate Parrokoak eta Bikarioak.

Artikulo VIII. Erri bakoitzeko Parroko, Justizia eta apez gañerako guztien personen gañean gelditzen da obligazioa.

1. Irugarren artikuluan paraturik dagoen multaren pagamentua eta kunplimentua.

2. Dekreto presenteko au boza altu ta garbi adi daitekeen moduan leitzea igandeetan mezako denboran; eta leitze onen kontua bearko dute eman eta aseguratu eskribano publiko baten medioz.

Artikulo IX. Intendentea, Diputazioa, Eskuadroiaren aintzindari edo Gefe Mendiri, poliziako direzioa duena: baita ere Kolumna, eta egotez

dauden tropen Komandante guztiak daude enkar-gatuak, bakoitza tokatzen zaion partean, begiratzeko lazki presenteko dekretu onen kunplimentua, zuzen ta puntualki egiteko.

Egiña Iruñe'ko Palazioan, Buruilla edo Septiembrearen 25 de 1811. Dibisioko Jenerala, Gobernadorea: Firmatua: Konde Reille.

Kopia fielki aterea: Nafarroa'ko Intendentea: Jul. Bessieres.»

\* \* \*

Beste agiri edo bando au ere, leengoaren leku beretik artua degu: *Hermilio de Olóriz: Navarra en la guerra de la Independencia, Biografía del guerrillero D. Francisco Espoz (Espoz y Mina), Pamplona, Imprenta, librería y encuadernación de N. Aramburu, San Saturnino 14 y Curia 17 y 19, 1910* liburutik.

Berak nundik zuan adierazteko, onela dio: «*Consérvase un ejemplar de este documento en el Archivo del Ayuntamiento de Pamplona, Sec. de Ords. y Circs.*»

Onen aurreko bandoaren ondotik eman ditugun argibideak, aski dirala uste degu beste agiri au ere ondo ulertzeko. Gerrillero edo «briganteak» gero eta indartsuago ikusirik eta ezin menderaturik, multen bidez saiatu nai dute orain frantzesak. Eta aldi ontan ere erderaz eta euskeraz idazten dute beren agindua, gure izkuntzak garai artan Naparroa'n zuan zabaleraren aitorpen garbia emanetz.



## «AMAK SEMIARI ESATEN DIO...»

- 1/ Amak semiari esaten dio:  
«Josetxo, nere maitia:  
zu orrelaxe erabiltzeko  
etzinduztedan sobria,  
oraindañotxe nekez azita  
gero zer paradoria!».
  
- 2/ Semiak amari ematen dio  
bereala errespuesta:  
«Ama neria, ez egon triste,  
neria bakarrik ez da.  
Dirurik gabe ezin nindeke,  
ekatzu amar pezeta.
  
- 3/ Aldeko Pello ujuka dago  
juan nadilla aguro.  
Ama neria, ez egin negar,  
ez du batere balio.  
Iltzen ezpanaiz, etorriko naiz,  
nere ait-amak, adio».

4/ Danbor txiki bat artu eta  
juaten gerade mendira.  
Mutillak sutan preparatu ta  
agintariak begira,  
estuena-estuena geran denboran  
jotzen digute erretira.

5/ Mendian gora giñuazela,  
begiratuaz alkarri:  
«Nere lagunak, emen zerate?».  
«Palta ditugu beste bi:  
Patxiku bertan bota digute,  
Pello jua zan aspaldi».

6/ «Nere lagunak, aitu ezazute  
erretirako soñua.  
Sarjento aiek badarabilte  
irrintzia ta ujua:  
Ia, mutillak, arrapa zagun  
goiko aldeko munua».

7/ Boluntario sartu nintzan ni  
neuretzat zorigaitzian;  
iru balazok ere jo naute  
aiek alako trantzian:  
bat txapeletik pasa zitzaidan,  
bi pantaloien ertzian.

8/ Boluntario mixerabliak  
agitz ditut nik erruki:  
enemigua gañetik eta  
erreziyua urruti.  
Gure bizitza nolakua dan  
Jaun Zerukuak badaki.

9/ Nere lagunak, ez ikaratu  
ausentu onetan geiagi,  
iru nagusi baditugu ta  
segi daiegun berari:  
bata da Mina, bestea Longa,  
biba Don Gaspar Jauregi!

Bertso auek Don Manuel Lekuona jaunak bialdu zizkigun, makinaz idatzita eta bi aldiz kopia-tuak, kopia batetik bestera aitatzerik merezi duan aldaketarik ez dutela.

Berak nundik zituan ez dakigu. Baiña bertsoen ondotik onela dio: «Etxabe'tar Joseba. Azkoitia.» Emalearen izena edo bialtzaillearena izango da, zalantzarik gabe.

Izenburua beste onela dauka: «(Erroman-tze-antzeko) Prantzestekoak. Zeñenak?». Bertso auek badute, izan ere, antza-puska bat erroman-tzeekin.

Kopia batean, leenengo bertsoaren bostgarren lerroan, onela irakurtzen da: «Gravi da notxe nekez azita». Eta bestean: «oraindañotxe nekez azi-

ta». Auxe izango da: bertso auk Don Manuel Lekuona'k Azkoiti'ko Joseba Etxabe orri, edo onek beste norbaiti jasoko zizkiola, eta lerro ori etzuala emaleak garbi esango. Eta gero Don Manuelek, lerro orri esan naia ematearren, «oraindañotxe» idatzi, «gaurdañotxe» neurrian motx gelditzen baita.

Gauza bera esan genezake bederatzigarren bertsoaren leendabiziko lerroarengatik. Kopia batean, «Nere lagunak, ezika datoz(?)» idatzita dago. Eta bestean bitara: esan degunez eta beste onela: «Nere lagunak, ez ikaratu».

Biak ere bidezko zuzenketak dira eta ontzat artu ditugu, irakurleak bertsoetan ikusi duanez.

Kondaira aldetik ez dute bertso auk argitu bearrik. Baiña frantzesekoak dirala azken bertsoan ageri da; Mina, Longa eta Jauregi aitatzen diranean alegia. Mina, Naparroa'ko gerrilleroen buruzagia izan baitzan gerra artan; Longa, berriz, bizkaitarrena; eta Jauregi, gipuzkoarrena.

Oni, ordea, leku berezia ematen zaio: izena, errespetozko «Don» tratamentua eta biba bat ere bai. Beste biei, berriz, abizena soil-soillik. Zer esan nai du onek? Gure iritzirako, bertsoen egillea ere gipuzkoarra zala.

**«DON GASPAR DE JAUREGI...»**

1/ Don Gaspar de Jauregi,  
Billarreal'ko semea,  
ondo gobernatzan du  
ark bere jendea.

*Ea, pastorcito  
de la Trinidad,  
Gaspar es comandante  
de la partida.*

2/ Medikuaaren alaba,  
portuna izan dezu,  
Don Gaspar de Jauregi'k  
bear omen zaitu.

*Ea, pastorcito...*

Bi bertso aukeratuak Azkue'k Errialde'n jasotakoak.  
Baina ez du esaten noren aotik. Beraren esku-ida-

tzietan arkitu ditugu. Oso oker ez bagaude, etzituan iñun argitaratu. Etzitzaizkion, izan ere, oso gogozkoak. Ona zer dion dalako esku-idatzi ortan:

*«Tiene esta canción trazas de ser alguna canción exótica, popular acaso en Castilla hacia el año 1834, adaptada a un vascuence pintoresco por los admiradores del partidario cristino Jauregui (a) el Pastor. Figura ya este personaje con su apodo en algún otro número de esta colección. La siguiente estrofa de este esperpento dice así...»*

Jauregi, karlisten leenengo gerratean (1833-1839) liberalen jenerala izan zan. Baiña frantzestean artu zituan armak, eta Gipuzkoa'ko gerri-lleroen buru izan zan. Baiña erderaz *guerra realista* esaten zaionean ere (1821-1823) parte artu zuan. Zein gerratakoak ditugu, beraz, bertso auek?

Frantzestekoak dirala esango genduke guk, bi arrazoiengatik. Bata, 1791'n jaioa izanik, gerra orren denboran zituan galai-urteak, bigarren bertsoan esaten danari dagokionez. Ta bigarrena, «partida» itzak soldadu-talde txiki xamarra esan nai du, ta olakoen buru frantzestean izan zan Jauregi, asieran batez ere. Beste bi gerretan talde aundiagoak izan zituan bere mende.

«ASI ZUBIBARRI'N DA...»

A- si Zu-bi-ba-rrin da Bo-lu-e-ta-gi-  
no a- si Zu-bi-ba-rrin da. Bo-  
lu-e-ta-gi- no e-tzan lu-rrik a-  
gi-ri fran-tzes i-la bai-no.

O- lé, sa- la- da, fran- zes i- la bai-  
 no, o- lé, mo- re- na, Bo-  
 lu- e- ta- gi- no.

Asi Zubibarri'n da  
 Bolueta'gino  
 etzan lurrik agiri,  
 frantzes ila baino.  
*Olé, salada,*  
 frantzes ila baino,  
*olé, morena,*  
 Bolueta'gino.

Doiñu eta bertso auek etzitan Azkue'k bere kanta-bilduman argitaratu, baiña orain bere esku-idatzietan agertu dira.

Zer kanta-mota dan eta nundik jaso zuan adierazi nairik, onela esaten du: «*Danza cantada, de Amorebieta (B), Estankona Lucia*».



Baiña geienetan, andre oni kanta geiago ere jaso baitzizkion, *Luziana* idazten du beraren izena.

Beste argibide auek ere ematen ditu:

«*Alude a alguna batalla que se dio en las cercanías de Bilbao, en la guerra de Napoleón, llamada vulgarmente la Francesada. Zubibarrí (Puente Nuevo) y Bolueta constituyen un barrio de Begoña, junto a Bilbao*».

Burruka ori noiz izan zan, eta beste zenbait txetasun ere bai, Labayru kondairalariak ematen dizkigu, bere *Historia general del Señorío de Bizcaya, Tomo VII, Bilbao, 1970, 308 orrialdean*. Onela dio:

«*Los franceses que habían salido de Bilbao, reforzados con nuevas tropas, intentaron volver a la villa; pero en el paso de Bolueta, Mendizábal, Porlier (el Marquesillo), e Eustaquio de Salcedo y las tropas de Renovales los rechazaron en los días 13 y 14 (de agosto de 1812), quedando fuerzas bastantes en las anteiglesias de Begoña, Echábarri, Basauri y otras cercanas hasta Areta, en previsión de nueva acometida*».

## JUAN FERMIN LEGIA

Juan Fermin Legia Fagoaga Bera-Bidasoa'ko semea zan, 1787'ko otsaillaren 5'ean jaioa. Mina'ren gerrillan sartu eta gogotik saiatu zan franztzesen aurka.

Aundi xamarrak egin bazituan ere, aren aundiena Ondarrabi'ko gaztelua artzea izango da, 1813'ko Martxoaren 11'aren gauean, amabost mutillekin, ormetan gora iltze, maillu ta sokekin igota, denborale zakarrak mailluaren kolpe-otsak estaltzen zitularik.

Aren ausardiaren fama bazter guztietara zabaldu zan, eta esaera bat ere bazebillen orduan jendearen aotan:

Fermin Legia,  
kontra biño alde obia.

Beratar onek badu bertsolaritzarekin lotuta dagoan gertaera bat. Juan Iturralde Suit napar idazleak kontatzen digu, bere *Juan Fermin de Leguia*

idazlanean, *Euskal-Erria* aldizkarian, 1888 urteko alean. Lan luzea baita, orrialde auetara osorik ezin aldatu diteke, eta ona emen gure gaiari dagozkion zatiak:

«*Sus padres Pedro Toribio y María Francisca Fagoaga, escasos de fortuna, eran de los que en el país llaman maisterak, (inquilinos), y llevaban en arriendo el vetusto caserío de Urrola, uno de los que constituyen el barrio de Cía, en Bera.*»

Ondarrabi'ko gaztelua artu baño egun batzuk aurretik, 1813'ko martxoaren asieran, bere etxera etorri omen zan gau batean, eta lotarako bertan gelditu. Onela esaten du Iturralde Suit jaunak:

«*Fermín, rendido por el cansancio, se dejó caer sobre el pobre lecho de una habitación contigua, y quedóse profundamente dormido; matáronse las luces, extinguióse el fuego, y la vieja casuca quedó sumergida en las tinieblas que sumergían la selva.*

*Pocas horas después, en medio del silencio de la noche, oyóse una voz, lejana y débil al principio, clara y vibrante luego, que tarareaba una canción bascongada. El viejo mastín del caserío, acurrucado entre los helechos del establo, dio un salto, olfateó y comenzó a ladrar furiosamente; pero antes de que el noble animal diera la señal de alarma, la madre de Leguía, que velaba como sabe velar toda madre que cree a su hijo en peligro, escuchaba ya temblorosa tras de la atrancada puerta.*

*La voz repetía con insistencia la misma tonada, diciendo:*

Urrola'ra, Urrola'ra,  
Urrola'ra goazi,  
ta norbaitek arara  
laister egin dezala.

*Era un amigo de Fermín, el leal Tipiri, que obligado por los franceses a guiarles al caserío de Urrola, donde sabían se encontraba el ya temible guerrillero, avisaba a éste que huyese, por medio de una improvisación ininteligible para ellos.*

*La madre de Leguía, comprendiéndolo todo, y aterrada, despertó a su hijo; lanzóse éste fuera de casa, y salvando el seto de la huerta se internó en el bosque; pero mirando antes hacia el punto por donde venían los franceses, dijo a media voz y apretando los puños:*

*– Pronto os devolveré la visita.»*

Ondoren, oar batean, onela dio Iturralde Suit jaunak:

*«Esta es una prueba más de la fidelidad con que se perpetúa la tradición oral en nuestras montañas. La respetable persona a quien debemos esos y otros detalles los ha escuchado de boca de un anciano de 92 años, que aún vive y recuerda, no sólo la letra de la improvisación de Tipiri, sino la música.»*

Ikusten danez, frantzesak utzi egin zioten *Tipiri* orri kantatzen, aren kantuak erritarren batzuk zetoze, eta ez atzerriko soldaduak, aditzera emango zualakoan. Baiña *Tipiri*'k, bertsolari-sena izanik, itz berriak sartu zizkion doiñu zaarrari, eta Urrola baserrikoak jakiñaren gaiñean jarri eta gizon bat salbatu. Eskerrak soldadu aietan Bidasoa'z ipar aldeko euskaldunik etzala izango.

Ez det uste bertsoa ondo artuta dagoanik. Doiñua ezagutzen ez baitegu, neurria nola izan ziteken esaten zailla da noski. Baiña zortziko aundia baltiz, bukaera beintzat onelatsu bearko lukela uste degu:

eta norbaitek andikan laister  
egin dezala igesi.

Edozein moduz, gertaera onek balio aundia du guretzat, aotik aorako bertsolaritza garai artan ere bizi-bizirik zegoala erakusten baitigu.

\* \* \*

Pio Baroja'k ere, bere *El aprendiz de conspirador* nobelan, bertso au dakar, era ontan:

Urrolara, Urrolara,  
Urrolara guazela,  
norbaitek ara laster auguro  
igesi in dezala.

Bearbada, «norbaitek andik laster aguro igesi egin dezala» bearko luke.

Baiña gertaera ez du frantzestearen garaian jartzen, Mina'k, Legia'k eta abarrek 1830'eko urrian Frantzia'tik Bera'ra igaro ziranean baizik, España'n Konstituzioa ipiñi nairik. Kantatzen duana, berriz, *Pithiri* da; ez *Tipiri*. Eta beste alda-keta batzuk ere baditu.

Baroja'k ere gertaera Bera'n norbaiten aotik jasoko zuan, eta ondoren bere nobela ortan sartu. Baiña Iturralde Suit'ek, esan degunez, 1888 urtean argitaratu zuan bere lana; Baroja'ren nobela ori, berriz, 1913'koa da. Arek, beraz, orixe du bere alde: gertaera ogei ta bost urtez urbillagoa duala.

## PUSKAK

Frantzesen gerra oni buruz, guk eskuratu ditugunak baiño bertso geiago jarri ta zabalduko zirala ez dago zer duda egin, leen ere esan degunez.

Erakutsi ere ala egiten digute andik eta emendik bildu aal izan ditugun gerrate luze artako bertso-puskak, eta bai koplak bakanak ere.

Oietako batzuk orain atal ontan eskeintzen dizkiogu irakurleari.

Leenengo bertso-puska au eta bere doiñua Azkue'ren esku-idatzietan azaldu dira. Ez baitzituan bere kanta-bilduman argitaratu.

Emalearen izena ez da ageri. Baiña emale orrek ez ote zion bertso osoa kantatuko? Bearbada bai. Azkue'k, ordea, bertsoen letra etzuan beti aintzakotzat artzen.

Ehun mila gizon  
Napoleonekin...

The image shows a musical score for a song. It consists of six staves of music in treble clef, with a key signature of three sharps (F#, C#, G#) and a 2/4 time signature. The lyrics are written below the first two staves. The first staff has the lyrics 'E- hun mi- la gi- zon Na- po-'. The second staff has the lyrics 'le- o- ne- kin . . . . .'. The third, fourth, fifth, and sixth staves contain musical notation without lyrics. The music features a mix of quarter, eighth, and sixteenth notes, with some rests and a final double bar line at the end of the sixth staff.

\* \* \*

Beste au, Pio Baroja'ren *Zalacain el aventurero* liburutik artua da. Onela dio:

Manuelatxo, eska zaiozu  
barkaziyua Andresi,  
beti orrela ibilli gabe  
majo xarraren igesi;  
Napoleonon pauso gaiztoak  
ondo dituzu ikasi.

Bertso au gerra ondokoa da noski. Baiña Napoleonon oroipenak artean bizi-bizirik irauten zuan.

\* \* \*

Beste bertso puska au, *Gilen* izenpetzen zuan batek, *Príncipe de Viana* aldizkarian argitaratu zuan, 1981 urteko azaro-abenduko zenbakian, *Donibane'ko hiri-murru handien ondoan* idazlanean. Onela dio:

Napoleon Bonapart:  
ehun zorri ta mila partz;  
taloz ase ta zalapart!

Garazi'ko haurrek esaten omen zuten, ditxu oihuka edo kantuz.

\* \* \*

Beste au, berriz, neronek jaso da, Irun'go Udaine baserriko amonaren aotik:



Napoleon ori  
Españian buru  
eztegu ikusi bear  
lotsarik badugu.

«AURRENETIKAN BAZUTEN...»



Au-rre- ne- ti- kan ba- zu- ten fu-




r- run fa- r- run fran- ko, a- la ze- bil- tzen




ar- te al- ka- rre- kin jun- to. Pre-



be- ni- tu za- ne- an es- pa- fio- la pron-



to, il du- te zen- bait fran- tzes bu



-ru an- di ton-to.

Aurrenetikan bazuten  
furrun farran franko,  
ala zebiltzen arte  
alkarrekin junto.  
Prebenitu zanean  
españolá pronto,  
il dute zenbait frantzes  
buru andi tonto.

Doiñu eta bertso auek Azkue'k Ondarrabi'n jasoak dira, bere kanta-bilduman argitaratu gabeak eta orain beraren esku-idatzietan azalduak. Ez du emalearen izenik ematen.

Frantzetekoa da dudarik gabe: frantzesá beerraka zijoala ikusirik, españolá burua altxatzen asi zanekoa.

\* \* \*

Garai berekoak izango dira beste doiñu eta bertso auek ere. Azkue'k Zumaia'n jaso zituan, naiz-eta emalearen izena ez esan. Baiña argitaratu gabe utzi zituan, eta orain beraren esku-idatzietan arkitu dira.

Onela diote:

Fran-tzi-a ko a-tso-ak e-

gi-zu-te fa-rra,

ez-tau-ka-zu-te ber-din bi-


zi-mo-du txa-rra.


Bur-la-tu-a-ga-ti-kan

es- pa- ñol za- ta- rra,  
e- tza- ie es- ka- pa- tzen fran-  
tzes bat ba- ka- rra.

Frantzia'ko atsoak  
egizute farra,  
eztaukazute berdin  
bizimodu txarra.  
Burlatuagatikan  
español zatarra,  
etzaie eskapatzen  
frantzes bat bakararra.

«BIBA TROPA ESPAÑOLAK...»





The image shows a musical score for a song. It consists of three staves of music in treble clef, with a key signature of three sharps (F#, C#, G#). The lyrics are written below the notes. The first staff contains the lyrics 'ga e- ta Mi- na, ba-'. The second staff contains 'so- an gal- du ei dau- be-'. The third staff contains 're es- pa- di- na.' The music is written in a simple, folk-like style with a mix of eighth and quarter notes.

ga e- ta Mi- na, ba-  
so- an gal- du ei dau- be-  
re es- pa- di- na.

- 1/ Biba tropa españolak,  
biba Bitoria,  
andikan agertu jaku  
guretzat argia.  
Ain ekarren españolak  
balore andia,  
zatitu ta erreteko  
frantzesak guztia.  
*Napoleonena anaia,  
errege botilla,  
traguak edateko  
aura zan mutilla.  
Ondoren dituela  
Longa eta Mina,  
basoan galdu ei dau  
bere espadina.*



- 2/ Lau milla prisioneru,  
amar milla illak,  
lenengo entradea  
Longa'ren mutillak.  
Geureak bazirean  
batzuk-batzuk illak,  
arek zerura ziran  
ziralako finak.  
*Napoleonen anaia...*
- 3/ Kotxe ta karromato,  
litera ta burdi,  
Bitoria'n gelditu da  
ondasuna lodi.  
Gainera artilleria  
bertan dabe itxi,  
frantzesen erregeentzat  
ezta lotsa gitxi.  
*Napoleonen anaia...*
- 4/ Mina ta Pastorea,  
Longa irugarren,  
Mugartegi jarri da  
Bizkaia'n laugarren.  
Aren ejerzituak  
ikusi ezkerro,  
ezin leike fuertzarik  
frantzesak geiago.  
*Napoleonen anaia...*

Bertso auek, eta bai beren doiñua ere, Az-  
kue'ren esku-idatzietatik ditugu. Berak Bizkaia'n

bildu omen zituan, Ereño errian; baiña emalearen izenik ez du esaten. Eta, oker ez bagaude, bere kanta-bilduman ere etzitian argitaratu.

Doiñu eta bertso auen bi kopia agertu dira Azkue'ren esku-idatzi oietan. Batean, *zekarren* dago leenengo bertsoaren bostgarren lerroan; eta bestean, *ekarren*. Guk onela idatzi degu, Bizkai'ko bertsoak baitira.

Azkue'k lau bertso bildu bazituan ere, bertso geiago izango ziran auek. Bitori'ko edo Gasteiz'ko burruka-aldiari jarritako sail bat, alegia. Burruka-aldi ori, 1813'ko ekainaren 21'ean gertatu zan.

Frantzesak lau milla prisionero utzi dituztela esaten du bigarren bertsoak; eta illak, amar milla. Laugarrenak, berriz: «gainera artilleria bertan dabe itxi».

Gai auetaz onela adierazten du *Conde de Toreno*'k, bere *Historia del levantamiento, guerra y revolución de España* liburuan:

«Abandonáronlo todo, artillería, bagajes, almacenes, no conservando mas que un cañón y un obús. Perdieron los enemigos 151 cañones y 8.000 hombres entre muertos y heridos...».

Beraz, prisionero eta illetan geiegi botatzen badu ere, artilleriaren arazoan bertsolaria xuxen dabilela ematen du.

«Lenengo entradea Longa'ren mutillak» dio bigarren bertsoak. Frantzisko Longa ori, frantzesen aurkako gerrillerorik famatuenetako bat izan zan. Mallabia'n, Longa baserrian, jaioa omen zan. Araba, Bizkaia, Santander eta Burgos'ko probin-

tzietan egin zituan bere gerra-ibillerak. Baita ondoren Gipuzkoa'n eta Bidasoa'z ipar aldean ere. Baiña kondaira-liburuak diotenez, leenengo era-soa etzuan berak jo, Gasteiz'ko burruka-aldi on-tan. Bera Murgia aldetik zetorren, ezkerreko ega-letik. Eta eskubiko egalekoak asi omen ziran, La Puebla'ko menditartetik barrena.

Irugarren bertsoak lau gerrillero aitatzten diz-kigu: Mina, Pastorea, Longa –ontaz oraintxe itzegin degu– eta Mugartegi. Leen ere esan degu-nez, Mina, Naparroa'ko gerrilleroen buruzagia zan. Pastorea edo Artzaia, gipuzkoarrena. Mugar-tegi, berriz, bizkaitarra.

Irugarren bertsoa ulertzeko argibideak, Georges Roux frantzes kondaira-idazleak ematen ditu, bere *La guerra napoleónica de España* liburuan. Onela dio:

*«Los franceses han perdido... una docena de banderas y han abandonado no menos de dos mil carruajes o furgones, conteniendo municiones, todo el tesoro del Estado, el del ejército y montones de objetos artísticos. Hay cajas y cajas de orfebrería antigua; hay lienzos de Rubens, de Tiziano, de Velázquez, robados de las colecciones españolas y destinados a los museos de París. Jourdan pierde su bastón de mariscal y José (Bonaparte) la hermosa espada de honor que le regalara la ciudad de Nápoles...»*

Ain zuzen. kanta arteko beste bertso orren bukaerak onela dio: «basoan galdu ei dau bere espadina».

Bertso auen puntuak launaka daudela ematen du. Lau puntuak berdiñak, alegia. Laugarrena, ordea, bi bertso-puska alkarri erantsi ta osatuta dagoala esango genduke.

\* \* \*

Zenbat kotxe ta mula  
kañoi eta karro,  
zuen bizimoduba  
Bitoriya'n dago.  
Zergatik etzenduten  
Frantziya'ra igaro?  
Ez dezute ikusiko  
sekulan geiago.

Bertso au, Tolosa'ko Manuel Urreta zanaren paperetan arkitu degu. Eskuz idatzita dago. Ez dakigu beste lau bertso oiekin zer ikusirik ote duan. Gaia berdiña dala zalantzarik ez da; baiña sail bera dan ezin esan. Eta arestian esandakoak aski dira bertso au ere ondo ulertzeko.

\* \* \*

Kanta arte edo errepikagarriaren aurreko erdia, Juan Karlos Gerra jaunak ere badakar, bere *Estudios de heráldica vasca* liburuan. Onela dio:

«*Aquella fue una campaña popularísima. Yo alcancé veteranos y testigos presenciales de ella que llamaban a Lord Wellington «D. Melitón»; y todavía, durante mi infancia, se cantaban en mi casa coplas de los versolaris que la estimularon y de las que recuerdo una:*

Napoleon anaia,  
errege botilla,  
ardau ona erateko  
ura bai mutilla.»

Aita Jose Inazio Lasa'k ere eskeintzen digu bertso-puska au bere *El sistema métrico decimal* idazlanean, *Aranzazu* illerokoan, 1957'ko Azaroaren zenbakian:

Napoleonen anaia,  
Errege Botella,  
ardo aondo erateko  
ura bai mutilla.

Jesus Maria Leizaola jaunak ere azaltzen du puska au, bere «*Estudios sobre la Poesía Vasca* liburuan (*Ekin*, Buenos Aires, 1951), eta bai ere *Crónicas y romances de la poesía euskérica* (*Añamendi*, Donostia, 1981), bietan Juan Karlos Gerra'ri artuta eta aitatuta.

Bestetan ere arkitu degu bertso-puska au. Baiña agertu dan toki guztiak orain emen aitatzeari luzeegia litzake.

**JOSE BONAPARTE**  
**(1813)**

Alabatzera nua  
Jose Bonaparte...

Basoz abiyatu da  
Jose erregia:  
«Au etzait iduritzen  
berorren biria».  
Alojatzeko emana  
etzuan beria;  
ark ere ostu zuan  
Bera'n maindiria.

Villaverde'kua bezela:

Bitoriya'n galdu du  
orrek biziya,  
gorputzekua ez ta  
beste guziya:  
diru garbiya,  
alajeriya,

ainbeste kotxe eta  
kañoneriya.

Guziya nai duenak  
guziya galdu;  
zeñek beriarekin  
bizi biaugu.

Gerra nai badu  
ase bear du;  
Españiya zer den  
probatuko du.

Puska auek, urtea ere esaten duan izenburu orrekin, Don Manuel Lekuona jauna zanak bialdu zizkigun. Sail osoak izango ziran. Baiña kondar oiek dira gorde diranak.

Lekuona'rena da oar ori: «Villaverde'kua bezela». Karlisten leenengo gerrateko sail bat aita-tzen du, bertso-mota bera dala adierazteko. Mota ori, Urra Papito'rena eta Juana Bixenta Olabe'ren doiñuarena da. Beraren aitamenik zaarrenak karlisten denborakoak ziran orain arte. Baiña, ikusten danez, frantzestean ere ezaguna zan.

Aurreko saillean esanak kontuan artu ezkerro, ez derizkiogu bertso auek beste argibiderik bear dutenik. «Basoz abiyatu da Jose erregia» asten dan bertsoa, laster azalduko zaigu beste sail batean. Orduan argituko degu esaldi orrek zer esan nai duan.

## «TRAIDORE BONAPARTE...»

Traidore Bonaparte,  
traidore aundia,  
bederen utzi zigun  
lurra ta arria,  
erreño guzien  
desonragarria,  
zentineletan daude  
soldadu guardiak,<sup>1</sup>  
kendu belarriak,  
irazi begiak,<sup>2</sup>  
ola nolako obra  
izigarriak!

Bertso au Jose Ariztimuño *Aitzol* apaiz zana-  
ren bilduman arkitu degu. Aita Atanasio Mokoroa

---

(1) «gabaz ebasten duzte soldadu guardiak». (Aita Mokoroa-  
'ren oarra.)

(2) Irazi: atera. (Id.)



zanak 1932 urtean bialdua da. Berak noren aotik jaso zuan, onela adierazten du:

«...Bera'ko Zigardi deritzaion eta berez Arraioz'koa zan amautxi Amorena'r Estefania andreagandik artuak, agian utsune batzuekin, 88 urte izanik antzi xamarrak zeuzkalako».

Gerra bukatutakoan jarria dala esango genduke. Lantegi batean urtearen bukaeran urteko kontuak garbitzen dira, galerak edo irabaziak izan diran jakiteko. Emen ere berdin egiten du bertsolariak gerraren bukaeran. Baiña galera besterik ez dala izan ikusten du, eta errudun bakarra billatzen: Napoleon.

\* \* \*

Bertso beraren puska bat, oso aldatuta ordea, Don Manuel Lekuona apaiz jauna zanak bialduta-ko orri batean arkitu genduan. Ez du esaten berak nundik jaso zuan. Makinaz idatzita dago. Onela dio:

Bonaparte brigante,  
pikeru aundiya,  
Españiya'n egin duk  
zenbait pikardiya;  
arren, utzi zaizkiguk  
burni eta arriya,  
Españiya guziyan  
desondragarriya.

Lekuona'k, seigarren lerroan, *burni* itzaren atzetik galdera bat jartzen du, ulertzen ez duala adierazi nairik-edo. Orrela, izan ere, esan naia nekez billatzen zaio. Oso errez, ordea, goien bezela idazten bada. Orregatik, *lurra* bear duala esango genduke.

\* \* \*

Aita Atanasio Mokoroa'k orrek berak Bera'n norbaiten aotik bildu eta *Aitzol'*en bildumara bi-liak dira beste bi bertso-zati auek ere:

Bitoria'n galdu dut ene kapa,  
ura an utzi eta Frantzi'ra ttapa.<sup>3</sup>

Jose Napoleon, oi ori lana!  
Etzaude itzulirik España'ra.

---

(3) Berealaxe, *de repente*. (Id.)

## «ARA BUONAPARTEREN...»

1/ Ara Buonaparteren  
lenbiziko plana:  
Españiako tropak  
artu beregana;  
adibinatu zuten  
nola egiñ lana,  
ez bazuten ezagutu  
traidoria zana.

2/ Aurrena bi semiak,  
gero aita ta ama,  
familia guztiya  
*a fuerza* darama;  
gizon orrek badauka  
guztiontzat lana,  
aplikatzen diote  
enpleo onen bana.

- 3/ Gero abiatu zan  
erregeren eske:  
«Arren, Bitoriara  
atera zaitezte,  
enperadore bati  
zor zaio ainbeste».  
Onelako engañurik  
ez genduban uste.
- 4/ Estazio triste bat  
genduban asiya,  
Jainkuak bulkatzeko  
eman du graziya;  
ez degu estimatzen  
munduko biziya,  
falta izatekotan  
gure nagusiya.
- 5/ Faltatu zan ezker  
Fernando kortian,  
ez da kontsuelorik  
kristauben artian;  
kontentubago giñan  
berekiñ batian,  
ekarriko ote degun  
prebeni gaitian.

6/ Buonapartek bazuben  
zenbait adiskide,  
zer moduz gobernatu  
erakutsi die;  
fediaren fabore  
etziranak firme,  
len ere ala eta  
orañ ere libre.

7/ Zu zera Frantziako  
enperadorea,  
eta mundu guztiko  
endredadorea,  
kristandade galtzalle,  
billau, traidorea,  
Antekristua baño  
batere ez ohea.

8/ Ez degu kunplitu nai  
guk zure ordena,  
baizik Jaungoikoaren  
legian zor dena;  
bartzarrak enredatzen  
zu beti aurrena,  
Luziferren teniente  
nonbrauta zaudena.

- 9/ Sartu ziradenian  
tropak Balentzian,  
kontsueloa artu  
zenduten Frantzian;  
traidoreak orobat  
gure probintzian,  
etziran asustatu  
nere iritzian.
- 10/ Galizian sartu ta  
erretiratzian,  
lautatikan parte bat  
sanuak etzian.  
Zer egin zedukaten  
besteren etxian?  
Gizonik galdu gabe  
egon zitezkie.
- 11/ Gizonak *a cuchillo*,  
erreguz andriak,  
Españiatik oraintxen  
laister jua biak;  
fusillak ezin jaso,  
gañera sabliak,  
adios Frantziako  
txikiratzalliak.

12/ Admiraturik nago  
misterio batez,  
nola konpontzen diran  
Luzifer ta Lannes;  
Jainkoa dabil gerran  
mundukuen ordez,  
bestela nork bentzitu  
orrenbeste frantzes?

13/ Ainbeste kañoi eta  
onenbeste karro,  
interesa ederra  
Bitoriyan dago;  
diruba zenbat zuten  
ez dakite klaro,  
gauza izan da ezin  
Frantziara igaro.

14/ Basoz abitu al da  
Jose erregia?  
Au etzat iduritzen  
bedorren bidia;  
alojatzeko emana  
etzuan beria,  
ark ere ostu zuan  
Beran maindiria.

Bertso auek Aita Jose Inazio Arana'ren pape-retan agertu dira. Eskuz idatzitako bi orritan dau-de, orri bat bestearen kopia izanik.

Sail osoa degu, beraz, oraingo ontan, bestetan ez bezela. Alegia, ez iñoren buruan nola edo ala gorde izan dan bertso bakarra edo bertso parea. Ain zuzen, 1, 2 eta 13'garren bertsoak jendearen aotik ere iritxi zaizkigu, eta leen ere jarriak ditugu liburu ontan.

Egillea nor izan zan ez dakigu. Baiña bert-sogintza zer dan ondo zekiana bear zuan iñondik ere. Edo-ta, obeto esateko eta itzaurrean ere adie-razi degunez, garai artako bertso gintza naiko lan-dua zegoan.

Leenengo bertsoak «Espania'ko tropak artu beregana» esaten du. Zer izango dan leen ere azal-du degu. Bonaparte'k, Frantzia'ko mutillekin aski ez izanik, mendeko nazioetakoak ere soldadu egi-ten zituan, eta urrutira eramán. Espania'ra, adibi-dez, frantzesak ez-ezik, italianoak eta polakoak ere ekarri. Eta Espania'ko tropa batzuk, Marqués de la Romana'ren agindupean, Dinamarca'ra bial-du. Baiña Espania Napoleonen aurka altxa zala jakiñik, Ingalaterra'k bialdutako ontzietan sartu eta onera aldegin zuten.

Bigarren eta irugarren bertsoak Bonaparteren beste azerikeri baten berri ematen digute. Leen ere esan degunez, Madrid'ko errege-aulkian bere anai Jose jarri aal izateko, Espania'ko errege-fami-li guztia Frantzia'ra eramán arazi zuan. Fernando VII ere joan arazteko, bera Burgos'eraiño etorriko zala esan, eta iri ontan biak alkartuko zirala. Baiña



Fernandok etzuan Napoleonik ez Burgos'en eta Bitoria'n arkitu, eta Baiona'raino jarraitu zuan.

Seigarrenak dionez, «Buonapartek bazuben zenbait adiskide». Oiek, *afrancesados* izenarekin ezagutu ziranak izango dira; frantzesen alde ziran españolak, alegia.

Bederatzigarrenak, frantzesak Balentzian sartuak zirala gogora arazten du. Leenago bi bider uts egiñik, 1811'ko ilbeltzaren 9'an lortu zuten iri artaz jabetzea.

Amargarrenak Galizia aitatzen du. Frantzesak araino ere sartu ziran. Baiña jende guztia aurka altxa ere bai, eta sei illabetean, 1809 urteko ilbeltzetik garagarrillera, eten gabe alkarrekin burrukatu. Ondoren, frantzesak andik erretiratzean, «lautatikan parte bat sanuak etzian».

Amabigarrenean, *Lanez* eta *Lanes* dago esku-idatzietan. Guk *Lannes* idatzi degu, Jean Lannes frantzes jeneralaren (1769-1809) aitamena baita, dudarik gabe. Europa'n barrena ez-ezik, Espainia'n ere ibili zan, 1808'an Tudela'n eta Zaragoza'n garaile irtenik.

Amairugarrenak Gasteiz'ko burruka-aldiaz itzegiten digu. Leen ere esan degun bezela, 1813'ko garagarrillaren 21'ean gertatu zan; eta frantzes soldaduak, galtzaille izanik, Espainia'n barrena egindako lapurreta asko bertan utzi bear izan zituzten, edo aal zuten tokian izkutatu, al dan azkarren iges egiteko, bizia salbatuko bazuten.

Azken bertsoak iseka egiten dio Jose Bonaparte'ri, basoz eta egokitzen etzaion bidetik abitu dala esanez. Au izan diteke: Gasteiz'tik Frantzi'ra alde

egiteko Gipuzkoa'n barrena zuan zuzenena. Baiña etsaiak bide ori mozturik, Iruñe'koa artu zuan. Andik, berriz, nundik nora artu zuan, Conde de Toreno'k esaten digu, *Historia del levantamiento, guerra y revolución de España* liburuan:

«...por el puerto de Arraiz en el valle de Ulzama con rumbo a Donamaría y valle de San Esteban de Lerín hasta Lesaca y Vera, partido de las Cinco Villas de la Montaña, internándose luego en Francia con dirección a Urrugne».

Pagadi aundi eta ederrak daude Naparroako alderdi menditsu ortan. Motiborik bazan, beraz, «basoz abitu al da Jose erregia?» esateko.

Onela jarraitzen du Conde de Toreno orrek:

«Iba por aquí el ejército enemigo llamado del centro, y en su compañía José, afligido y triste. Al tocar las cumbres que parten términos entre ambos reinos, saludaron los soldados franceses con lágrimas de regocijo el suelo de la patria, que muchos no habían visto años hacía, echando sus miradas deleitosamente por las risueñas y frondosas márgenes del Nive y del Adour, verdegueantes, tranquilas y ricas, y a sus ojos aún más bellas en la actualidad, comparándolas con la tierra de España, inquieta y turbada ahora, de naturaleza por este lado desnuda, y de severo y ceñudo aspecto».

Garbi dago Bera erria zergatik izendatzen duan bertso orrek. Ez, ordea, alojatzeko kontu ori zer dan; ez-ta ere maindirearena.

Ori alde bat utzirik, azkenik aitatutako gertae-ra oiek bertso auek noiztsu jarriak diran garbi adierazten digute: frantzesak muga igaro ondoan, zalantzarik gabe; 1813 urteko udaran, beraz.

**AÑO DE 1813  
SITIO, ASALTO, SAQUEO E INCENDIO  
DE LA PLAZA DE SAN SEBASTIAN  
POR LAS TROPAS ALIADAS  
ANGLOPORTUGUESAS**

1/ Nere Donosti'ko<sup>1</sup>  
erritar maiteak,  
kanta dezagun gogoz  
gure naigabeak,  
mundubak jakin dezan  
zer zaigun gertatu  
ta nolako estaduban  
geraden gelditu.

---

(1) Silaba bat falta da emen, dudarik gabe. «Nere Donostia-  
'ko» esanda, neurrian ondo legoke bertso-lerro au. Ala ere, arkitu  
bezelaxe jarri nai izan degu.

2/ Bost urte igaro ondoan  
penaz beterikan  
frantzesaren guregandik  
ezin botaritan,  
atzeneko paguba  
ezta izan gaiztoa,  
inork munduban aitu  
ez bezelakoa.

3/ Ditzoso izan uste  
genduben orduban,  
orrikari gelditu  
gerade munduban.  
Etsaiak juban eta  
aliyatubakin  
arkitzen gera guztiz  
pagu onarekin.

4/ Gure euskaldun erriko  
soldadu nobleak  
asiyeran ginduzen  
sitiyadoreak.  
Gazteluba nai zuben  
itxaso aldetik  
artu, eta frantzesaren  
kojitu atzetik.

5/ Jende eta denbora  
gutxi galdurikan,  
libre gelditzen giñan  
etsaietatikan.

Baña nola inglesa  
degun jaun ta jabe,  
laster utzi ginduben  
españolik gabe.

6/ Iru ogei milla bala,  
bonba eta granada  
erriyan sartu dala  
duda gabea da.  
Eztu iñork munduban,  
inglesa aboan,  
plaza fuertiagorik  
izango gogoan.

7/ Bazterrez ta itxasoz,  
illabete biyan,  
beren ustez egondu  
dirade guardiyan  
amar bat milla gizon,  
gañera ontzi asko,  
frantzes txaluparikan  
ez igarotzeko.

8/ Santa Klara'ko isla  
zutenian artu,  
etzuten uste inor  
zitegian sartu.  
Baña nola zeguan  
frantzesak kontuban,  
gau<sup>1</sup>faltatu gabe<sup>2</sup>  
sartzen zan portuban.

9/ Ingeles-portugesak  
arturik erriya,  
biyak egin digute  
zenbait pikardiya.  
Biolatu eta ill,  
sakiatu guztiya,  
eta gero ondoren  
erre Donostiya.

10/ Bost milla animalia  
edo zagi erari  
Donostiya kostatu  
zaio ingelesari.  
Aguardientaz beterik  
nagusi-morroyak,  
egunaz eta gabaz  
guztiyak ordiyak.

---

(2) Ziur asko, «gau bat faltatu gabe» edo «gaurik faltatu gabe»  
bearko luke emen.

11/ Mozkorrak daude beti  
burubak galdurik,  
eta ikusten ez dute  
iñon peligrorik.  
Fusilla aguardintaz  
karga baliteke,  
bala gustoz aboan  
artuko luteke.

12/ Donostiar tristeak,  
zer egingo degu?  
Nola negu gogorra  
igaroko degu?  
Ez erri ta ez etxe,  
ezta ere erroparik,  
jatekoa garesti  
ta ez izan dirurik.

Bertso auek, erderazko izenburu orrekin, *Euskal-Erria* aldizkarian agertu ziran, 1913 urtean, 162 orrialdean.

Aldaketa bat sartu degu. Irugarren bertsoaren bostgarren lerroan, *suban* zion eta *juban* jarri degu, *joan* alegia, orrela bear dualakoan, bestela esan nairik ez diogu billatzen eta.

Doiñua ere badakar, aurretik onela diola:

*«Música compuesta en aquella época por la organista de las Religiosas Dominicas del convento existente entonces en el barrio del Antiguo, en el lugar que ocupa actualmente el Real palacio de Miramar. (Aquella Comunidad continúa hoy en la vecina villa de Astigarraga.)*

*Esta composición ha sido armonizada en Agosto de 1913 para su publicación en esta Revista, por D. José de Olaizola, organista de la parroquia de Santa María, matriz de San Sebastián».*

Ona emen doiñu ori, baiña armoninaziorik gabe:

Do- nos- ti- ar tris-

te- ak,

zer e- gin- go

de- - gu?

No- la ne- gu go- go- rra





\* \* \*

Ogei ta sei urte leenago ere, 1887'an, *Euskal-Erria* orrek berak argitara eman zituan bertso auk, baiña 10 eta 11'garren bertsoak falta zituala, inglesak mozkortzat jotzen zituztelako-edo; eta garbizaleren batek aldaketa auk sartuta: 1/1: Donostiyako; 1/3: ditzagun; 1/7: ta nolako moduban; 3/1: Doatsu; 3/6: laguntzakoakin; 4/1: Gure Euskal-erriko; 4/4: sityatzalleak; 4/5: zuten; 4/8: arrapatu atzetik; 5/5: ingelesa; 6/6: ingelesen; 6/7: plaza gogorragorik; 8/4: zitekian; 8/7: gau bat faltatu gabe; 9/4: gaitza ugariya; 9/5: onra galdu eta; 9/6: lapurtu guztiya; 12/6: ezta ere jantzirik; 12/7: garisti.

\* \* \*

Bertso auk Jose Bizente Etxagaray bertso-jartzaille ugariak moldatuak dira. Jaun au Donostia'n jaio zan, 1773'ko uztaillaren 1'ean; eta bertan il, 1855'eko apirillaren 15'ean. Beraren bizitzaren argibideak eta bertsoak *Auspoa*'ren 35-36'garren alean arkituko ditu irakurleak.

Berrogei urte zituan Etxagaray onek, inglesak-eta Donostia erre zutenean; eta, zalantzarik gabe, bere begiez ikusitakoak kontatzen dizkigu. Donostia, 1808'ko Martxo ezkerok, frantzesen mende zegoan. Bost urte, beraz, 1813'an, bigarren bertsoak dion bezela.

Donostia libratu asmotan leenengo urbildu ziranak, Jauregi edo *Artzaia*'ren gipuzkoar bata-

lloiak izan ziran, Mendizabal'en agindupean, garrillaren 28'an. Orixe gogoratzen du laugarren bertsoak.

Baiña gipuzkoarrak Bidasoa aldera bialduak izan ziran, eta Donostia inguratzen inglesak eta portugesak gelditu. Ori dana, Wellington ingles jeneralaren aginduz, bera baitzan frantzesen aurkako indar guztien buru egiten zuana. Bostgarrenak orri buruz zerbait esaten digu.

Artilleriaz eta abar, oso gogor eraso zioten Donostia'ri, seigarrenak dion bezela.

Ingles-portugesak amar milla gizon omen ziran, Tomas Graham ingles jeneralaren agindupean. Eta zenbait gerra-itxasontzi ere bai, itxas-bideak ixteko. Zazpigarren bertsoak aitatzen du ori.

Zortzigarrenak, Santa Klara'ko ugartea nola artu zuten gogora arazten digu. Ori, abuztuaren 27'an gertatu zan.

Gertakari oiek danak pozez txoratzen ikusten zituzten donostiarrak. Onela dio irugarren bertsoak: «Ditxoso izan uste genduben orduban...»

Baiña abuztuaren 31'n, inglesak eta portugesak eraso jo eta Donostia'z jabetu ziranean, danok dakizkigun basakeriak egin zituzten: erria kiskaldu, etxeak lapurtu, emakumeak beartu, ilketak egin... Bigarren bertsoak diona: «atzeneko paguba ezta izan gaiztoa...»

Amargarren eta amaikagarren bertsoak mozkortzat jotzen dituzte soldadu aiek. Leen esan degunez, 1887'an bertso auek *Euskal-Erria'n* agertu ziranean, bi bertso oiek norbaitek kendu egin

zitan. Gogortxoak irudituko zitzaizkion, edo me-rezi baiño begiramen aundiagoa zien inglesei.

Azken bertsoak, berriz, donostiarren egoera tristeaz azaltzen digu, zuten guztia galdu ondoren.

## 1813'KO AGORRILLAREN 31'A

Or goiko izenburu orrekin, *Euskal-Erria* aldizkariak, 1911 urtean, idazlan bat argitara eman zuan, *Euskal Erria* beste firmarik gabe. Oso-osorik onera aldatzeko luzeegia baita, ona zati batzuk:

«Urte batzuben geruago, itz egiteko gaia izan genduen, gau ikaragarri artan arkitutako andre batekin; eta bazirudien orduko zorotasuna, ikara izugarrikoen erotasuna, etzitzaiola oraindik igarro. Berritzen zitzaion, gaba artako izena aitatu utsakin:

–Arrats izugarria! Ingelesak opill prantzesak bezelako gauza batzuek botatzen zituzten etxietara, eta bat-batetan ikaragarriko suba sortzen zan, kiskaltzen zitubena baztar denak. Garra tartetik itzul egitia, gudarien atzaparretan erortzeko zan. Sua alde batetik, odola bestetik: orra zer ikusten zan gau doakabeko artan.

Onla mintzatzen zan andre gajo ura.»

Ondoren iru bertso ematen ditu, aurretik onela esanez:

«Egun gutxi barru, Manuel Sagasti zanak jarritako eresi edo doñuan, entzuten ziran Donostia'ko kalietan beste neurtitz batzuek euskera eta erdera nastuan. Neurtitz aietan ere azaltzen da garbiroki gau artako antsi ikaragarria.

Ara nola ziran:

*Entraban en las casas*  
batian zazpi, zortzi,  
*la primera maniobra*  
baioneta erakutsi;  
*pedían el dinero,*  
bestela biziya utzi,  
*entonces no pensaba*  
mundu onetan bizi.

*Escena horrorosa*  
kalian ikusi nik,  
*a una infeliz niña*  
baionetaz josirik;  
*no quiero referiros*  
zenbat ikusi nik,  
*por no dejar al mundo*  
eskandalizaturik.

*Desgraciados habitantes*  
deskonsolatuak,  
*clamaremos al cielo*  
zabaldurik besuak,  
*sin duda lo merecen*  
gure pekatuak,

*dejemos pues en el olvido  
pena pasatuak.*

\* \* \*

Iruñe'ko Dolores Baleztena'k, sail ontako bi bertso bialdu zizkidan, oar onekin: «*Me lo mandó Magdalena Michelena de Oyarzun*».

Bertso oietako bat, *Euskal-Erria*'ren aurrena da, aldaketa auekin: 1/3: *la primera cosa que hacían*; 1/4: *baionetak erakutsi*; 1/5: *pidiendo los dineros*; 1/7: *nadie no creíamos*.

Eta beste bertso au:

*Cuántas almas padecieron  
zokuetan gorderik,  
aún no se ha sabido  
aien aztarnarik.  
Con el fuego de las casas  
ingelesak emanik,  
todos perecieron  
bertan sepultaturik.*

\* \* \*

*Euskal-Erria*'ren iru bertso oiek, aitatzerik mezezi duan aldaketarik gabe, Irun'dik korreoz bialdu zizkigun bere izena agertzerik nai ez duan andre batek, itz auek erantsiz:

«...*recordé con mi hermana unos versos que me enseñaron ellos, los mayores (yo soy del año 11)*».

Conservábamos algunas revistas ilustradas, todas ellas desaparecidas en el incendio de Irún el año 1936, al quemarnos el piso donde residíamos. Creo que era un «Novedades», donde se veía San Sebastián en llamas y los versos y la música que le adjunto...

Créame que le envío con reparo, ya que no sé escribir en vasco, ignoro el autor, en copia de música dejo bastante que desear... pero nosotros lo hemos cantado mucho e incluso cuando estuve en la escuela de Olaberriá, en Irún, les enseñé a los niños y niñas...»

Ona emen doiñu ori:







«ZURRIOLA ALDETIK...»



en-ko-men-da be-za bi-to-

ri-o-so a-te-ra ez-te-din pran-tze-

sa.

Zurriola aldetik  
autsi zuten bretxa,  
ai ura egun artako  
ango destetxa!  
Nork bere aldetikan  
enkonmenda beza,  
bitorioso atera  
eztedin prantzesa.

Doiñu eta bertso auk Azkue'ren kanta-bildu-  
man arkitu ditugu, 688 zenbakian. Berak Altza'ko  
Jose Inazio Arzak'en aotik jaso zituan.

Jose Inazio Arzak au, Azkue'k bere paperetan  
dionez, Amoreder baserrikoa omen zan. Gaur  
Amueder esaten zaio. Andik laister dago, Txirrita

il zan Gazteluene baserria. Amueder'koa zan Patxiko Arzak bertsolaria ere.

Donosti'ko arresiak iru aldetara zeuden: Kontxa aldera, gaurko Bulebar aldera eta Zurriola aldera. Ontan «autsi zuten bretxa» inglesen kañoiak, eta ortik jo zuten eraso.

Au ere etzan bertso bakarra izango, sail luzea baizik, Donostia nola artua izan zan eta artzailleak zer egin zuten adierazteko jarria.

Leizaola'k bertso au badakar bere *1808-1814 en la Poesía Popular Vasca* liburuan; eta bai *Crónicas y romances de la poesía euskérica* lanean ere.

## GAUZA NEGARGARRIAK

Lerro auek, izenburu orrekin, Gipuzkoa'ko Gaintza'n jaio eta Donostia'ko Loiola'n bizi dan Bartolome Ayerbe'k idatzi eta bialdu zizkigun:

«Negargarri au gertatu omen zan 1813'garren urtean, Donostia'n. Itxasoz etorri ta Urgull mendira igota, andik jatxi Donosti'ra ta nai zituztenak egin ta gero su eman Donostia'ri. Nai zituzten gauzak artu ta alde berriz ere itxasoz, Donosti sutan utzita.

Orduan ere baziran biotz gogorreko gizonak, nunbait ere, ori egiteko.

Orduan ere bertsolariak izan Euskalerrian. Bertsoak jarri norbaitek gauz orri buruz. Baiña nik ez det bertso oien aztarrenik izan. Baiña gure aita-giarreba ere bertso-zalea zan oso, ta ari entzun izan nizkan zerbait, baiño oso gutxi. Emen jarriko ditut ari entzunak:

Ingeles-portugesak  
arturikan erria,

biak ere egin dute  
milla pikardia.  
...go ta biolatu,<sup>1</sup>  
sakeatu guztia,  
gero ondoren orra  
erre Donostia.

Beren etxiak eta  
ainbeste adore,  
orra or gelditu  
ezertxorik gabe.  
Orain ez dira arkitzen  
ardit baten jabe,  
bizia daramana  
kontentu da alare.»

Oneraiño Ayerbe jaunaren itzak. Dakigunez, Donostia erre zutenak etziran itxasoz etorri, legorretik baizik. Ala ere, Ayerbe jaunak diona itxura gabea ez da. Donostia'ko itxas-bideak inglesak ixten eta frantzesak zabalik eukitzen, zalaparta ederrrik erabili baitzuten alkarrekin.

Leenengo bertsoa, Jose Bizente Etxagaray jaunaren bederatzigarrena da. Bestea, berriz, orain arte inun azaldu gabea.

---

(1) Papera puskatuta dago eta lerro au ezin osorik irakurri.

## «EZPATA, BALA ETA GARRAZ...»

«Ezpata, bala eta garraz bizia galdu zuten seme maitiai beren ama Donostia'k esker on ta amodiozko oroipena.

Gau triste artako deshoreak ta surgaitzak nork esan al litzakean!

Alde guzitara negar errukigarria, beldurra ta izua, ta eriotza gogorra.

Txit antziñatik asko zezakean uriak lurra jo du.

Onen ateak porrakatuak, sazerdoteak negarrez, birjiñak itxuskituak ta bera beterik samintasunez.

Fernando erregeari beti leial izandu dan Donostia ondatu dute.

Fenix ederraren antzera berriz dator piztuzera.

Ill diran nere erritar maiteakgatik negar egitez ez naiz aspertuko».

Esaldi auek *Euskal-Erria* aldizkarian agertu ziran, 1913'an, *El 31 de agosto. Cómo celebraban los*

*donostiarras su aniversario idazlanean, Peru Juanchó* firmaturik eta aurretik onela esaten duala:

«...*Relacionado con el mismo acto religioso -urteburuetan egiten zan illeta alegia- había un objeto al que nuestros antepasados tenían en gran estima; el catafalco construído para el Aniversario.*

*Las vicisitudes por que ha pasado San Sebastián en la última centuria, han hecho desaparecer hasta sus últimos vestigios. Quizás acertáramos con algunos lienzos, únicos restos de aquel monumento. Pero en el corazón de los viejos donostiarras consérvase enriquecido con las soñadoras galas del recuerdo. No se olvidaban de aquel majestuoso artefacto cuya severa cumbre se elevaba hasta el gallardo cimborrio de la hermosa iglesia parroquial. Todas sus caras estaban cubiertas por inscripciones alusivas a la trágica noche, inscripciones que con sentido acento se recitaban en el seno de las familias donostiarras. Hoy, todo ha desaparecido. Tan sólo nos queda el recuerdo. Para que éste subsista, trasladamos a nuestras páginas aquellas inscripciones en latín, castellano y euskera, que más de una vez hicieron brotar lágrimas de desconsuelo en los ojos de nuestras atribuladas madres».*

Euskerazkoak bakarrik aldatu ditugu orrialde auetara.

Esaldi auek -danak ez badira ere- beste bi tokitan ere arkitu ditugu: Gipuzkoa'ko Diputazioko liburutegian, Bonaparte'ren esku-idatzietan, adierazpen onekin: «*Incripciones del catafalco de 31 de agosto de 1813*». Eta Jose Manterola'ren bertso-bilduman. Onek onela esaten du: «*Incripciones del catafalco conmemorativo y destrucción de la Ciudad de San Sebastián en 31 de Agosto de 1813.*»

Idazki auetan antziñako siniskeri bat aitatzen da: Fenix egaziarena, il eta bere kondarretatik berriro piztutzen zana. Donostia'ren irudia, alegia.



## ARKIBIDEA

Itzaurrea .....	7
«España hortan ote laiteke...» .....	11
Komisione ahantzia .....	15
«Baiona'ko patroina...» .....	17
«Frantzia'tik atera eta...» .....	21
«Milla zortzi ehun eta zortzigarrenian...» ....	25
«Agur eta erdi...» .....	35
«Luzaide'ko karrika.....» .....	39
«Berrogoi ta hamar mila frantses...» .....	43
Harizpe .....	45
«Ein ta berrogoi tamar autx...» .....	51
«Au da Buonaparte'ren...» .....	55
«Gorogi paltsuaren...» .....	63
«Nik eztut iñorentzat...» .....	71
«Gure errege maitia...» .....	75
«Atzerritarren mende...» .....	79
«Kantore berri pollitak...» .....	83

«Ingles krubel, barbaruak...» .....	87
Euskerazko agindua .....	91
Multa .....	97
«Amak semiari esaten dio...» .....	101
«Don Gasper de Jauregi...» .....	105
«Asi Zubibarra'n da...» .....	107
Juan Fermin Legia .....	111
Puskak .....	115
«Aurrenetikan bazuten...» .....	119
«Biba tropa espagnolak...» .....	123
Jose Bonaparte (1813) .....	131
«Traidore Bonaparte...» .....	133
«Ara Buonaparteren...» .....	137
<i>Año de 1813</i> .....	145
1813'ko agorrillaren 11'a .....	155
«Zurriola aldetik...» .....	161
Gauza negargarriak .....	165
«Ezpata, bala eta garraz...» .....	167

## ORAINDAIÑOKO LIBURUAK 117'garrenetik aurrera.

- 117-118: *B. Enbeita*: Nere apurra.  
120-121-122: *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.  
123-124-125: *A. Zavala*: Zampirain anaiak.  
126: *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.  
127: *M. Arozamena*: Nere aldia.  
128: *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.  
129: *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).  
130: *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).  
131: *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).  
132: *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).  
133: *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.  
134: *J. M. Arrizabalo, A. Zavala*: Baso-mutillak. (*Aitua*).  
135: *A. Zavala*: Jaiok bizi nai.  
136: *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.  
137-138: *Ataño*: Txantxangorri kantaria.  
139: *A. Zavala*: Soldaduzkako bertsoak.  
140: *A. Zavala*: Nekazariak bai miseriak.  
141: Bertsolari-txapelketa nagusia, 1980. (*Aitua*)  
142: *A. Zavala*: Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak.  
143: *A. Zavala*: Nork bere bidea, I. (*Aitua*)  
144: *A. Zavala*: Nork bere bidea, II. (*Aitua*)  
145: *A. Zavala*: Nork bere bidea, III. (*Aitua*)  
146: *A. Zavala*: Berridi eta Kuxkullu bertsolariak.  
147: *Ataño*: Txori. (*Aitua*)  
148: *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak, I. (*Aitua*)  
149: *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak, II. (*Aitua*)


- 150: *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak, III. (*Aitua*)  
151: *Mattin Treku*: Etxe xokotik kantari. (*Aitua*)  
152: *Xalbador*: Herria gogoan. (*Aitua*).  
153: *J. K. Zapirain, Ataño*: Zure Pasio Santua.  
154: *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak I.  
155: *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak II.  
156: *F. Artola «Bordari», R. Artola*: Aritz beraren adarrak.  
157: *Elkarlanean*: Lexoti bertsolaria.  
158: *Mari Treku*: Mattin, nere gizona. (*Aitua*)  
159: *Txomin Garmendia*: Denbora pasa.  
160: *Txomin Garmendia*: Bizitzaren arian.  
161: *A. Zavala*: Kuba'ko gerra.  
162: *J. M. Arrieta*: Nere ondar alea. (*Aitua*)  
163: *J. C. Arrosagaray*: California-tik kantuz.  
164: *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak, I.  
165: *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak, II.  
166: *M. Manterola*: Lore apal bat.  
167: *J. M. Lertxundi*: Baso tarteko oiua.  
168: *P. Lazkano, A. Zavala*: Tiro tartean bertsotan.  
169: *Basarri*: Kezka-giroan.  
170: *Txomin Garmendia*: Bordaberri'ko gozo-mikatzak.  
171: *Txomin Garmendia*: Bertsolari-kurpilla.  
172: *S. Salaberria*: Nere soroko emaitzak.  
173: *I. Olea*: Otemotxeko arnasa.  
174: *A. Zavala*: Kristaubidea bertsotan, I.  
175: *A. Zavala*: Kristaubidea bertsotan, II.  
176: *A. Zavala*: Ameriketako bertsoak.  
177: *Txomin Garmendia*: Erririk-erri.  
178: *Basarri*: Bertsolaritzari buruz.  
179: *Ataño*: Espetxeko negarrak.  
180: *A. Zavala*: Euskal jokoak bertsotan, I.  
181: *Ataño*: Zigorpean.  
182: *M. Ostolaiz*: Oroipen-kutxa.  
183: *A. Zavala*: Euskal jokoak bertsotan, II.  
184: *A. Zavala*: Esaera zaarren bilduma berria, I.  
185: *A. Zavala*: Esaera zaarren bilduma berria, II.  
186: *A. Zavala*: Neska-mutillen arteko bertsoak.  
187: *A. Zavala*: Ezkondu bearreko bertsoak.  
188: *Txomin Garmendia*: Beltzak eta zuriak mendian ardiak.  
189: *Ataño*: Eltzaorra.  
190: *Pablo Zubiarrain*: Ia kantatuz bezela.  
191: *Basilio Pujana*: Egi batzuek aixetaratzen.  
192: *Ataño*: Odol-kutsua.  
193: *Ataño*: Maitasunaren lanak.

- 194: *Pablo Zubiarrain*: Gaziak eta gozoak.
- 195: *Bartolo Ayerbe*: Nere mundualdia.
- 196: *Ataño*: Etorkizuna.
- 197: *Ramos Azkarate*: Ijitoen kontratuba eta abar.
- 198: *Erramun Etchebarne*: Erramun harginaren oroitzape-nak.
- 199: *Jose Maria Etxaburu*: Neure lau urteko ibillerak.
- 200: *Jose Azpiroz*: Arbol zarraren kimuak.
- 201: *Ataño*: Maite itzazute etsaiak.
- 202: *A. Zavala*: Frantziako Iraultza eta Konbentzioko gerra.
- 203: *Jose Azpiroz*: Gogoz kontrako pausoak.
- 204: *L. Rezola «Tximela»*: Bakardadeko ametsak, I.
- 205: *L. Rezola «Tximela»*: Bakardadeko ametsak, II.
- 206: *J. Lete «Ibai-Ertz»*: Orrela ziran gauzak.
- 207: *Ataño*: Aztia usnari.
- 208: *F. Etxebarria*: Nor garan azaldu.
- 209: *B. Barandiaran*: Zartu gabe ezin bizi.
- 210: *Beñat Karrika*: Armendaritze haur begiez.
- 211: *Basilio Pujana*: Deabruak ostutako urteak.
- 212: *A. Zavala*: Frantzesteko bertsoak, I.



1051539

G-128/71-J




AUSPOA  
LIBURUTEGIA

Antonio Zavala.

# FRANTZESTEKO BERTSOAK


## II



-II

# AUSPOA





EUSKALTZAINDA

Arabako Ordezkaritza

# FRANTZESTEKO BERTSOAK

## II

Antonio Zavala

# FRANTZESTEKO BERTSOAK

II

Auspoa Liburutegia

*Azalean, Donostia 1813'ko abuztuan.  
Juan Ramon Elisbururen marrazkia.*

© Auspoa Liburutegia (Tolosa - Gipuzkoa)  
Fotokonposatzalle: Cometip fotocomposición, s.l. - Pamplona  
Inprimatzalle: Gráficas Lizarra, S.L., Estella (Navarra)  
ISBN 84-7158-145-0  
Depósito Legal: NA. 1048-1991 (II)

**«MILA ZORTZI EHUN DA HAMAHIRUR  
URTE...»**

Mila zortzi ehun da hamahirur urte,  
Bonapart Frantzian enperadore;  
española ere luzatu gabe  
Pariseko giltzekin jua laiteke.

Bertso au Francisque Michel'en *Le Pays Basque* liburutik (Paris, 1857) artua degu.

Baiña bertso bakarra etzala, Michel'ek berak esaten digu:

*«La dernière chanson se compose de cinq couplets, et commence par celui-ci...».*

Alegia, bost bertso zirala, edo-ta bost bertso jaso zituala berak.

Sail baten asiera dala itxura garbia du, izan ere, bertso onek. Pena artzekoa da, beraz, Michel'ek onen lagunak argitara eman gabe utzi izana.

Jartzaillea ipar aldekoa dala dudarik ez da. Darabilen euskerak ala salatzen du. Eta bere burua ez du españoltzat jotzen. Baiña Napoleon'en indarrak eta almenaz oso etsita dago, Paris bera españolaren mende laster eror dedin bildur izate-raiño.

Leizaola'k bertso au bere *Crónicas romances poesía euskérica* lanean, 124 orrialdean, ematen du.

## ESPAÑOLAK FRANTZIA'N

- 1/ Kantatzera nohazu nere arabera,  
segur naiz maluruski sujeta dudala.  
Ez dezagun pena hau har sobera barnera,  
elgar kontsolaturik gaiten alegera.
  
- 2/ Mila zortzi ehun eta hamairugarrena,  
eman zaukutenian Lapurdin ordena:  
etsaia heldu zela Frantzian barnera,  
ihes joaitia zela gure hoberena.
  
- 3/ Egun malurus hartaz oroitzen naiz ontsa,  
behar gabe eginik haren bertze trosta.  
Ofregi Jainkoari gure nigar hotsak,  
baldin ez baditugu harrizko bihotzak.
  
- 4/ Zori gaixtoz joan ginen guziak ihesi,  
hemengo sarraskiak ez nahiz ikusi.  
Utzi gintuen onak zituzten iretsi,  
heien faltaz bakotxak behar du miretsi.

- 5/ Partitu ginenian zoin gure herritik,  
batzu haurrak besotan, bertzeak ondotik,  
nigar egiten zuten gaixoek gogotik,  
inozentek sofrituz hobendunen gatik.
- 6/ Soldadoak gibelat zoazin erretretan,  
arrogatzen zituzten jendiak bidetan.  
Gintuenak ken eta zoazin lorietan,  
saindu onik ahal da tropa horietan!
- 7/ Arribatu ginenian leku arrotzetan,  
pietate gabeko jende zorrotzetan,  
gauak kanpuan emanaz neguko hotzetan,  
biziaz etsiturik hogoita bortzetan.
- 8/ Jende gogorak dire guretzat kaskoinak,  
eskualdun gaixoentzat ez hainitz kasta onak.  
Gure gostuz halere jan tuzte gauza onak,  
oiloak egosiz eta errerik gapoinak.
- 9/ Nere eskualdun lagun erroginatua,  
zoin gure lekutan ongi min-hartuak,<sup>1</sup>  
Frantziako armadaz gare penatuak,  
eta Espainiakoaz arras finituak.

---

(1) *Gure Herria'k minharuak* idazten du itz au. Guk, beintzat, ez diogu orrela esan-nairik arkitzen. *Min-hartuak* ezarri degu, ala bear dualakoan.



10/ Kantu hauien emaile Martin Bidarteko,  
niri ere joan dautet zenbeit bitarteko.  
Gutizia izan dut hauien emaitako,  
arrozoina banuen egia erraiteko.

Bertso auek, izenburu orrekin, *Gure Herria* aldizkarian agertu ziran, 1928'ko martxo-apirilleko zenbakian.

Firma bezela, deitura bat azaltzen da: *Mugna-gorri*. Ez dakigu zer esan naiko duan. Egillearen izena ez da beintzat, azken bertsoak beste izen-abizen batzuk ematen ditu ta.

Urrena, argibide jakingarri auek eskeintzen dizkigu:

«Huna kobla batzu egungoak izan behar ez direnak. Adixkide batek igorri dauzku. Paper zahar mutur batean atxemanik etxeko selauruan, berak ez daki nundik etorriak ziren harat. Etxeko paper zaharrak surat emateko orde orok gure adixkidearen arta balute, zer irakurgeiak lituzken oraino ondoko egunetan *Gure Herria*'k.»

Esan bezela, azken bertsoak, egillea nor dan esaten du: Martin Bidarteko. Beraren berri, *Auspoa*'ren 164'garrenean eman genduan, 17'garren orrialdean, 1928'ko *Gure Herria*'tik artuta, aren beste bertso batzuk eskeintzerakoan.

Urtea bigarren bertsoak esaten digu: 1813.

Gaiaren aldetik adierazpen bearrik ez dute ia bertso auek, baiña ona argibide batzuk.

Españolak, eta beren lagunak ziran inglesak

eta portugesak, muga igaro dute. Leenengo soldadu-taldeak 1813'ko iraillaren 2'an eman omen zuten pauso ori. Andik aurrera, frantzesak atzeraka eta besteak aurrera. Baiña borroka latzak izan zituzten alkarrekin Arrangoitzen, 1813'ko abenduaren 9'an; eta Orthez'en, 1814'eko otsaillaren 27'an.

Errietako jendeak, beren etxeak utzi eta igesari eman zion. Baiña etxean utziak galdu zituzten, eta bai berekin zeramazkitenak ere. Soldaduak ere jan egin bear. Kaskoinen lurraldeetan, berriz, erruki gutxi etorkiñentzat. Azkenik, erri gaixoak bi gudarozteen zakarkeriak sufritu bear, ezeren errurik gabe larrutik pagatuz.

Napoleonen soldaduak berdin portatuak ziran España'n barrena eta beste Europa'ko erreinue-tan ere. Baiña basakeri oien aurka ez degu uste Martin Bidarteko orrek bertsoak jarri zituanik. Lagun urkoaren agiñetako miñagatik ez baitegu iñork ere negar egiten.

\* \* \*

J. Mendiague bertsolariak, berak argitara arazi zuan *Zazpiak bat, Eskualdun Kantuak (Santiago de Chile, 1916)* liburuan, sail ontako sei bertso ematen ditu: 2, 5, 7, 8, 6 eta 10'garrena, orden ortan eta «Inglesak Frantzian» izenburuarekin.

Airea: «*Mila zortzi ehun eta hamahiru garre-*

na...». Ez dakigu zer doiñu izan diteken ori. Bearbada, urte ortakoa izanik, gerrate oni buruzko bertsoak izango ziran oiek ere.

Gaiñontzeko aldaketak: 2/2: xefek eman zutena Frantzian ordena; 2/3: tropak heldu zirela Frantzia barnera; 5/4: inozentek sofrizia falta horren gatik; 6/1: Soldadoak gibelerat heldu erretretan; 6/4: saildu onik bide da tropa horietan; 7/2: pietate gabeko kaskoin zorrotzetan; 7/3: gabak kanpoan pasatuz neguko hotzetan; 8/1: Jende zorrotzak dira guretzat kaskoinak; 8/2: eskualdun gaixoentzat ez hanbat kasta onak; 8/3: gure gostuz bederen jan dituzte gauza onak; 10/1: Kantu haien emailea Martin Bidarteko; 10/3: borondate izan dut haien emaitako.

**«GIZON HOIEK NOR DIRA...»**

- 1/ Gizon hoiek nor dira gorritz beztiturik?  
Gure jende guzia dago beldurturik.

*Hots, haurrak,  
har gure armak,  
jo dezagun  
pun, pun, pun, pun,  
bisaia,  
jo dezagun etsaia.*

- 2/ Hartzak oihanetan ezagun dirade,  
etsaiak mendietan gordatzen dirade.

*Hots, haurrak,...*

- 3/ Ihizi egitera goatzan gu botzik,  
etsaia ohiltzera goatzan bertarik.

*Hots, haurrak,...*

- 4/ Gure bularretzaz begira guk lurrak,  
etsaiaren odolaz gizent gure alorrak.

*Hots, haurrak,...*

5/ Euskaldunen bihotza bihotz beroa da,  
etsaiantzako lotsa egundano ez da.

*Hots, haurrak,...*

6/ Libertate ederra, bizi adi gureki!  
Hunat hire hiltzera etsaia duk jalki.

*Hots, haurrak,...*

Bertso auek Paris'tik ditugu, liburutegi nazio-  
naletik. Eskuz idatzita daude.

Leendabiziko bertsoak aitatzen dituan gorritz  
beztitutako gizon oiek, ingles soldaduak dira, garai  
artan, oker ez bagaude, kasaka gorriak jazten bai-  
tzituzten.

Aurreko saillarentzat emandako argibideak,  
aski dira onako au ere kondaira aldetik ondo uler-  
tzeko.

Baiña aurreko sail ori erri-erriko gizon batek  
jarria da. Onako au, berriz, gizon ikasiren batek  
moldatua. Alde ederra baitago batetik bestera, bai  
bertsoak egiteko teknikaz, eta bai erabiltzen diran  
burutapen eta sentimentuez ere.

## «BONAPARTE'K NORAT DIEN EGIN...»

Bonaparte'k norat dien egin  
errazu, Arrikaberri;  
goraintziño bat Larraidirekin  
nahi niroke igorri.

Hark segurki  
bai fidelki  
egin liroke mandatu hori  
Napoleon handiari,  
ikusten dien bezain sarri.

Bertso au, zortzi bertsoeren sail baten asierakoa da. Donibane-Lohizune'n arkitu genduan, Telesforo Monzon zanaren bilduman. Baiña leendabizikoa bakarrik kopiatzeko baimena eman zitzaigun, eta beste zazpiak an gelditu izan bear zuten, beraz.

Irakurri egin genituan, ordea, eta oartxo au idatzi ere bai: Napoleon'en aurkako bertsoak.

Bertsoen aurretik idatzita dagoan argibidea ere kopiatu genduan:

«*Chanson faite par l'abbé Monho, cure d'Irisa-*

*rry en l'anne 1814, à l'occasion du départ de Napoleon Bonaparte».*


Alegia: Monho, Irisarri'ko apaizak 1814'ean egindako kantua, Napoleon Bonaparte'k alde egi-terakoan.

Monho 1806 urtetik 1819 urteraiño izan zan Irisarri'ko apaiz, Piarres Lafitte'k bere *Poèmes basques de Salvat Monho* liburuaren itzaurrean esaten duanez. Lafitte'k, ordea, etzuan bertso-sail au bere liburu ortan argitaratu, ez-ezaguna izango zuan-ta.

«FRANTZIAN ERREBUELTA...»



Fran- tzi- an e- rre- buel- ta zen-  
ba Lor Bi- o- len- ton ger-



bait du a- si- rik, o- gei e- ta bost  
la- ri aun- di- a, zuk e- re e- man di-



ur- te di- tu kon- pli- tu- rik, Ros-  
gu- zu Fran- tzi- an ba- ke- a, e-



pie- rres e- ta Fi- nes bi- ek ka- sa- tu-  
ta pre- so e- za- rri en- pe- ra- do- re-





1/ Frantzia errebuelta  
zenbait du asirik,  
ogei eta bost urte  
ditu konpliturik.  
Rospierres eta Fines  
biek kasaturik,  
gero aien ondotik  
Bonaparte jarri zen  
nausiturik.

*Biba Lor Biolenton  
gerlari aundia,  
zuk ere eman diguzu  
Frantzia'n bakea,  
eta preso ezarri  
enperadorea,  
biba, biba, biba  
Luis Erregea.*

2/ Biba, biba, biba  
Luis emezortzi,  
zure izena oraino  
etzaigu ahandzi,  
zu behar zaitugula  
zagutu nagusi,  
guziok onetsi,  
Napoleonesak oro  
joan ziren igesi.  
*Biba Lor Biolenton...*

Doiñu eta bertso auek, Azkue'k bere kanta-bilduman argitaratu zituan, 628 zenbakian, Amaiur'en bilduta.

Leenengo bertsoaren bukaeran kurtsibaz idatzi deguna, kanta-luzagarri edo errepikagarri bat dala uste degu; erderaz *estribillo* esaten dana, alegia.

Frantzia'ko Iraultza asirik, ogei ta bost urte dirala esaten digu leenengo bertsoak. Iraultzaleak beren garaipena *La Bastilla* gaztelua artutakoan,

1789'ko uztaillaren 14'ean alegia, lortu baitzuten, ogei eta bost urte erantsirik, 1814'garrena degu.

Urte ortan, Napoleon menderatua izan zan eta pakea egin. Baita Luis XVIII Frantzia'ko errege jarri ere. Itxurak diranez, errege berria ez da artean Paris'era-edo iritxi. Baiña bertsolariak bertso auen bidez ongi-etorria ematen dio.

Leenengo bertso orrek berak, Rospierres eta Fines aitatzten ditu. Fines ez dakigu nor izan zan. Bearbada, izen ori aldatuta dago. Rospierres, berri, Robespierre da; iraultzaleen buruzagietako bat. Baiña ondoren begitan artua izan zan, eta lepoa moztu zioten.

Bigarren bertsoak izendatzen digun Lor Biolenton ori, Lord Wellington degu. Leen ere esan degunez, bera zuten buru España'tik etorri eta Frantzia'ren lurretan sartu ziran gudarozteak; inglesak, portugesak eta españolak bat eginda, alegia.

## GERLA ONDOAN MISERIA

- 1/ Frantzia'n zer den gertatu  
mundu guzia da harritu,  
zeren zaikun miseria arribatu.  
Ezta behar lotsatu,  
behar da kasatu,  
aberatseri galdatu,  
polikiño lausengatu,  
eman nahi ez badute porroskatu,  
orduan behar die madarikatu.
  
- 2/ Leheneko denboretan,  
Bonaparte'n eskoletan,  
jende xehe guzia ginen harmetan;  
eta geroztikan  
ezta gerlarikan.  
Betiri Sants grado handitan,  
muntaturik bota ezproinetan,  
bortaz borta dabila zela-bridetan,  
Frantzia'n errege sartuz geroztikan.

Bi bertso auek, izenburu orrekin, Aita Donosti zanaren artxibotik ditugu. Eskuz idatzita daude, *Cuaderno de Argentina* izeneko bilduma batean.

Bertsoak diotenez, Bonaparte joana da eta erregea etorria.

Napoleon'ek, 1814'eko Apirillean atera bear izan zuan Frantzia'tik, eta Elba'ko ugartera erretiratu. Luis XVIII erregea ekarri zuten orduan.

Napoleon, ordea, 1815'eko martxoaren 1'ean, Elba'ko ugarteia utzi, Frantzia'ra sartu eta ostera ere agintari jarri zan. Eun egun iraun zuan oraingo ontan. Lord Wellington'ek garagarrillaren 18'an Waterloo'n menderatu zuan arte, alegia. Orduan Santa Elena ugartera bialdu zuten, eta Luis XVIII berriz ekarri.

Bi aldiz utzi zuan, beraz, Napoleon'ek Frantzia, eta bi bider erregea ere etorri. Bertso auek berdin izan ditezke, beraz, ura Elba'ko ugartean zalarik jarriak, edo Santa Elena'ra joan ondokoak.

Gerra bukatu da eta pakea etorri. Baiña gosea ta miseria toki guztietara zabaldu dira. Gerra-ondo guztiak berekin duñe zigor ori, gerra bazter-purrukatzaille aundia baita.

Ain zuzen, Betiri Sants aitatzen da bigarren bertsoan. Bidasoa'z ipar aldeko euskaldunak badakite jaun ori nor dan. Ez, ordea, mugaz ego aldekoak. Betiri Sants gosea da; gosea, pertsona biurtua. Beste aldeko bertsoetan sarritan esaten da orrela, gosea aitatu nai danean.

## SOLDADUAK DESERTATUAK

- 1/ Buruilaren zortzian,  
erretretaren joitian,  
hiriko zitadelian,  
atera gintuan atetik,  
bi zentinelan artetik,  
jauzi egin zubitik,  
gogotik,  
galdegin gabe konjitik.
  
- 2/ Non zarezte, mutikoak?  
Ongi urusak baitzirezte,  
orai hor baitziezte.  
Jin zituian jandarmeak,  
zortzi ongi harmatuak,  
mañotak einik berriak,  
dobliak,  
boletekila guziak.

3/ Bildu zirenia harat  
aitzindari guziak,  
lanak ziren orduan.  
Hasi ziren zapartaka,  
lurrari ere ostikoka,  
beren biloer tiraka,  
sakreka,  
nehori ezin mendeka.

Iru bertso auek, izenburu orrekin, leengoen iturritik artuak ditugu; Aita Donosti zanaren artxibotik, eskuz idatzitako *Cuaderno de Argentina* izeneko bilduma ortatik, alegia, eta orrialde bertetik.

Soldadu batzuek iges egin dute, zitadelarik duan iriren batean. Baiña iri ori zein dan ez da esaten.

Noizko bertsoak diran ere ezin garbitu ditekela iruditzen zaigu, artarako biderik guk beintzat ikusten ez baitegu. Baiña, esan bezela, leengoekin batera orrialde berean baitaude, eta aiek frantzestea bukatu ondokoak diran ezkerro, alkarren segidan jartzea pentsatu degu.

## **SAN BIZENTE ABANDOKOAREN ELEXAN KANTADUKO DIRIAN KANTAK**

**Maiatz-Pazkuako bigarren egunian, zeinetan  
jausten dan San Fernandoren eguna bere,  
eta egiten jakan piestia Ama Birjiniaren  
sorrera edo Konzepzioiari eta eskerrak  
emoten jakazan Jaunari gure errege  
Fernandoren etorreria gaitik.**

Poztu gaitetz lau jaietan  
Maiatz-Pazkua onetan:  
Done Marijen sorreran,  
frantzesen urtaieran,  
San Fernandoren egunian,  
Fernando errege dogunian.

### **ARINTXUBA**

*Poztu gaitezan  
egun onetan,  
eskerrak millaz Jaunari,*



*mesede andijak  
eginagaitik  
gure España'ko  
lurrari.*

- 1/ Birjina Ama Marijak,  
grazijan sorturik,  
ez eban iñoz euki  
orban, ez errurik.  
Ederrik urten eban  
oitarren aotik, (*sic*)  
izate artu ebenak  
baño lenagotik.
  
- 2/ Ezkutape onetan  
da gure zainle,  
jar leku garaijetan  
erregen ipinle.  
Sendo zagoz, España,  
bere eskupian,  
ez zaitez bildur izan  
bere egapian.
  
- 3/ Sebilla artu baeban  
Fernando santubak,  
indarra emon eutsan  
grazijan sortubak.  
Sendaturik Fernando  
Ama Birjiniak,  
azpiratu zituban  
mauru erregiak.

- 4/ Ez iñoz uste izan,  
españar andijak,  
azturik gaukazala  
Birjina Marijak.  
Ezta iñoz amaitu  
bere errukija,  
.....txe agiri da<sup>1</sup>  
au dana egija.
- 5/ Eukan frantzes zitalak  
Fernando guria  
gugandik txito urrin,  
au zan esturia!  
Zan gure gurarija  
bera ikustia,  
baña etzakun erraz  
bera eukitia.
- 6/ Jaungoiko errukitsu  
on eta bigunak  
dakarguz Fernandogaz  
ugari ondasunak,  
gure negar malkuak  
begitik kentzeko,  
gure biotz leijalak  
pozez aseteko.

---

(1) Papera puskatuta dago, eta lerro au ezin irakur diteke osorik. Baiña falta dana *oraintxe* izango da bearbada.

- 7/ Jaijorik eguzkija  
gau ilun ostian,  
guztia ifinten dau  
argizko pozian.  
Alaintxe zuk, Fernando,  
emen sartubagaz,  
España bete dozu  
olgura andijagaz.
- 8/ Katigu zengozala  
erreinuz kanpotik,  
lan nekia zabal zan  
España guztitik.  
Jarri zadiz, Fernando,  
oasaben aulkijan,  
bakia izan daigun  
inguru guztijan.
- 9/ Galdu gura badabe  
okerrak fedia,  
kendu gure artetik  
Jaunaren legia,  
zapaldu begiz laster  
daukazun indarrak;  
erre, kiskildu begiz  
gar eta txingarrak.
- 10/ Inok Elexien kontra  
ezer esaten dau?  
Ez eijozu parkatu  
barriketa zital au.

Garbirik jaon daizun  
zure erlijinoia,  
irme sendatu eizu  
Inkisizinoia.

11/ Jaunak jaon zaitzala,  
Fernando maitea,  
euki dagigun zugaz  
zorijon betia.  
Izan dedin ugari  
zure on egina,  
artu daigun guztijok  
zeruko atsegina.

Bertso auek, Tolosa'ko Isaak Lopez-Mendizabal jauna zanaren paperetatik ditugu. Moldiztegi-izenik gabeko bertso-paper bat da.

Izenburuak dionez, San Bizente Abandokoaren elizan kantatzeko moldatuak dira.

Egillea nor dan ez da iñon ageri. Baiña ez al da Mogeltarren bat izango?

Lau ospakizun egun berean egokitu dira: Maiatz-Pazkoako bigarren eguna, San Fernando eguna, Ama Birjiñaren Sorrera edo Konzepzinoia eta Fernando VII erregearen etorrera.

Sortzez Garbiaren jaia, guk dakigula, abendua-  
ren 8'an izan da beti. Emen esaten danez, berriz,  
maiatzaren 30'ean ospatu bearra da. Liburuetan  
billa saiatu gera, ea festa ori egun ortan ere ospatu  
izan dan. Baiña ez degu iñun olakorik arkitu. Ez  
dakigu, beraz, zer izan diteken.

Fernando VII erregea, berriz, 1814'eko mar-

txoaren 22'an itzuli zan España'ra, muga Kataluña aldetik igarota.

San Fernando eguna maiatzaren 30'ean izan da beti. Egun berean egokitu zan urte artan Maiaztzeko Pazko bigarrena edo Pentekostes bigarrena, asieran irakurri degunez. Egun oiek, biak batera, 1814'ean gertatu ziran. Bestela etzaigu esaten, eta bide ortatik ageri da bertso auek zein urtetakoak diran.

Bi iturri ditu, beraz, bertso auen pozak: frantzesak alde egin dutela, eta Fernando erregea etorri.

Amargarren bertsoak «irme sendatu eizu Inkisizioa» eskatzen dio erregeari. Onen indarra oso argalduta zegoan Karlos III ezkeroztik. Napoleonek, berriz, Madrid'era etorritakoan, Inkisizioa kentzeko agindua eman zuan, 1808'ko abenduaren 4'ean. Orrekin, espagnol en gogoa irabaztea uste omen zuan. Baiña, ori jakiñik, zenbait lurraldetako Juntak elkarte ori ostera jartzea agindu zuten beren aldetik. Eztabaida askoren ondoren, 1813'ko otsaillaren 22'an, Kadiz'ko Korteak Inkisizioa eta Konstituzioa alkarrekin ezin izan zitez-kela erabaki zuten.

Baiña Fernando VII erregeak, Frantziatik etorri ta laster, Kadizko Korteak emandako legeak kendu egin zituan, eta Inkisizioa berriz zutik jarri, 1814'ko uztaillaren 21'ean, 1808 urtean zegoan ainean. Ikusi degunez, orixe eskatzen zuan, bi illabete lenago, bertso auen jartzailleak.

**GAUONEKO KANTAK  
KANTAUKO DIRIANAK OTSANDIKO MEZAN  
JAINKOEN SEMIEN JAIOTZEKO EGUNETAN**

**Santiagoko eleiza lenastan  
zein dan Bilbo'ko urijen  
Bizkai'ko jabedean.**

**Iminirik otsankidan Don Pedro Estorki Maisu  
otsankidariagaitik, 1814'garren urtian.**

Sarrerria

*Gizon ta andre,  
zar ta gazte,  
baita ere  
itsu ta erren,  
atozte, atozte arin,  
gauza andi bi  
miraritzen:  
bakia ta jaietza  
Jesusena Belen'en.*

## Zortzikoa

- 1/ Zeruben ta lurraren  
Egilla onari  
eskerrak ta alabantzak  
emaiten nator ni;  
baña, nere alegina  
utsa dana legez,  
zeuben laguntasuna  
eskatzen det aurrez.

## Kantastea

*Goazen, goazen  
Belen'era,  
Seintxo ederra  
adoratzen;  
ta ze itzkuntza  
zan leenena  
asmatuko'gu  
benturez.*

## Bestetxo bat

*Jesus geuriak  
negar artian  
egiten dituz,  
nere ustian,  
itzkuntzok:  
»Ai-tai-ta,  
am-am-a,  
ti-ti-a,  
en-en-nia!«*

2/ Sei urteko gerraren  
ta nekeen erruki,  
Jainkoak jatsi deusku  
bakia zerutik;  
Bizkaia'k ez dau biar  
aztu mesede au,  
leñargitu ta eskerti  
izan gure badau.  
*Goazen...*

3/ España'ko erreinuban  
zer gauza andijago  
bakia ta jaietza  
gauon untan baño?  
Alan kanta dezagun  
ondotxu eda-azkero,  
aurkietan gariela  
pozik ta txit ondo.  
*Goazen...*

4/ Janariyak abondo  
eta ardaoa merke,  
alogera sarriro  
ta bolsia bete,  
bakien eremaitzak  
oneik izango'ire,  
bereziro biarrak  
lasaitut'ezpa'ire.  
*Goazen...*



5/ Jentiak, nai badozu  
gerra gabe bizi,  
alkar guztiok amau  
ta ez gatzik iñori;  
baia agintari dongak  
dirauben artian,  
seguru ez da bakia  
lurraren gañean.  
*Goazen...*

6/ Bakotxak bere itzkuntza  
azturik badegu,  
bakian gagoz eta  
ikasi biar dogu;  
zerren ezpadakigu  
euskaraz berbeiten,  
nork igerriko gaitu  
bizkaitarrak garien?  
*Goazen...*

7/ Gaur legezko gauetan  
nastatuten dire  
txede grabe artian  
jolas eta barre;  
lagun gizagexo bik,  
buruban sartun-da,  
nai leuke euskeria  
gaur gañik biztu din.  
*Goazen...*

8/ Bolsia tximurtzeko  
ta buruba unatu,  
eztaude nekatubak  
lan txikiña artu;  
euskerazko egunare,  
sekula ez legez,  
atera ei douskube  
askoentzat ingles.  
*Goazen...*

9/ Saltzien ezpaitubez  
bat lotu bagarik,  
izan biarko dire  
galdubek ta erruki;  
alfroxa batzuekin  
ta mendirik mendi  
ibilli biarko dabe  
opaka egunare.  
*Goazen...*

10/ Ezpadai Erondiak  
zerbait letartatu,  
Bizkai'en euskaria  
laster galduko'gu;  
beragaz usu onak  
desagertuko'ire,  
ta lurreko biarrak  
nekez egingo'ire.  
*Goazen...*

11/ Bizi, España, bizi  
balleratuakin,  
gudatu daudelako  
geiagoan ezin;  
bizi dila Fernando,  
geure errege ona,  
ta Jesus bizi bidi,  
gau untan jaioa.  
*Goazen...*

Gabon-kanta auek, Chicago'ko New Library-tik ditugu, Bonaparte'ren bildumatik. Moldiztegi-izenik gabeko bertso-paper batean argitaratu ziran. Bertsoen ondotik, onako iztegi au dakar:

Kantastea: *estribillo*. Mirari: *admirar*. Asmatu: *adivinar*; Otsankida: *música*. Itzkuntza: *lenguaje*. Leñargitu: *noble*. Lenasta: *principal*. Erondia: *gobierno*. Balleratuak: *aliados*. Letartatu: *providenciar*. Jabedea: *señorío*. Eremaizak: *frutos*. Gudatu: *pelear*. Unatu: *cansar*. Egunare: *calendario*. Eskerti: *agradecido*. Otsandi: *solemne*.

Bertsoen aurretik urtea ageri da: 1814. Bestetik gabe, badaki irakurleak bertso auetan bein baiño geiagotan aitatzen dan gerra, «sei urteko gerra» bigarrenak dionez, zein gerra dan: frantzestea. Pakea egin berria dan ezkerro, poza dariote bertso auek. Gu ez gaitu orrek arritzen; bai, ordea, euskerarengatik emen azaltzen dan kezka.

**SAN INAZIO  
LOIOLA'KOAREN ALABANTZAK**

- 1/ Aita San Inazio,  
zure milagroa  
urte gutxiz onoztik  
orain igaroa,  
lengo guziyak baño  
au da geiagoa.  
Ni zure alabantzak  
esatera noa,  
basta da zaitugula  
probintzianoa.
  
- 2/ Santu glorioso au  
pareten artean  
kolejiyoan gorde  
zuten presentean.  
Gero pentsatu zuten,  
andik irtetean,  
para obeko zela  
kajatxo batean,  
bestela gaur Frantzia'n  
egon zitekean.

3/ Aita San Inazio,  
sarturik lurpean,  
frantzesaren bildurrak  
dago iru urtean.  
Orain bidaltzen dute  
kausa apuntean:  
ori guardatzeko  
leialak nor ziran.  
Zu nai zinduztekenak  
badira Nortean.

4/ Bernardo txikia ta  
hermano Bautista,  
beste bi ere fiñak  
ziran zure gisa.  
Emanagatik ere  
milla topaitza,  
kontuz aterako da  
zuen autik itza,  
gauza delikaduak  
isillik bebiltza.

5/ Aguztuko egunean,  
illaren iruan,  
parisiyua franko  
badu inguruan.  
Ustez egonagatik  
toki seguruan,  
ez geiegi fiatu  
oraingo munduan,  
galdutzeko lau beatz  
falta etzenduan.

6/ Aita San Inazio,  
zure relikia,  
benteruak gordeta  
maitero irukiya.  
Frantzesak orren billa  
ainbeste porfiya,  
infame traidoreak  
zuten urrikiya,  
etzutela billatu  
zu zeunden tokiya.

7/ Asko trabajatu da  
bentero Bernardo,  
lagunak billaturik  
santu orren bando,  
frantzesai bere botuz  
ez diote emango.  
orrek merezi luke  
zerbait agirando,  
munduan pasa dezan  
bere zartzia ondo.

8/ Bernardo saiatu da  
bere auzo legean  
santu au guardatzen  
gau ta egun pelean,  
minuto guzietan  
frantzesen mendean.  
Arkitu diotela  
etsi du azkenean,  
susto bat aztuko da  
galdu eztanean.

- 9/ Difuntu glorioso  
Hugarte-mendia,  
Patriyari ziyona  
amoriyo andiya.  
Jakitera etorri da  
kontu oin berria,  
bazuten aspaldian  
norbaiten premia,  
Bernardori galdetu,  
ark daki egiya.
- 10/ Zeruko santu eta  
santen egunean,  
dixoso au zugana  
etorri zanean.  
Jakitea zeneukan  
zere poderean:  
ondotxo gorderikan  
usotegipean,  
kajan enterratuba  
sarturik lurrean.
- 11/ Mendizabal jeneral  
fama aundikoa,  
España'n bada ta  
gizon benditoa.  
Rezibitu degu  
orren abisua:  
Bilbao'ra pasatzeko  
dala prezisoa,  
gabatxoen artetik  
agudo bijua.

12/ Aita San Inazio,  
guazen igesi,  
ez gaitzke Loiola'n  
deskantsuban bizi.  
Sinplemente galtzia  
ez luke merezi,  
badaki dirala orain  
frantzesak nagusi,  
etsaien eskuetan  
bere burua utzi.

13/ Telleria jauna ta  
letradu Arizpe,  
allegatu dirade  
santu onen eske.  
Gauzarik onena  
disponi bezate:  
Bilbao'ra pasatzeko  
arren jai edo aste,  
peligroan dagoala  
frantzesakin uste.

14/ Lenbiziko irteera  
zuen Azkoiti'ra,  
korrejidore jauna  
dagoen tokira.  
Probintziako buru  
orain berok dira,  
beste lekutan baño  
emen obeki da,  
eramateko asmoak  
dituzte urrutira.



- 15/ Beste mobimentua  
zuen Motriku'ra,  
karretero triste bat  
leial ibiltu da.  
Santuak izan arren  
illaren itxura,  
beti eska zaiozu  
fortuna on dizula,  
berak sartuko zaitu  
zu paradisura.
- 16/ Motriku'tik Bilbao'ra,  
andik Santanderra,  
agudo Coruña'ra  
pasatzea obeko da.  
Gu baño gutxiago  
bildurtzen zan bera,  
zergatik probatua  
dan lenago gerra,  
Cádiz'a jua ezkerero  
an seguru zera.
- 17/ Abisatu bekio  
San Inaziori,  
bere probintziara  
nai badu etorri.  
Luzitu bear badu  
komentuak ongi,  
au bere parajian  
beti da konbeni,  
gaizki esaten badet  
galdetu edozeiñi.

- 18/ Aita San Inazio,  
esperatzen det nik  
lagunduko dirala  
seguru zerutik.  
Soldadu pasa zuben  
ainbeste bat pais,  
fuertea izandu zen  
kanpañetan agitz,  
etzeukan onore au  
faltsoa izan balitz.
- 19/ Azpeiti'ko seme bat  
badator ontzian,  
alako mariñelik  
ezta probintziyan.  
Errezibituko da  
jaun au Donostiya'n,  
engañatzen ezpanaiz  
nere iritziyan,  
baña eskatzen dute  
joan zan tokiyan.
- 20/ Aita San Inazio  
barkuan mariñel  
frantzesaren beldurrak  
ara non dabillen,  
oraingoan Cádiz'en,  
lengoan Madrid'en.  
Mundukoak bagiña  
ori bezain fiel...  
Etorkizunen berri  
orrek bazekien.

- 21/ Iturriaga jauna  
zen errezibitzen,  
edozein juateak  
etzuen serbitzen.  
Enpleo andiyetan  
nola dan ebiltzen,  
erriak argatik du  
bedorri epeintzen,  
alako prozesio  
ederra egin zen.
- 22/ Alako estaduan  
santua ekusita,  
errezibitu zuten  
jaun ori pozika.  
Prozesio ederra,  
gañera musika,  
desonra zeritzaten  
nolanai utzita,  
ongi egiñak eztu  
merezi gaitzika.
- 23/ Alik ere ongiena  
errespetaturik,  
andetan daramate  
soñean arturik.  
Boluntariomente  
ez du traturik,  
ez geiago plantatu  
orrenzat barkurik,  
eskapo ibiltzeko  
eztu pekaturik.

24/ Esaten badituzte  
egiya justuak,  
sei milla erreal beren  
badira gastuak.  
Prestatu zituztenak  
ez daude aztuak,  
bueltatzeke denboran  
atzera eskuak,  
zorra eztu pagatzen  
auzoko juzguak.

25/ Banderarekin dator  
beron Elizalde,  
konpañia onraduban,  
desluzitu gabe.  
Aspaldian ausente  
ibilli bada ere,  
noizbait egin dirade  
Patroiaren jabe,  
paraje arrotzian  
ezta egon zale.

26/ Gizon balientia  
Inazio Mari,  
konpañia guztian  
au da buruzagi.  
Agradatzen zitzaion  
jende guztiori,  
bertso oik argatika  
nai diozkat jarri,  
orra zure santua  
komentura etorri.

27/ Agur, Loiola'kuak,  
biba Azpeitia,  
santuak arkitu du  
leneko tokiya.  
Etzuen biaje au  
agitz egokia,  
desluzitua dakar  
berniza guztia,  
ezta gustora ibilli  
beron nagusia.

Bertso auek, Aita Jose Inazio Arana'ren bildumatik ditugu. Moldiztegi-izenik gabeko bertso-paper bat da.

Beste bertso-paper bat, *Azpeiti-an: Pablo Martinez-en Moldizteguian* argitaratua, iru tokitan arkitu degu: Getari'n, Balentziaga apaiz jaunaren eskutik; Oxford'ko Bodleyan Library'n; eta Chicago'ko New Library'tik, Bonaparteren paperetatik.

Chicago'ko paperak oar auek ditu eskuz erantsita: «S. Inazio-ren zillarrezko talluaren condaira». Eta: «1828-aldean baserritar batec egin, eta berriro molderatutaco itz neurtu amarrecoac».

Paper onek aldaketa auek ditu aurrekoarekin: 1/3: urte gutxiz unuztik; 2/7: para obeko zala; 17/6: kolejiyuak ongi; 21/6: nola dan ibiltzen; 21/8: bedori ipintzen; 26/7: bertso oik argatikan; 26/10: kolejiyora ekarri; 27/4: lenengo tokiya.

Beste argitaraldi bat ere egin zan: *Azpeitia'n: Pablo Martinez'en moldizteguian*. Chicago'ko New

Library'tik eskuratu genduan. Baita Paris'ko liburutegi nazionaletik. Argitaraldi onek aurrekoak bezela ditu bertso guztiak. Chicago'ko paperak itz auek dauzka eskuz erantsita: «1816. *Reimpreso en 1877*».

Beste argitaraldi bat, *Vergaran F. M. Machainen moldizteguian*, Parisko liburutegi nazionaletik degu.

Aldaketak: 9/6: kontu oien berriya; 11/5: Errezibitu degu; 21/10: ederra agintzen; 26/7: bertso oiek argatik.

Esku-eraspen oietatik ikusten danez, bertso auen leenengo argitaraldia ez da guregana iritxi. Bai ordea gero, urteen buruan, 1877'an-edo, egin ziran argitaraldi berriak.

Bertsoak noiz jarri ziran edo aurreneko aldiz noiz argitaratu ziran adierazteko, paper batean 1816 urtea ageri da, eta beste batean 1828. Baiña gai ontaz gero mintzatuko gera.

\* \* \*

Nor izan ote zan bertso auen egillea? Aita Arana'ren bilduman azaldu dan moldiztegi-izenik gabeko paper ortan, izenburuaren gainean, eskuz idatzita, iru itz auek irakurtzen dira: »*Del famoso Chavalategui*».

Bilbo'n, Euskaltzaindiaren liburutegian, liburuxka bat bada izenburu onekin: *Arte métrica bas-*

*congada o tratado analítico de la versificación euskara*. Egillearen izenik ez du, baiña Aita Jose Inazio Arana'rena ote dan susmoa degu. Liburuxka ortan eskeintzen diran adibideetako bat au da:

Aita San Inazio,  
guazen igesi,  
ez gaitezke Loiola'n  
deskantsuan bizi.

Sail ontako amabigarren bertsoaren asiera da ori. Eta adibidearen ondotik onela dio: »*Chabolategui*».

Gure iritzirako, bi testigantza oiek Aita Arana'renak izango dira.

Txabolategi bertsolaria Ernani'koa zan. Jose Joakin Erroizenea Intxauspe zeritzan. Aren bizitzaren berri eta bildu ditugun bertsoak, *Auspoa*'ren 142'garrenean eman genituan. An esaten degunez, 1769 urtean jaio zan. Il, berriz, ez dakigu nun eta noiz egin zan, aren il-agiririk ez degu iñon arkitu eta. Baiña bertso auk jarri ziran garaian bizi bazan, berrogei ta amar urtera iritxi gabea izango zan. Alde ortatik eziñik ez dago, beraz, bertso auk berak jarriak izateko. Baiña ortik aurrera guk ezin geiago esan.

\* \* \*

Bere *Cancionero popular vasco* bilduman argitaratu ez bazituan ere, bi tokitan arkitu zituan Azkue'k bertso-sail onen aztarrenak.

Zumaia'n, Artadi auzoan, Frantziska Erkizia-ren aotik, bi bertso jaso zituan: leenengoa eta beste bat. Leenengoa berdin-berdiña, 9'garren le-  
rroa izan ezik: basta da zaizkigula. Bestea, berriz, 3'garren eta 19'garrenaren puskekin osatua, onela:

Azpeitiko seme bat  
datorren ontzian,  
alako mariñelik  
ezta probintzian.  
Ura guardatzeko  
leialak nor ziran,  
ura nai zutenak  
baziran Frantzian.

Lukas Etxebarria'ri, berriz -ez du Azkue'k esaten jaun au zein erritakoa zan-, ogeigarren bertsoa jaso zion. Baiña oso aldatuta eta luzeagoa:

Aita San Inazio  
ontzian mariñel,  
alako kapitanik  
eztabil, ez, emen.  
Frantzesaren igasi  
orra non dabilen,



batzuetan Parisen da  
bestean mariñel,  
gu guztiok bagña  
ori bezin fidel,  
etorkizunen berri  
arek bazekien.

\* \* \*

Bertso aukeratuak ulertuko badira, kondaira aldetik ere zerbait esan bearra dago. Bertsolariak aitatzan dituan gertaerak argitu, alegia.

Ortarako, bi jaun auen lanez baliatuko gera: Aita Rafael Leturia S.I.: *Estatua de plata de San Ignacio de Loyola*, (*Boletín de Amigos del País, San Sebastián*, 1954); eta Aita Jose Inazio Lasa O.F.M.: *Andanzas de la estatua de San Ignacio de Loyola*, Aranzazu aldizkarian, 1972, VIII-IX.

San Inazioren irudi ori zillar-plantxaz egiña da. Baiña oraintsu arte oso zartatuta zegoan; artesi aundiekin alegia, eskua ere sartu aal izateraiño, beetik ezeren matxurarik ikusten ez bazitzaion ere. Zerk egin ote zion ori? Urteen buruan artu zituan tratu txarrak. Orain, ordea, berrituta eta konponduta dago, Bizkaiko Bankoaren esku zabalarari esker.

1741 urtean, *Real Compañía Guipuzcoana de Caracas* izenekoak irudi ori egin arazi eta Loiola'ri erregalatzea onartu zuan.

Francisco de Vergara balentziarrak Erroman

egin zuan. Andik Génova'ra eramán zuten; emendik Donosti'ra itxasoz; eta Loiola'ra 1758'ko abenduaren 21'ean iritxi zan.

Karlos III'ak, 1767'an, bota egiten ditu jesuitak España'tik eta bere kolonietatik erbestera, baiña irudi ori Loiola'n gelditzen da. Klemente XIV Aita Santuak, berriz, Jesusen Lagundia 1773'an desegiten du.

Konbentzioko gerra 1793'an asten da. Urrengo urtean, frantsesak Loiola'z jabetzen dira, eta jesuiten etxean soldadu-talde bat uzten dute.

Gipuzkoa'ko Diputazioak agindu bat ematen dio orduan ixilka Elgoibar'ko Pedro Larrunbide'ri: Loiola'n indarrez edo al duan moduan sartu eta ango gauzarik baliotsuenak ateratzeko.

Larrunbide, soldadu eta boluntario berreun gizon artuta, Loiola'n sartzen da eta amabi kaja betetzen ditu. Oietako batean, San Inazioaren irudia, desarmatuta. Elgoibar'era eramaten ditu kaja oiek, eta andik Madrid'era. Frantsesak, mangan-tzaz, Larrunbide'ren etxea sakeatzen dute.

Frantzia eta España'k 1795'ean egiten dute pakea. Andik bi urtera, 1797'an, jesuitarik ez baitago eta berak gerra ortan beren Urdazubi'ko etxea galdu baitute, Loiola'n bizitzeko baimena lortzen dute *premonstratenses* izeneko prailleak. San Inazioaren irudia ere badator Madrid'tik, eta Loiola'ko aldare nagusian jartzen da.

Urdazubi'ko beren etxe ori berritutakoan, 1806'an, ara dijoaz erlijioso oiek; eta Loiola'ko zaintzalle Migel Pizarro gelditzen da, Extremadura'koa bera, bere bi seme Pedro eta Joserekin.

Loiola ondoan, eguzki aldera, bada beste etxe aundi bat, sei arkupe dituana. Gaur egunean gogojardunak egiteko erabiltzen bada ere, garai batean ostatua zan. Ostalaria, berriz, Fernando Erauskin zeritzan. Bertsoak *bentero* deitzen diote. Anai bat ere bazuan, Juan Bautista izenekoa. «Bernardo txikia eta hermano Bautista» esaten die laugarren bertsoak, leenengoaren izena aldatuz.

Bi anai oiek eta beste bi lagun izan omen ziran irudia salbatu zutenak, laugarren bertso orrek dienez. Baiña beste iru esan bearko luke, Pizarro aita eta bere bi seme izan baitziran.

Irugarren bertsoak onela dio:

Orain bidaltzen dute  
kausa apuntean,  
ori guardatzeko  
leialak nor ziran...

Ain zuzen, Loiola'ko artxiboan bai omen da berrogei ta amabi orrialdeko *memoria* bat, Migel Pizarro'ren seme gazteenak, Josek, idatzia, gertara auek danak kontatuz. Ori izango da dalako *apunte* ori.

Frantzesteko gerra asi zanean, 1808'an, Pizarro orrek, bere bi seme oien eta Erauskin bi anaien laguntzarekin, San Inazioaren irudia eta beste gauza asko pareta-zulo batean sartu zituzten, pareta berri batekin dana estaliz. Orixe da bigarren bertsoak aitatzen duana.

Andik denbora-puska batera, obe bearrez, parretatik atera, baratzan bi zulo egin eta antxe sartzen dituzte irudia eta gainontzeko gauzak. Irugarren bertsoak gogoratzen digu ori.

Lau milla frantzes soldadu sartzen dira Azpeiti'n, 1812'ko abuztuaren 2'an. Loiola'n altxor bat badala jakin eta bertara dijoaz. Asten dira baratzan an eta emen zuloak egiten. Baita zillarrazegoan tokia ia-ia ikutu ere. Bostgarren bertsoak itzegiten du ortaz. Baiña alperrik frantzesen egiñalak. Joaterakoan, amorruz, gauza asko puskatzen dituzte, bai elizan eta bai etxean.

Bitartean, gerrilleroak-eta gero ta indar geiago artzen ari dira. Pizarro'k izketaldi bat egiten du Azkoiti'n Gipuzkoa'ko Diputazioarekin, 1812'ko azaroan. Illaren 8'an, zenbait diputadu Loiola'ra datoz, eta Pizarro'k zuloak erakusten dizkie. Diputadu oien artean dira, amairugarren bertsoak aitatzen dituan Telleria ta Arizpe. Baita bederatzigarrenak izendatzen duan Hugarte-mendia ere.

Gordetako gauza oien artean bazan erliki berezi bat: San Inazioaren beatza, perlaz-eta apaindua. Ori Pizarro'k berekin du. Erliki ortaz seigarren bertsoak zerbait esaten du, gordetzaillea benteroa -ostalaria alegia- zala esaten badu ere.

Dauden bezela seguru ez daudela-ta, Diputazioak gauza oiek danak Bilbo'ra eramatea agintzen du, Mendizabal jenerala jakiñaren gainean jarriz. Amaika eta amabigarren bertsoak mintzatzen dira ortaz.

Mendizabal'ek eskaera bat egiten dio Diputa-

zioari: gipuzkoar batalloiak Zaindari bat bear dutela eta santuren bat izendatzeko. Diputazioak bi santu bereizten ditu: Loiola'ko San Inazio eta, Mendizabal bergararra baitzan, Agirre'ko San Martin. Oietatik bat Mendizabal'ek aukeratu bear eta San Inazio artzen du.

Andik aurrera, kapitan jeneralaren onoreak egingo dizkiote San Inazioren irudi orri, irixten dan toki guztietan.

Bertsoak diotenez, leenbiziko irteera Azkoiti'ra izan zuan irudi orrek, eta urrena Motriku'ra. Eramalea «karretero triste bat» izan zala esaten du amabostgarrenak. Aita Leturia'k dionez, Erauskin ostalaria izan zan Lekeitio'raiño eramana zuana.

Urrena Bilbo'ra, eta bilbotarrak oso arrera ona egin omen zioten.

Bilbo'tik Santander eta Coruña'ra pasatzen dute, eta andik Cádiz'era. Ala esaten du amaseigarren bertsoak. Iru illabete egin omen zituan itxasoan. Cádiz'eraño eramana izateaz ez degu arritu bear, gerra artan ura izan baitzan España'ko iri guztietan seguruena, eta frantzesak bein ere sartu etzirana. Cádiz'tarrak ere oso arrera maitekorra egin omen zioten San Inazioren irudiari, eta katedralean jarri.

Frantzesak, 1813'ko otsaillean, ostera Loiola'ra datoz ango altxorraren billa. Baiña berak nai duten txoria, kaiolatik iges egiña da.

Orrela salbatu zan zillarrezko irudi ori. Etzan toki guztietan olako zorionik izan. Adibidez, ni orain bizi naizen Xabier ontan, bertako San Fran-

tzisko bataiatua izan zan ponteoa, erromanikoa be-  
ra, zillar-plantxaz jantzita edo estalita omen ze-  
goan. Frantzesak, ori jakin, etorri eta zillar ori  
dana lapurtu zuten. Oraindik orain, bertako zaar  
batek kontatzen zidan nola eraman zuten: «*en  
unos esportizos de mimbre, de llevar fiemo*». Eta  
ortarako artu zuten mandoa zein etxetakoa zan ere  
esan zidan. Ori dana berak bere aurrekoei entzuna  
zuan noski.

Gerra bukatu ondoren, 1815'eko iraillaren  
3'an, cadiztarrak elizkizun eder bat antolatzen du-  
te, bi gertaera ospatzeko: bata, irudiari azken agu-  
rra egitea; bestea, Pio VII Aita Santuak Jesusen  
Lagundia berpiztutzeko baimena eman du, eta  
orregatik Jaunari eskertzea.

Berriz ere itxasoz, irudia Cádiz'tik Donosti'ra  
dakarte. Orren aitamena emeretzi eta ogeigarren  
bertsoak egiten dute. Urriaren 23'an, 1815'ean, iri-  
txi zan. Ogei ta batgarren bertsoak dionez, Iturria-  
ga zeritzan bat izan zan errezibitzen. Donostiarrak  
etzioten irudiari nolanaiko arrera egin, ogei ta bi  
eta ogei ta irugarren bertsoak aditzera ematen du-  
tenez; eta Santa Mariko aldare nagusian jarri zu-  
ten.

Ogei ta laugarren bertsoak dionez, sei milla  
errealeko gastuak egin dira. Zer gastu ziran oiek?  
Irudia, itxasoan zer gerta ere, aseguruatu egin omen  
zan. Baiña ain baliotsua izanik, dirua nork zeu-  
kan? Onela dio Aita Leturia'k:

*«...los bascongados residentes en aquella plaza se apre-  
suraron a costear el «seguro» de la estatua durante la nave-  
gación, el cual asciende a 4.800 reales, que por expresa*

*voluntad de los aseguradores se habían de invertir en una solemne función «que se haga al Santo a su recibo en San Sebastián». La estatua estaba a punto de llegar; pero ella (la Diputación) no tiene dinero. Por lo cual urge al Cabildo de Azpeitia a que se ponga al habla con el Ayuntamiento; y entre ambos reunan y envíen cuanto antes los 4.800 reales para la función solemne exigida; y... «que a falta de otro fondo, pudiera valerse de la limosna recogida para los Jesuitas». Todavía no habían llegado los Jesuitas a Loyola...».*

Ogei ta bost eta ogei ta seigarren bertsoak aitzazen dituzten Elizalde eta Inazio Mari oiek ez dakigu nor izan ziran.

Jesuitak berriz ere Loiola'n bizitzeko baimena, 1816'ko martxoaren 12'an eman zuan gobernuak. Berrogei ta bederatzi urte ziran andik falta zirala. Apirillaren 29'an lau jesuita datoz.

Urte bereko garagarrilean ekarri zan irudia Donosti'tik Azpeiti'ra, bideko erriak arrera ikusgarriak egiten zizkiotelarik; eta uztaillaren 14'e an eman zitzaion Loiola'ko Aita Nagusiari. Azken bertsoak dionez, «santuak arkitu du lenenko tokiya». Baiña bertso orrek berak esaten duan bezela, ibillera luze oiek etzioten onik egin.

Esan degunez, leen aitatutako bertso-paperetan, eskuz idatzitako eraskiñetan, batean 1828 ageri da bertso auek jarri ziran urtea; eta bestean, 1816. Auzia bigarrego onek irabazi duala ematen du. Gaia or bukatzen baitzaie bertsoei, santuaren irudia Loiola'n sartzen danean alegia. Andik aurrerakorik ez baitute ezer ere kontatzen,

Ibilli bearrak eta ixtillu berriak andik lau urtera izango zituan ostera ere irudiak: 1820'an, jesuitak berriro erbestera bialtzen dituzte, eta beren onda-

sun guziez gobernua jabetzen da. Beste gauza askoren artean, zillarrezko irudi ori Gasteiz'era eramaten dute, eta an salgai jarri. Ori jakin bezin laister, Azpeiti'ko Udalak irudia erostea erabakitzen du, «*al precio que fuera*». Gurutze eta kustodia baten truke lortzen du ori. Geroztik, Azpeiti'ko erria omen da irudi orren jabea. Azpeiti'ra ekarri eta parrokian jartzen dute, Soledadeko kapillan. Bertan egon zan, 1823'an jesuitak berriz etorri eta Loiola'ra eraman zuten arte.

Loiola'tik irten bearra daukate osterara ere jesuitak 1841'ean, eta irudia Azpeiti'ko parrokira berriro, jesuitak atzera Loiola'ra etorri arte. Ori 1852'an gertatzen da, eta irudia Azpeiti'tik Loiola'ra. Joan-etorriak ez dira bukatzen: 1855'ean, Azpeiti'ra; 1856'an, Loiola'ra; eta 1868'an, Azpeiti'ra.

Azkenik, 1880'an Loiola'ra, eta andik ez da geiago mugitu, ezta 1936'ko gerratean ere, orain denbora gutxi konpontzera eraman arte.

\* \* \*

Beste galdera bat egin diteke: zergatik argitaratzen dira osterara bertso aukerak 1877 urtean?

Jesuitak España'tik erbesteratu joan bearra daukate 1868'an. Baiña 1872'an karlisten gerratea asten da, eta karlistak Loiola'ko ateak zabaltzen dizkiete. Loiola gerra-ospitala biurtzen da, eta berak



ango kapellautza egiten dute. Gerra bukatzen danean, ordea, 1876'an, karlistak galdu baitute, jesuitak berriz ere Loiola'tik kanpora.

Urrengo urtean, 1877'an, Madrid'ko gobernuak Gasteiz'ko gotzaiari ematen dio Loiola'ko ardura, eta onek bi jesuita izendatzen ditu ango kapellau izateko. Gero lau izango ziran, eta urrena amabi.

Jesuitak Loiola'ra etortzeko irrikitzen egongo zirala esan bearrik ez dago. Aal zituzten artu-emanak ere erabiliko zituzten, ori lortzearren. Eta, bearbada, bertso aukerak ere berak berriro argitara araziko zituzten, eta bein baiño geiagotan gaiñera, erriaren gogoia berotzeko. Au dana gure susmo bat besterik ez da noski.

Baiña 1879'an, Elgoibar'en eman zituzten mi-xioetan, azken sermoian eskaera au egin zioten jesuitak jendeari:

Jesusi egiteko  
guziyok erregu,  
Konpañikoak ditzan  
Loiola'ra bildu.<sup>1</sup>

Andik urtebetera lortu zuten ori, 1880'garren urteko garagarrillean.

---

(1) Ikus: *Auspoa*, 164, 94 orrialdean.

**«AITA SAN INAZIO LOIOLA'KOA...»**

1/ Aita San Inazio  
Loiola'koa,  
Azpeitia'ko seme  
paregabekoa,  
Gipuzkoa noblea  
onratutakoa,  
orain ekusten degu  
ezin sufritua,  
merezi duen onran  
dago gelditua.

2/ Biba Azpeitia'n ta  
biba Azkoitia'n,  
San Inazio degu  
bide erdian.  
Gizon ona degu  
Bernardo txikia,  
len ere egiña da  
berari guardia,  
orañ ere badago  
zerbaiten premia.

- 3/ Aita San Inaziok  
bere konbentuba,  
gure Jesus maiteak  
du adornatuba.  
Jaun ark ala izanik  
merezimentuba,  
artu bear degu  
urrikimentuba,  
beti presente dauka  
guztion kontuba.
- 4/ Aita San Inazio  
konbentutik arturik,  
Madrilla eraman zuten  
gurdian sarturik.  
Baña ez nintzan gelditu  
esperantza galdurik  
ikusiko ez genduala  
Loiola'ra itzulirik;  
ala gertatu da ta  
gaude txit pozturik.
- 5/ Aita San Inazio  
eraman zutenean,  
negar gozorik bazan  
Loiola aldean.  
Erromerian izan da  
ekarri dutenean,  
berealartu dute  
andetan aidean,  
oraintxen para dute  
paraje onean.

- 6/ Gizonak bezela  
entregatu zuten,  
bere anaien artean  
ipiñi zuten.  
Alako gauzarikan  
pentsatzen etzuten,  
besoa ausi eta  
konpondu zioten,  
ala ere Azpeitia'n  
estimatu zuten.
- 7/ Aita San Inazio  
orain Azpeitia'n  
adoratzen dutela  
dago sakristiyan.  
Beti bezela dago  
bere presenziyan,  
ala iruritzen zat  
nere iritziyan,  
urrikiturik gaude  
joan dan aspaldiyan.
- 8/ Aita San Inaziok  
milagro aundiyak,  
egin izandu ditu  
txit arrigarriyak,  
Maria Santisimak  
emanik graziyak.  
Bakarrik ezin esan  
nik diran guztiyak;  
ark irabaziko ditu  
oraingo auziyak.

- 9/ Aita San Inazio  
Loiola'n zan jaio,  
España'n bada ta  
obra bat badago,  
ikusgarri andi au  
Azpeitiya'n dago.  
Zenbait agindu naian  
munduban badago  
oraingo pasadizoak  
arriturik nago.
- 10/ Aita San Inazio  
irugarren aldiyan  
konbentutik arturikan  
da erromeriyen.  
Kuidado orregatik  
urrengo aldiyan  
ez ditezkean ipiñi  
gauza oiek neurriyan,  
ez ibilli orrekin  
gaur txorakeriyan.
- 11/ Aita San Inazio  
gure probintzian,  
bera bezelakorik  
ez dago España'n.  
Gogoan oi daukat  
joan dan aspaldian,  
len ere egona da  
leku estalian,  
milagroen bat begira  
berak ez dagian.

12/ Orra amabi bertso  
oraingo berriyak,  
Aita San Inaziori  
emen ipiñiyak,  
ala obligaturik  
oraingo premiyak,  
gezurrikan gabe  
diranak egiyak,  
beti bearko dute  
aren inbiriyak.

Bertso auek, moldiztegi-izenik gabeko papere-  
tan argitaratu ziran. Paper oietako bat Chicago'n  
dago gaur, Bonaparte printzipearen bilduman.

Bigarren bertsoak «Bernardo txikia» aitatzen  
du. Aurreko saillean ere agertu zaigu gizon ori,  
Aita Leturia'k eta Aita Lasa'k Fernando esaten  
badiote ere. Abizena Erauskin zuan. Gizon ori  
leen ere egiña zegoan San Inaziori guardia, baiña  
zerbaiten premia bada orain ere, bigarren bertso  
orrek esaten duanez.

Amargarrenak dionez, San Inazioren irudia  
irugarren aldiz ibilli da erromerian, konbentutik  
artuta. Ortik somatu genezake bertso auek noiz-  
koak diran. Irudi ori Loiola'tik atera zuten leenen-  
go aldia, 1794 urtean izan zan, *guerra de la Con-  
vención* deritzaionaren garaian, frantzesen a-  
tzaparretatik libratzeko. Bigarrena, 1812 urtean,  
orduan ere frantzesak aren billa baitzebiltzan.

Irugarrena, 1820'an izan zan. Riego jeneralak  
urteberri egunean bere matxinada egin ondoren,

abuztuaren 14'ean, jesuitak España'tik erbestera bota zituzten, eta gobernua egin zan Lagundiaren etxe eta ontasunen jabe. Leen ere esan degunez, irudia eta beste zenbait gauza, Loiola'tik Gasteiz'era eramán arazi zituan, eta an salgai jarri. Ori jakiñik, Azpeiti'ko Udalak idatzi bat bialdu zuan, irudia berak erosiko zuala adieraziz, «*al precio que fuera*». Idatzi ori Gasteiz'tik Madrid'era bialdu zuten, eta andik baiezkoa etorri zan, Fernando VII'ren firmarekin, irudiaren truke gurutze eta kustodia bat artuta. San Inazioaren irudia ez, baiña idatzia izan zan, beraz, Madrid'eraíño iritxi zana. Bertsolaria pixka bat naastu egiten da orrekin. Laugarren bertsoan «Madrilla eramán zuten gurdian sarturik» esaten baitu.

Azpeiti'ra erromerian ekarri zuten irudia, bostgarren bertsoan adierazten danez; eta parrokian Soledadeko kapillan jarri, Aita Leturia'k esaten duanez. Bertsolariak dionez, berriz, sakristian. Baiña biak ondo ari dira. Kapilla ori, aldare nagusiari begira jarri ta eskubira dago. Aste santuko irudiak antxe gordetzen dira, baita Soledadeko Ama Birjiña ere, eta ortatik izen ori. Baiña sakristira ere badu ate berezi bat, eta aren zati bat dala ere esan diteke.

Seigarren bertsoak, irudiak besoa autsita ekarri zuala dio. Baiña konpondu ziotela.

Irakurlea oartuko zanez, San Inazioaren irudiaren ibillera onek ez du frantzesekin zer ikusirik. Ezta bertsoak ere, beraz. Baiña aurreko saillaren jarraiera bezela baitira, liburu ontan jarri nai izan ditugu.

**DONOSTIYA'KO GAZTERIYAK  
AMODIO ONEZ IRUN'GO ERRIYARI  
MOLDATU DIYOZKAN KANTAK**

**Euskaritxoa**

*«Biba Irun ta biba,  
biba iruntarrak»  
beti esan biar du  
española danak;  
aspalditik onera  
izan diran gerrak,  
dirade egi (y) onen  
testigu onenak.*

- 1/ Agorraren ogei ta  
amaikagarrena  
da Irun'ek izan duen  
egunik onena,  
sartu nai zutenian  
frantzesak barrena,  
berrirotzera lengo  
beren oroipena.



2/ San Martzial mendiko  
tontorra arturik,  
frantzesak bere ustez  
etzeukan bildurrik;  
an ziran iruntarrak  
ikara gaberik,  
altxa gabe etzuten  
utzi eriturik.

3/ Ikusirikan Freyre'k  
ain jende azkarra,  
maite izango zubela  
ziyon iruntarra;  
etziyotela galdu  
gizon bat bakarra,  
eta *de aqueste pueblo*  
oroituko zala.

4/ Noblia ta leiala  
zan Irun lenago,  
bañan orain baditu  
titulu geiago;  
bada mundu guztiya  
jakintsuba dago  
oroitu dala Irun'ez  
errege Fernando.

5/ Ondo mereziyena<sup>1</sup>  
eta ekargiña<sup>2</sup>  
Irun-Uranzu dala  
da gauza jakiña;  
eman du paperetan  
errege Fernandok  
beti onla deitzeko  
Irun'i guztiyok.

6/ Su-tunpa emateko  
Irun'i urtero  
Donostiya'ra ordena  
etorriya dago;  
San Martzial egunez  
egiteko suba,  
zeren beti izan dan  
Irun indartsuba.

7/ Alkate jauna eta  
beste Jutziziya,  
egitera gatoz gu  
alegiñ guziya;  
beti onela izan da  
gure Donostiya,  
eta txit maite degu  
Irun'go erriya.

---

(1) *Benemérita*. (Bertso-paperaren oarra.)

(2) *Generosa*. (Id)

- 8/ Orain festa asi bedi,  
ekarri zezenak,  
eta lenengo bota  
diraden onenak;  
Sentimientos, Bolero,  
Ortiz ta Zapata,  
begirozute nola  
egiten dan lana.
- 9/ Ez lepo-atzerikan  
zula zezenari,  
bestela zuben kontra  
or izango naiz ni;  
lege oi dan bezela  
bazerate ari,  
etzaizkizute bibak  
paltatuko zuberi.
- 10/ Orra al degun bezela  
Donostiya'koak  
bertso abetan esan  
Irun'go kontubak;  
ezertan utzi bada<sup>3</sup>  
jendiak barkatu,  
amodiyoz beteta  
etorri gera gu.

---

(3) Lerro ontan «ezertan utsegin bada» edo olako zerbait bear-ko luke, gure iritzirako beintzat, neurria silaba batez luzatzen bada ere.

Bertso auek, Aita Jose Inazio Arana zanaren bildumatik ditugu, moldiztegi-izenik gabeko kanta-paper batetik.

Izenburuak, bertsoak nork nori eskeiñiak diran adierazten digu.

Bertso auek diotena ongi ulertuko bada, argibide batzuk eman bearrak dira.

Españolak, Freyre jenerala buru zutela, Irun'go erria 1813'ko ekainaren 30'ean artu zuten, frantzesak Bidasoa'ren beste aldera bialduta. Bi illabete an egon ziran bi etsaiak, ibaiaren bazter banatan, alkarri arpegi eman ez.

Baiña abuztuaren 31'n –agorra esaten da bigarren bertsoan–, ain zuzen inglesak Donostia artu eta kiskaldu zuten egunean, frantzesak, Soult jenerala buru zutela, Bidasoa igaro eta eraso latza jo zuten. Etsai gogortxo topatu zuten, ordea, eta jipoia artuta bueltatu ziran. Ori izan zan San Martzial'ko bigarren burruka-aldia.

Leenbizikoa, 1522'ko ekainaren 30'ean gertatu zan, gipuzkoarrak frantzes eta aleman gudarozte bat garaituta.

Bigarrenko au gertatu eta andik lau urtera, Fernando VII erregeak izenburu berriak eman zizkion Irun'go erriari:

*«...por la Real Orden de 28 de Julio de 1817, en gracia a los méritos contraídos por la villa en aquella ocasión, en que auxilió eficazmente a los heridos, y teniendo en cuenta otros muchos servicios que prestó durante la Guerra de la Independencia, se concedieron a Irún los títulos de muy Benéme-*

rita y Generosa, que vinieron a unirse a los de Noble y Leal que antes tenía.»<sup>4</sup>

Noblia, Leiala, Ondo-mereziyena eta Ekargiña itzultzen ditu izenburu edo *titulu* oiek bertso auen jartzailleak.

Beste agindu bat ere eman zuan erregeak egun orretan: kañoiak «su-tunpa emateko Irun'i urtero», *una salva de artillería* alegia, garaipen orren oroigarri. Seigarren bertsoak aitatzen du ori.

*Real Orden* ori artutakoan, festa aundiak prestatu zituzten irundarrak, bertso auek diotenez. Zezenak ere jokatu ziran. Toreatzailleen izenak zortzigarren bertsoak ematen ditu. Eta donostiarrak, bertso auek paratu eta festa-usaira biltzeko prest agertzen dira.

Baiña bertso auek nork jarriak dira? Garai artan, Jose Bizente Etxagaray (1773-1855) zan Donostia'ko jartzaillerik ugariena<sup>5</sup>. Inglesak Donostia erre zutenean moldatu zituanak, liburu ontan ditu irakurleak. Ura ote degu, beraz? Ditekena da noski. Baiña besterik gabe segurutzat ezin jo.

---

(4) Ricardo Izquierdo: *Irún. Pequeña Biografía de un pueblo del Bidasoa, San Sebastián, 1970.*

(5) Ikus: *Auspoa*, 35-36.

## «JAUN TXIT ARGITU EDO ILUSTRE...»

«Jaun txito argitu edo ilustre Don Frantzisko Longa eta Antxia, erregeren martitzdi edo ejerztitubetako mariskal, San Fernandoren Ordia Errial eta gudatarreko Zaldun, Bitorija eta San Martzialeko batalletako, baita bere zazpigarren soldadi edo ejertzituko labaru, lauburu edo kuru-tzez apaindu, Bilboko uriko armen agintarijari eta a. eta a.».

Onela asten da sermoi-liburu baten itzaurrea. Liburu orren izenburuak auek dira: «*Urteko domeka guztijetarako berbaldi ikasbidekuak, zeintzubetan azalduten dan Erromako katezismua. Eurretan aurkituko dabe arima-zain euskaldunak, euren elextar edo feligresai predikadu biar deutsen ikasbidia; baita bere kristinau euskaldunak, zer jakin eta zer egin biar dabeen. Konponduba Aita Fr. Pedro Astarloa S. Frantziskubaren seme, lektore jubiladu, Burgosko Probintzijako Aita eta Kantabriako definidoriak. Bigarren liburuba. Bilbon:*

*D. Pedro Apraiz-en moldategian. 1818. Biar dirian eskubidiakaz. Saltzen da lenengo liburubagaz, Bilboko San Frantziskuko atarte edo porterijan».*

Egillea, beraz, Aita Pedro Astarloa. Agertu zan urtea, 1818'garrena. Frantzestearen gertaerak bero-bero zeuden artean, eta gerra artako testigantza ederra ematen digu.

Aita Astarloa'k, kantauritarren kondaira edo leiendak kontatzen ditu leenengo. Ondoren onela dio:

«Bai, Don Frantzisko Longa jauna, argi-argitan ifini dau mundu guztijen begijetan, berorren zanetan irakiten daben odola antxinako kantauritarrena dala. Bost urte iraun eban Oktabiano Augustok gure erri oneetan egin eban gerriak; eta bost urte iraun dau Napoleonek egin deuskunak; eta orduban areek Erromako agintarijaren kontra sendo egon ziriana legez, alaintxe berori ifini da murru irme bat legez Napoleonen aleginen kontra. Batuten dituz al daizan martitzak, eta irakatsirik onei ze gerra modu egin biar jaken frantzesai, abijetan da eurai ekiten, antxina gure gurasuak erromatarrai legez. Ezaguturik etziriala berorregaz eukazanak apur puska bat baño arerijuen albuan, ezta eurakaz arpegiz-arpegi ifinten, eztituz berorrenak ateraten ibar zabal, landa, zelai eta aran andijetara; ezkutetan da mendi, muru, atxarte eta oijanetan; aintxe dago zelataka frantzesik agiri bada, eta ikusirik eztiriala igaroten dirianak berorrenak baño guztiz geijago, etxuten da beingo-beinguan euren gañian, birrinduten ditu, banatuten ditu, eta kentzen dautse daroiena. Jaki-

nik zenbat konbeni dan gerran arerijuen asmu eta goguak ezagututia, ifinten da bide ondoko okelu ezkutubetan zelata, eta ikusirik frantzesen bialdu, mandatari edo korreoren bat irago biar dala, urte-ten deutsa uste-uste baga bidera, ilten dituz jaoliak edo eskoltia, artzen ditu katigu postarijak, kentzen deutsez dakarrezan paperak, eta bialdurik nagusi eta agintarijai, dakuzez argitan frantzesen gogo eta asmubak.

Eta zenbat arerijo il, zatitu eta katigatu eztitu modu onetan? Eun da iru izan zirian Friasko zubi-  
jan birrindu zitubanak; irurogeta bat Deskargan; eun da larogei Cabezonon; berreun da berroge ta amar Portugalete eta Somorrostron; laureun iruroge ta amazpi Pankorbo eta Bribieska artian; zazpireun Sedanon; bosteun berroge ta iru Asperiletan; irureun eta amaeka Pozan... Baña nora nua? Zelan nik aituten emon neikez frantzesakaz euki dituzan errijeta guztijak, il deutsezan gizonak, kendu deutsezan ondasunak, eta egin deutsezan kaltiak? Zelan, onetarako erabili dituzan bidiak, galdu dituzan gauak, aratu dituzan mendi, baso, larra, sasitza, aldatz, meaka eta bide zigorrak? Arraijo bizi bat eginik dabil batetik bestera; ain laster Bizkaijan, ain laister Gipuzkuan, ain laster Araban, ain laster Gaztelan, ain laster Montañan, ain laster Tobalina, Losa, Cabuerniga eta beste leku askotan, jakin al baga arerijuak nun dan edo nundik nora dabilen. Alanbere, ezin esan bage itxi neike Urduñoko atxeko zelatakadia.

Jakin eban berorrek andik irago biar ziriala berrogeta amairu burdi, frantzesen ondasunez be-



terik; nai leuzkijuezan kendu, baña ez jakan erraz, ez eukazalako berorregaz eun da amar zaldizko eta irurogei oñezko baño; burdijak jaoten etozanak, barriz, zirian bosteun eta berrogeta amar. Zer egi-ten dau bada berorren zurtasunak berorren gogua-gaz urteteko? Batuten dituz albait isilen mendigu-renian, eta bidien parian arri eta atx pilo andijak, eta dago zelataka noz iragoten dirian frantzesak burdijakaz. Eltzen dira oneek atx eta arri pilo parera, eta abijetan dira berorrenak atx eta arri urtika. Arri eskergak eta atx ikaragarrijak datoz mendija beera bilinbolaka. Eztakije frantzesak, ez zer jazoten jaken, ez nundik datoza arri eta atxak, ez nok jaurtigiten dituzan, ez mendijak sus-traitik urten ete dabeen ala ez, ez luikararen bat izan ete dan ala ez. Eztakije zer egin, nora juan edo ze modu artu, eta dagoz geldi-geldi, subil bat eginik. Atx andi batek iruliten dituz burdi bat edo bi, eta ilten dituz euren idijak; arri bildurgarri batek daruaz beragaz mendija beera zortzi edo bederatzi zaldi euren zaldizkuakaz. Emen datzaz zaldi batzuk estiak darijuezala, an idi batzuk zapal-durik. Batetik ikusten dira gizonen gorputz il, bu-ru, oin, beso eta iztar bagak; bestetik, gizon, zaldi eta idi trimendu eta zapaldubak, dirianen antzik bere baga. Guztija da negarra, garrasija, uluba, zispuruba, aijarija, intzirija eta diadarra. Nai leu-kee iges egin frantzesak, baña eztauke nundik, bada alde guztijetatik dirautza esetsijaz arri eta atx urtikiari, ain zarratu, ze bizirik urten eben puskak ez eben euki beste iges egiteko modurik, euren burubak aldatz beera amilka eta jirabiraka botatia

baño. Laureun eta larogei frantzes geratu zirian illik, eta itxi zitubezan berorren eskubetan zazpi milla pare zapata, bost milla martitz-soñeko, eta lau kutxa urre-galoe eta gerrari apaingarriz betarik. Zelatakada oneekaz, bertatiko agertute, erijotza, katigatute eta eroiena kendute oneekaz ain eukazan olloturik arerijuak, ze etzirian asartuten inora juaten, ez bidian ibilten, jendadi guztiz andijak ezpazirian, antxinako kantauritarrak Oktabianoren soldadubak bildurturik eukezana legez.

Nai leukien frantzesak kendu begijen aurretik ainbeste gatx egin eta ain atsegin gitxigaz eukazan arerijua, eta zer egiten dabe onetarako? Erromatarrak denpora baten bizkaitarrakaz egin ebeena. Batuten ditubez al daijezan gerrarijak, eta aginduten deutse sartu deitezala guztijak batera Longa urigantia<sup>1</sup> dabilen lekura, eta jarraitu deijuela, ilik edo bizirik artu artian. Ain egozan seguru ezin inundik bere iges egin leikiala, ze eldu zan euren arrokerija agindutera predikadu eijela arimazain jaunak elexako pulpitubetan: «Ija dago banaturik Longa urigantia; ezin bururik jaso leike; bakar-bakarrik geratu da, eta juan da igesi, inok ez-takijan lekura». Eta zetan geratu zirian panparrrekerija oneek? Augustoren aleginak kantauritarren kontra geratu zirianian. Sartzen dira Longa daguala uste dabeen lekubetara, al daijen isilen duaz, alde guztijetatik zarratu eta estutubagaz, eta uste

---

(1) Izen onegaz dei egiten eutsen frantzesak mesprezaz. Ikusi bedi nire anaija D. Paulo Astarloak dinuana izen onen ganean, *Apol, de la leng. basc. fol. 217-218.* (Astarloaren oarra.)

dabeenian guztijen erdijan daukeela, eztabe aurkituten atx, larra, sasi, arantza, arri edo orbel pilo bat baño. Modu onetantxe darabiltz, burla zar beste gauzarik atera baga, ezpada nekia, lana, izerdija eta gogaitutia.

Usteko dau benturaz norbaitek Don Frantzisko Longaren zelataka eta bazterrik-bazter ibilte au bere ollokerija eta bildurra zala; baña jakin begi au sinisturik daguanak, onetantxe adi erazo ebala bere zuhurtasun eta jakiturija. Ekusan batetik ze gitxi zirian beragaz eukazanak; bestetik bere martitz edo soldadubak, sartu barri legez, sorrik eta urduriturik egozana; eta, onezaz ostian, guda edo gerra-lanen apurrik jakin baga; nai eban bada modu onetan ibilijagaz batu ekijozan geijago, kendu ekijuen edo gitxijenez gitxitu urduritasun eta sortasuna, eta ikasi egijen zelan ekin biar jaken arerijuai. Onetan ez eban beste gauzarik egin, arako gerrari andi Fabiori jarraitu baño. Ain izan zan galgarrija erromatarrentzat Canasko guda edo battalia, ain geratu zirian bildurrez ikara, entzun ebe-nian Flaminio ainbat lenen edo printzipalen eta neurriezgarri martitz edo soldadu geratu ziriala ilik, ze uste izan eben ekusela Anibal Erromako ateetatik barrura sartzen. Estura larri onetan ez eben aurkitu beste modurik euren uriko barrutijak jaoteko, Fabio andija nagusi bakar edo diktadore autu edo eskojietia baño. Eta zer egin eban gizon zuhur onek? Etzan juan artez kartagotarrakaz pelietara; etzan asi eurai esetsiten, etzan ifini leku zelai eta aran zabaletan; ebilen leku segurubetatik batetik bestera, luzatuten ebala alegin guztijagaz

eskubetara etortia, geitu zeitian modu onetan bere jentia, galdu egijen arerijuai eutsen bildurra, gixitu zeitezan kartagotarrak eta eldu zeitezan gogaitutera. Nai leukeen Anibal eta beriak erromatarrak peleadu egijen. Onetara ekarteko esaten eutsen Fabiori; gizona bazan eta zinuen lezko gerrarija, urreratu zeila eurak gana, ifini zeila ibar lau eta zelaijetan, eta neurtu egizala bere indarrak kartagotarrenakaz; au egiten ezpeban, ezagun zala ollo bat zana; baña ezaguturik Fabiok ez eguala arerijuai ekiteko, ez eutsen jaramonik egiten, ez bakarrik eurai, ezta erromatarren esamesai bere; baña eldu zanian biar eban jentia eukitera, eta oitu zituzanian bere martitzak kartagotarren bildurrik ez eukitera, guztijai adi erazo eutsen ze osasuntsuba izan zan luzatute au, bada beronegaz bota eban Anibal Italiya guztitik.

Auxe berau egin eban Don Frantzisko Longak bere. Guztiz zirian gitxi lenengotik eukazan martitz edo soldadubak, eta ez euken oneek arerijo ainbat gerratan ibili bati arpegi emoteko biar zan bildurreztasunik; baña luzatute eta ibilte oneekaz, ain modutan geitu eban bere gizadija, ze eldu zan eukitera zortzi milla oñezko, milla zaldizko eta amabi kaño euren tresna guztijakaz; eta, au gutxi balitz legez, zabaldu zituzan bere ardurak itxasora bere, eta ifini eban ontzidi edo eskuadratxu bat arerijuen kontra; errijeta txikiakaz oitu zituzan frantzesak ikusi eta eurakaz sendo pelietara, eta irakatsi eutsen zelan gerria egin biar zan. Arti atan, frantzesak esan eta burla egin arren, urigante dollor, prestubez, bildurrez igesi ebilen bat zala, ez

eutsen jaramonik egiten, Fabiok Anibal eta karta-gotarren burla eta esanai jaramonik egiten ez eutsena legez. Baña arako geitu jakonian bere jentia, eta gertu egoanian, aurrez-aurre arpegi emon eutsen frantzesai, ikusi zana legez Bilbo, Bitorija, Tolosa, Yantzi, Irun, Bera, Azkain eta beste leku askotan, arerijuak España guztitik urten artian.

Orra ze argi-argi irakutsi daben Don Frantzisko Longa jaunak<sup>2</sup>, antxinako kantauritarren seme dana, ez bakarrik bijotz andi, bular sendo, beso indartsu eta bildurrezgarrijan, baita bere berorren kristinautza eta jaijotz-lurraganako amodijuan; bada eztau atseginik euki egunez, ez gauez, ain laztan dituzan bi oneen arerijua Españatik kanpora ikusi artian. Ezaguturik gure errege jaun Don Fernando zazpigarrenak berorrek irago dituzan lan eta nekiak, egin dituzan egitandi edo hazañak, eta bere Anditasunaganako irakutsi daben amodijo erre eta zintzua, apaindu dau Bitorija eta San Martzialeko batalletako, baita bere zazpigarren ejertzituko labaru, lauburu edo kurutzia kaz; egin dau San Fernandoren ordia errial eta gudatarreko zaldun, eta eregi dau bere exertzitubetako mariskal izatera. Guk bere, berorren erritarrok, ezaguturik daukaguz berorrek eta berorren gerra lagunak egin deuskubezan mesediak. Oneen artian eztaukagu txikinenentzat erlijinoe kristinau, geure asaben fede ta siniste katolikuban geratutia, bota-

---

(2) *Jauna* idatzita dago Astarloaren liburuan. *Jaunak* bear du gure iritzirako, eta orrela jarri degu.

rik gure artetik doe zeruko au kendu edo gixijenez ilundu gura euskubeenak. Erlijinoe onetako misterijo, agindu eta sakramentubak gure erritarrak jakin daijezanen gurarijak artu erazo deust eurak al daidan argijen azalduteko lana. Liburu onetantxe dauka euskeraz berorrek ainbat lan, neke, izerdi, gaubela, ibilera eta ainbat erijotzako pelleburuz zaindu daben legia. Berorri opa deustat. Ziur nago gogo on eta borondate osuagaz artuko deustala, izanik erritar eta auzo baten iskinija, egonik eskribidurik berorren gurasuandik ikasi eta berbaz asi zanian euki eban euskeran, eta izanik bere geija umetxutatik ikasi, bizi guztijan sinistu eta berorren ondasun, zorion eta onrarik andijenentzat euki dabena...».

Longa onek, Frantzisko Tomas Antxia zerritzan. Baiña Mallabia'ko Longa baserrian jaio zan, 1783'ko apirillaren 10'ean; eta bere jaiotetxearen izenaz deitzen zuten. Oso gazterik, Burgos'ko La Puebla de Arganzón errira joan zan, errementeri batean lanean asi, eta nagusiaren alabarekin ezkondu. Gerra asirik, eun bat gizonen talde baten buru jarri eta gogor eraso zien frantzesei. Sarritan gudukatu zien. Emen zeazki kontatzen dana, Orduñakoa da; 1810'ko urriaren 24'ean gertatu zan ori. Longa gerrari au 1831'an il zan.

## JUAN INAZIO IZTUETA'REN TESTIGANTZA

*Milla zortzi eun ta zortzigarren urtean  
Napoleonek saldukeriaz Españan sortu zeban  
guda kaltarkitsu bidebagekoaren azaldurea*

«Gure errege maite maitagarria Karlos laugarrenak bere seme nagusi Fernando zazpigarrenari España guztiko agintza, eskubideak eta koroia gogoz edo gogo bage emandako egun oroigarri aetan, bertako biztanleak pozkida betean arkitzen zirala, Napoleon-ek bere jakinduria andi ezkutapetsuaren bidez artu izan zituen asmo estali galgarriak, miruak txituari atzaparra ezarteko egin oi dituen bezalako jira birakin, erresuma gain gaineko au zorabiatu eta nasiturik bereganatutzeko.

Españaren onerako adiskidetasun andian zetozelako iduripenean, martizti izugarriak etorri ziran, Murat agintari zutela. Napeoleon-ek beste gauzarik gogoan zeukala sinist-erazo zeban, ezik,

Españako portu ta gaztelurik aurrengoetan bere tropak kontu-artzalle ifinirik, beretara etortzea galarazo bear ziola ingelesari, artu-eman ta saldu-erosien aitzakian zerabilen ibillera sarritangoa Frantziarekin Españarentzako guztiz kaltarkitsua zalako.

Gizon jakinti somari au egiazko naitasunarekin leialkiro zebillelako uste oso betean, Españak obe bearrez plazarik bikañenak utzi ziozkan bere eskura; eta oen jaun ta jabe egindakoan, zirriki marrika asi zan bere barrunpe lizunean zeukan matxura gordea agertaratzen, beraren asmo galgarriaz iñor ere oartzen etzalako ustean. Bañan Españan baziran gizon ernaiak, Napoleon-ek guretzako gauza onik etzerabilela ezagutzen zutenak, oen argitasunak eta onbideak denpora illunpeko artan asko balio ezpazuten ere.

Napoleon-ek Paris-tik gaztigatu izan zion, bada, Fernando zazpigarrenari Madrillera, ezik, España guztiaren onerakoak ziraden gauza balio andiko anitz zeuzkala berarekin bakar bakarrean itzegin bearrekoak, eta irten zekiola Bitoria-ra, beraren zorientasunari zegozkion onbideak artzera.

Fernando jauna etorri zan Bitoria-ra, Napoleon-ek izendatu zion egunerako, bañan au gelditu zan Baionan, eta emendik biraldu zion mandatua berriro, esaten ziolarik, ezen, bere eginkizun neurri bagekoak eragozten ziotela Bitoriara etortea, eta joan zekiola bertara, non itxoroten zegoen beraren etorrerari.

Fernando zazpigarrenak bere alboan zeuzkan



ministroai bigarren aldiako gaztigu au adierazo zienean, ezagutu zuten oek garbiro, Napoleon-ek asmo onik Espñaarentzako etzerabilela, eta esan izan zioten beren errege maiteari, biur zedilla berpertatik Madrillera bere goienengo jarlekura, nondik Napoleoni entzungo zitzaiozkan bere esakariak. Bañan Fernando erregeak etzituen ontzat artu ministroen esanak, eta erabaki zeban itsu itsuan Baionara joatea. Azkenik, kotxea bear bezala prestatu arkitzen zala, errege Baionara abiatzeko une berperean, Bitoriako jende leialak, bertan geldierazoko zutelako uste oso betean, ubalak epakirik kendu ziozkatzen mulak kotxeari, bañan onbidezko egin-al oek guztiak etzuten deus balio izan.

Geroenean ere, Fernando zazpigarrena, Españaako errege buru ta agintari bera zan bezala, joan zan Baionara Napoleon-en atzapar garratzetara, jarraitzen ziotelarik leialkiro beraren ministro, probintzia askotako diputadu eta beste andizki anitzek, zer gertatu bear ote zitzaioten ezin somaturik, beldur andian atsekabez beterik. Bereala Napoleon-ek beregana deitu zeban Fernando bakarrik; zeñari bertan utzierazo ziozkan, iñorekin ere egoteko lekuri eman bage, Españaako koroia, eskubide ta agintza guztiak arras, gelditzen zebalarik bera Frantzian, alik eta egiteko onetatik gertatu al zitezkean okerbide guztiak zuzendurik beren oñean ifini bitartean; eta onen ordeztartzen zebala Jose Napoleon bere anaia España guztiaren jaun ta jabe, nagusi ta errege, bear zituen eskubide guztiakin. Orra zeñ aixa eta ausardi andian Fer-

nandori Españako koro bere berekia kendurik, Napoleon-ek eman izan zion bere anaia Joseri, jatorritik berari legez ta bidez bazetorkion bezalako urgulluarekin.

Fernando gaitzik bagekoa ustez ustekabeko buruzpide negargarri onetan arkitu zanean, joan zitzaien bere ministro, diputadu eta andizki Españatik jarraitu ziotenai, esatera zer gertatu zitzaion Napoleon-ekin, eta egin zezatela al zuten modurik oberena, Españako jende leialaren artean odolik ez ixurtzeko. Arri ta zur egiñik jaun prestu oek gelditu ziran, bada, Fernandoren aotik barri aiñ galgarria entzutean, eta ezin gogorragoko lantze estura larriko artan toki arrotzean arkitu ziran, zer asmatu eta zer egin etzekitela.

Guztiaz ere bigaramunean, Gipuzkoako, Arabako, Bizkaiko eta Nafarroako diputadu jaunak alkaturik aurkeztu zitzaiozkan Napoleoni, esaten ziotelarik, ezen: «Jauna, gure errege Fernando zazpigarrenak aditzera eman digu, Españako erre-suma andiaz jabetu dala bedori. Beragaitik gatoz, bada, Bedorren Mesedea jakiñaren gañean ifinterra, gure lau probintzia berezituak noiztik, zeren bidez eta zer itzen azpian jarriak dauden Gaztelako erregearengana; eta uste oso betean arkitzen gera, entzungo dizkigula gogoz ta donarioz geren esakari bidezkoak». Eskatu bezalaixen eman zien leku Napoleonek lau diputaduai itzegiteko; zeintzuben ifini ziozkaten begien aurrean argi ta garbi eta zearo, beren denpora guztian gozaten zituzten gallaldia maitagarri, jatorrizko oitura eta eskubide beren berenkiak, Españako

erregeak zuzenkiro beti oparo gorde izan diezate-nak.

Diputadu oei beren esakuntza entzundakoan, Napoleon-ek erantzun zien, ezik, Españako probintziak jatorriz dituzten oitura ta eskubideak galtzeko asmorik etzebala artu izan beñere, ez eta artuko ere; eta berpertatik jarriko zebala gizon jakintsunakiko Batzar bat, gauza oen sustraia non-dik nora zetorren ondo ikusirik, berari kontu emateko itzaren azpian; eta oek beren eginkizuna bear bezala betetakoa, gordeko zitzaiola nori bere eskubidea utsaldiarik bage. Españako koroia aiñ erraz Fernandori kendu izan zion Napoleon andia, bere indar guztiakin etzan ausartatu probintzia oei beren oitura eta eskubideak ukatzera, gogoaz bestera bazan ere,

Napoleon-ek, bere anaia Joseri Españako koroia emandakoan ere, ezagutzen zeban argi ta garbi gertatu zekizkiokeala okerbide andiak, bertako jendeak artuko zeban atsekabetasunaren bidez; eta biztanle leial oek palakuz txurikaturik nai zeban guztia egingo zebalako ustean, asmatu zeban beste sortkari bat, esaten zebalarik, ezen, Jose erregearen serbitzari guzti guztiak izango zirala Españako jaiotarrak, eta ez frantzesik bat bakarra ere. Bañan etzitzaiozkan asko baliatu bere asma-kari zalagartuak.

Españako jende ondra andikoa mindu zan lazki Napoleon-ek bere gogoz ta eskuz izan zituen neurri bidebageko oezaz; eta beraren kontra asaldatu ziran erresuma andi onetako probintzia guztiak.

Gipuzkoatar leialak arkitzen zirelarik aurrenen

aurrenengo atakan, bertako plaza, gaztelu eta erri-rik bikañenak frantzesak bere menpean zeuzkala, irten ziran mendi goitituetara samaldaka, gerora begira egon bage lendabizikotik, al zuten kalte guzia etsaiari egitera. Mutil oetakorik eunetatik bat ozta izango zan, mendira joatean su-arma zebanik, zergaitik frantzesak aginde gogorren azpian bildu izan zituen kanibeta zar akastun erdoituenerañoako guztiak lendanaz. Bañan guztiaz ere, mendi-mutil oek zelatalekuetatik etsaiari zintzoro kontu eginik, era egokia zetorkiotenean, berari portizkiro eraso ta kentzen ziozkaten armakin jar-ten ziran gudari errutsu Jesus-garrengo.

Frantzesak ikusi zebanean Gipuzkoako jendea zeren bidez eta nola gogortuaz zijoakion, España-ren lendabiziko atakan zegoelarik, artu zituan asmatu-al zitzakean neurririk ezopeenak, mendi-mutillak beren etxeetara erakarriko zituelako uste oso betean. Mutil oen guraso, senide eta aiderik urrenekoak arrestaturik, sartzen zituen ziega illunetan. Eta menditarretakorik iñoiz edo berriz gertatzen bazan etsaiaren eskuetan erortea, bereala ill ta ifinten zituen zintzilika jenderik geiena zebillen tokian, bide andiaren ertzean, geiagok ikusteagatik. Gisa onetako ilkintza bat edo beste egiten zutenean, beraren aide ziega illunean zeuzkatenak, eramaten zituzten Frantziara sekula beteko.

Oek eta beste onelako odolgirodi bide bageko anitz eginaz, Napoleon-ek nai zituzkean Gipuzkoako mendi-mutillak beldurtu eta ikaraturik beren etxeetara erakarri-erazo; bañan bere jakinduria andi eta indar guztiakin ere etzeban atera izan

lakarik. Napoleon-ek zenbat eta gogorrago artzen zituen gipuzkoatarrak, oek anbat eta geiago ta goaltsuago mendietara zijoatzen beraren kontra. Gizon jakinti ernai txit argi onek etzeban ondo ikusi, eta are gitxiago ezagutu bear bezala, gipuzkoatarrak beren bizileku goixoa garbiro gordezkeko jatorritik duten eresia portitza. Baldin begiratu izan balie oarrez ta artezaz antziñako gertaera gogoangarriai, beretan ikusiko zeban argiro, probintzia leial au jarri izan ez tala gogorrean beintxu ere erbestekoen uztarripean. Ordea Napoleoni bere arrokeria andi eta urgullu geiegikoak sinist-erazo izan zion, bazitzakeala egin munduko gizon-ek oraindaño egin ez dituen gauzak. Beragaitik, denpora batez leoi panparroiak kirkir ele kemen gitxikoaz ainbat ardura Napoleon-ek artzen zeban Gipuzkoako mendi-mutillaz; bañan azkenean ari igaro zitzaiona berpera gertatu izan zitzaion oni ere.

Gipuzkoatarrak beren oitura beti betikoaren bidez gizon ta mutil samalda andiak mendietara igorik, denpora laburren epean egin ziran erru andiko soldadu. Egiñeratu ziran iru batallotaraño, lenago esan dedan moduan, frantzes soldaduai or emen kendutako armakin ondo ornituak. Jarri zuten diputazio berria berari dagozkion eskubideekin, zeñari obeditzen zioten Gipuzkoako erri guztiak, batzubek agirian eta besteak ixillka. Frantza lendabizitik asi izan zan, mendi-mutillen zuzenbidea gal-eragiteko, asmatu-al zitzakean gogortasunakin egin-al guztiak egiten, briganteen izen lotsagarria ematen zielarik, beren jaiot-erri onetsia

eta jatorrizko oitura gozoak oso ta garbi gorde naiean legez ta bidez zebilltzan gizon ta mutil ondra andikoai. Itz bide onetxek oroit-erazo dizkit esakera bi antziña antziñakoak, euskaldunen artean txit ezagunak, eta gaiari guztiz egoki dagozkionak:

Gure katuak buztana luze,  
nor bera bezala besteak uste.

Nork nori?  
Pazi zarrak pertzari:  
«Ken adi, ipur beltz ori».

Gauza jakiña da, bada, baldin Napoleon-ek bere ibillera bidebagekoai begiratu izan balie ondo, *brigante*-en izenik gipuzkoatar prestuai etziela emango. Ordea, indarrez bidebagekiro goititurik urgullu andiarekin arkitzen zalako, iduritzen ziztaion beraren erranak eta egitadeak ziradela egiazkoak, eta onak baiño ere are obeagoak.

Iduripenezko asmakari oen videz eraso zion probintzia oni, beste España barruko guztiai baiño ere portizkiago, Frantziaren lendabiziko muturrean zegoelarik obeditzen etziolako, eta guztia beingoan arras iruntsirik aixa menperatzeko uste oso betean. Bañan gipuzkoatar artezak ez diralako aketsak, gezurtatu zituzten Napoleon-en lozorro ames trakesak.

Probintzia onetako mendi-mutil errutsu azkarrak, lenago ere bai, ta iru batalloitarano igo ziran ezkeroztik, Napoleon-en martizti ezopeaz ixekatzan ziran non-nai. Frantzesaren aurretik beartu izan zan, Gipuzkoako mugapean bide andiaren inguruan arkitzen ziran zuaitz guztiak botatzera, oen babesetik menditarrak kalte andiak egiten ziozkatelako; ordea, toki soil agirikoetatik ere orobat erasotzen zioten gipuzkoatarrak. Ikusirik, bada, etsaiak lanbide onekin etzebala asko aurreratu, somatu zeban bereala, erri batetik besterako bide luze samar goituetan gaztelu sendo irme gogorrak egiñeraturik, beretan soldadu talde andiak ifintea; bai ta jarri ere esan bezelaixen, bañan alperrik. Zergaitik, mendi-mutill gogorrakin ezin buruatu zutelako, igestu bearrean arkitu ziran erri andi-arkietara, bide bazterretako gaztelu portitz egin berriai zeuden zeuden bezala lagarik. Gisa berperean, Gipuzkoako erri txiki gaztelurik bageko guztietatik ere bota zituzten ariñ aski, beretara berriz joateko gogoak kendurik; eta jarri ziran mendi-mutillak beren diputazioarekin noranai ardura bage zebiltzala, eta non-nai jendea, zer jana eta osterontzeko gauza preminazko guztiak, probintziako fuero ta oituraz batera, ateratzen ziztuztela, legez ta bidezko eskualde guztiak berekin zeuzkatelako. Denpora berean Napoleon-en soldadu zintzarri andiakikoak Gipuzkoako mugapean ikusi izan ziran, bide andiaz kanpora oinkara bat bakarra ere eman nai etzutela menditarren beldurraz.

Ustez ustekabe sortutako guda luze kaltarkitsu

au ikusitako guztiak badakite ondo, nola Kadiz-en urrerañoko probintzia guztietara frantzes samalda andiak iritsirik, beretan arreatutako soldadu españatar anitz ekarri oi zituzten bide askoan Gatzagako gañeraño osotoro; eta mendi tuntur onetatik Irun-Urantzungo arraiaraño ozta-ozta eramaten zutela ogeititik bat, eta zenbait aldiz bat bakarra ere ez; zergaitik Gipuzkoako mendi-mutil errutsu azkarrak unetik unera or emen frantzes talde andiai bidera irtenik, portizkiro eraso ta arras banaturik kentzen ziezaten España barruan atzemanik zekartziten soldadu urrukigarriak. Oetako zenbat eta zenbat ikusi izan ziran probintzia onetan, bertako menditarren ausardi pare bagekoaz zoraturik gelditu izan ziranak bertan, emengoakin batean frantzesari ekiteko pozkida betean?

Gisa onetako azaña andi askoren bidez Gipuzkoako mugapea lasaiturik, bertako mendi-mutillak joan izaten ziran beren bizitokiaz kanporako probintzia askotara, etsaiari erasotzeko leku eroso billatzeko pozaren pozez; eta beretan esturarik larrienean arkitzen ziraden asko ta asko atera izan zituzten lanze gogor irrisku andikoetatik.

Egia garbiro onen sinist-menerako galdetu bai-zik ez da Araban, Bizkaian, Nafarroan, Santoñan, Santander-en, Asturias-en, Galizian eta Aragoian; zeintzuben autortuko duten argi eta garbi, bertako erri ta mendietan egin izan zituztela Gipuzkoako iru batalloiak Napoleon-en soldaduen kontra jazarra andiak. Guztietan gogoangarriena, nere ustez, izango da, Aragoiko mugapean arkitzen dan erri Sos deitzen zaionak esan dezakeana; zeñak bere



izate guztia Gipuzkoako mendi-mutillai zor dien, oek gauak egun egiñaz bide luzean ariñ-ariñka joanik ta gallendua zegoen frantzes talde andia menperatu zutelako.

Aipatu ditudan itzpide guztietan arrigarriena da, Frantziaren lendabiziko atakan arkitzen dan probintzia labur onetako mendi-mutillak, Napoleonen indar ezopeaz ixekaturik, beren jaiot-erri maitagarria lasaitasun andian ifini eta beste probintzia askotara joanik, azaña aiñ oroitkarriak egitea. Izendatu ditudan egikera andi oek ikusi bageko edozein gizonek esan dezake errazkiro, ezin izan leikean gauza dala, Gipuzkoako menditarrak beren bizitokiari lagarik Galiziarraño eta Nafarroa guztia igarorik Aragoira joatea. Ordea, ikusi izan genduenak badakigu ziertoro egiazkoak dirala Gipuzkoako iru batalloiak egindako ibillera nekoso eta egikera andi oek. Asko aldiz gertatu izan zan, bada, menditar oek gaur Nafarroara bazijoatzen, bigar Bizkaira eta etzi Santanderko ondoan aurkeztutzea, nondik nora zebiltzan eta zer asmo zerabilten, Napoleon jakintsuaren morroirik ernaienak ezin somatu zutela. Geronerako batalloi oek jarri ziran kanpo agirikoan billatzen zuten frantzes guztia porrokatzen zutela, esaera dan bezala:

Frantzesaren sarrera  
arroa ta ergela;  
urtutzen da bereala!

Jose Napoleon ere errege-izen bidebagekoare-  
din etorri zan Españara, dunba andiari zirrin-za-

rran ots izugarria eragiñaz; bañan bostgarren urterako, berreun milla ta geiago gizon bertan utzirik, iges egin bearra izan zeban Frantziara ixiltxorik.

Gipuzkoako seme leial menditarrak  
alkar maite dute txit gazte eta zarrak;  
jatorriz diralako prestu ta azkarrak,  
egin izan zituzten alako jazarrak».

\* \* \*

### *Makilkariak*

«Gipuzkoan beti izan dirade makilkari azkarrak, eta txit sendagaill edo balore aundikoak, ala beren artean nola alfajedunen kontra, eta oekin peleatu izan diraden guzietan irten dirade garaitpenarekin...

Azkenengo frantzestean, Ernialden bizi zan Bautista bidanitarrari joan zitzaiozkan bere etxe-atarira Tolosatik bi frantzes gudari ollo lapurretara beren alfaje aundiakin, eta bien kontra peleatu zan portizkiro Bautista makillarekin. Alfajeaz ematen ziozkaten kolpeakin txit moztuzteraño ekarri ziotenean makilla, otsegin omen zion emazteari bota zegiola anka tartera gelako atearen atzean zegoen beste makilla lodiagoa, eta onek aren esana egin bezain laister, eskuetan zera-billen moztua etsaien batari begietara tiraturik, bestea anka tartetik altxatuta, berarekin zatitu omen zituen ezur ta mami frantzes biak, lurretik jekitzeko gai etziraden moduan; zeñean iges egin

bearra izan zuan Bautistak bere emazte eta umea-kin al zuen tokira, ondoreatze gaiztoen beldu-rraz...».

\* \* \*

Atal onen izenburuan ezarri degun bezela, Juan Inazio Iztueta da idatz-zati oien egillea. Leenengoa, luzeena alegia, *Gipuzkoako probintziaren kondaira* (1847) liburuaren atal bat degu; bigarre-na, berriz, *Gipuzkoako dantza gogoangarrien kon-daira* (1824) liburuaren zati bat.

Idazle au 1767'an jaio zan, eta 1845'ean il. Beraren denboran gertatu zan frantzesteko gerra-tea. Orregatik esaten du: «ikusi izan genduenak badakigu ziertoro egiazkoak dirala...». Aitorpen baliotsua ematen du, beraz, guda ura zer izan zan. Ala, beraren testigantza ori etzegoan, gure iri-tzirako beintzat, liburu ontatik baztertzerik.

## «TXIKITAN AITU NIYON...»

Txikitan aitu niyon  
-gogoan det ongi-  
txori baten kontuba  
nere amonari.  
Zenbait far egin niyon  
kontutxo zar arri!

Txori bat izan zala,  
ez dakit nik nola,  
kixkaldu eta gero  
berriz pixtu zana.

Bañan sekulan ere  
ez ziraden esan,  
bizitu zan ezkerro  
zein bidetan joan zan;  
ordutik ibilli naiz  
topatzen al dedan.

Bart arratsian, bada,  
lotan neguela,  
iruritu zitzaidan  
ikusten nubela.

Itxasoaren erditik  
altxatutzen zala,  
egalak astindurik  
ifarraren gañera,  
buruba zuzendurik  
zeruba jotzera.

Buztan luma luzea  
bere diñakoa,  
lurrean zabaltzen zan  
kolore askokoa.

Mokoan gurutze bat  
bi banderarekin,  
bata zan txit oriya  
arrai gorriakin;  
bestea eder zuriya  
laurden urdiñakin.

Esnatu naizenean  
an zegoen txoriya;  
txoriya ez zan besterik  
baizik Donostiya;  
betiko biziko da,  
beraz, gure erriya.

Bertso auek *Diario de San Sebastián* egunkarian agertu ziran, 1878 urteko iraillaren 11'n, *Lelo* izenordeaz izenpetuta.

Egunkari orrek berak esaten duanez, urtebete leenago, 1877'ko iraillaren 9'an, oroitarri bat jarri zan Zubietako Aizpurua etxean, 1813'ko iraillaren 8'an bertan bildu ziran jaun ospetsu edo *umanten* goratzarrerako. Aiek izan baitziran, Donostia berri zutik jartzeko asmo sendoa artu zutenak.

Oroitarri ori ipintzea eta agertzea zala-ta, jaialdi eder bat egin zan Zubieta'n, eta orduan kantatu omen ziran bertso auek.

Emen aitutzen dan txori ori, leen ere esan degunez *fenix* egazia da; erre eta bere errautsetatik ostera pizten zana. Donostiaren irudia, beraz.

*Lelo* dalako orrek, beste olerki bat bialdu zuan urrengo urteko Zubietako jaialdirako. Onela esaten baitu *Diario de San Sebastián* orrek, 1878'ko iraillaren 16'an:

«...el Sr. Soraluze leyó la poesía vascongada que en el día anterior recibió por correo bajo el pseudónimo de Lelo, cual otra en la inauguración de 1877 sobre el mismo asunto».

Baiña bigarren olerki ori ez degu inun ere arkitu.

## BERTSO BERRIAK

- 1/ Milla zortzireunekin  
amairugarren urtian  
gerra bat izandu zan  
Españi partian;  
desgraziya gogorrak  
askoren kaltian,  
Donostiya erre zan  
txit malamentian,  
irurogei ta bost urte  
ezta apartian.
  
- 2/ Frantzesia España'ra  
traiziyoz zan sartu,  
Madrill'a juan da errege  
preso zuten artu;  
zaragata gogorrak  
emen ziran sortu,  
baña kontrariyuak  
zitzaizkan agertu,  
arro etorri arren  
laster zan bildurtu.

- 3/ Ustez Españaia'ko  
buru zan frantzesa,  
arren kontra etorri  
baizan ingelesa;  
anparatzalle txarra  
etzan portugesa,  
bestia erretiran  
estu eta presa,  
etzuen azkenian  
len aña grandeza.
- 4/ Pesadunbria maiz-ta  
gerrako lanian,  
kulpa gabiai kargak  
bota geienian;  
ordenak partitu gabez  
errespeto onian,  
Aguztuaren ogei ta  
amaikagarrenian,  
.....  
.....
- 5/ Donostiya'rako zan  
egun itxusiya,  
ondo dakiyenakin  
nago ikasiya;  
nundik-nai sakioa  
eta desgraziya,  
gauza amabilia da  
personen biziya,  
Zubieta'ra etorri zan  
ango Justiziya.



6/ Nola izan zan desgrazi  
orren ondoria,  
publikatzeko dana  
badet poderia;  
gauza galduak beti  
badu doloria,  
ziudade guziyak  
erre-koloria,  
estantzi estu artan  
aien baloria!

7/ Tristura gogorra zan  
nere iritziyan,  
beren ondasunakin  
betiko etsiyan;  
etziraden egongo  
txit pazientziyan,  
ziudadia jarri nai  
lengo dezentziyan,  
Aizpuru'n junta egin zuten  
Agorran zortziyan.

8/ Zerbait disimulatzen  
lengo desgraziya,  
enpeñatu zirala  
dago ikusiya;  
jueza ta konsula  
eta Justiziya,  
kabildo ta bezino  
kuadrilla guziya;  
etzuten zelebratu  
obra itxusiya.

- 9/ Formal egitekotan  
alako kasuak,  
Justiziya ta konsula  
ziran prezisuak;  
bezino jaunak ere  
gizon balerosuak,  
gañera sazerdote  
relijiosuak,  
biyotzian ukitu  
Jaun amorusuak.
- 10/ Tristura gogorra zala  
nago igarriya.  
Besterik zer egongo zan?  
Ondarra ta arriya.  
Erreunitu ziran  
egiteko berriya,  
len zan bezin dezente  
or dago jarriya,  
ziudade formala,  
txit gustagarriya.
- 11/ Paperak orain dira  
errekonozitu,  
Don Nikolas Soraluze'k  
billatuak ditu;  
Aiuntamentuari  
dizka prebenitu,  
gero Gobiernora  
dute akuditu,  
milagro bat bezela  
zaie iruditu.

- 12/ Ikusirikan obra  
ain arrigarriya,  
igez ta aurten egin da  
festa bat berriya:  
Aizpuru'ko etxiari  
arturik neurriya,  
arri marmol eder bat  
dute ekarriya,  
numeraturik dago  
dezente jarriya.
- 13/ Festa zelebratzen da  
ondo dan moduan,  
meza eta sermoia  
tokatzen dan graduan;  
kargua eman zuten  
leku seguruan,  
Don Nikolas Soraluze  
an zan inguruan,  
pentsamentua franko  
bazeukan buruan.
- 14/ Soraluze'k egin du  
bere alegiña,  
ondo deklaratzuten  
bada zer egiña;  
musika ta bertsolari  
eta danboliña,  
komediante moduko  
kuadrilla bat fiña,  
aumentua're bazan  
nai genduben aiña.

- 15/ Zubieta'ko bezino  
estimagarriyak,  
leialtadiaz daude  
gogotan jarriyak;  
modu oiek argatik  
daude etorriyak,  
aitormena dutela  
gaude igarriyak,  
sijnifikantza dauka  
Aizpuru'ko erriyak.
- 16/ Orra erregaliya  
Donostiya'k egin,  
Zubieta'ko jendia  
akordatu dedin;  
gauza onak errezibitzen  
beti da atsegin,  
graziyak eman nairik  
ondo ezin itzegin,  
gaitz erdi iñorekin  
ez banu utsegin.
- 17/ Donostiya'k Zubieta'ri  
beti amoriyo,  
berak leialak izan  
dirala meriyo;  
beñere ezta izandu  
oien kontrariyo,  
señale bat ederra  
egin du seriyo,  
elkar estimatzia  
ez da misteriyo.

18/ Orra bertsuak jarri  
euskerak klaruan,  
ikasten ditubenak  
eduki goguan;  
lenago gauza ori  
ixilik zeguan,  
azaldu biar zana  
nola emen nagan,  
Alkaiñ'en predikua  
orra nun dagan.

Leendabizikoa bertsoak esaten digunez, irurogei ta bost urte ez dira apartean, Donosti'ko erria erre zala. Beraz, urte oiek 1813'ri erantsita, 1878 urtea degu.

1877 urtean, Nikolas Soraluze kondairalariak *Memoria* edo idazlan bat agertu zuan Zubieta'ko batzarrari buruz. Amaikagarren bertsoak itzegiten du orrezaz.

Urte berean, amabigarrenak dionez, Aizpurua etxeari «arri marmol eder bat» erantsi zioten, 1813'an an egin ziran batzarren oroigarrirako, jaialdi ederrak ospatuz: «igaz ta aurten egin da festa bat berriya».

1878'ko festa zer izango zan, *Diario de San Sebastian* egunkariak adierazten du, urte artako iraillaren 12'an, jaialdien *programa* aurretik argitaratuz:

## Parte primera

«El 15 del corriente mes de Septiembre, domingo, habrá misas rezadas, por extraordinario, en la basílica del barrio de Zubieta.

La misa solemne la celebrará el Pbro. D. Ignacio Múgica, comenzándola a las diez de la mañana, y será presidida por el Sr. Alcalde pedáneo del mismo barrio, cuya comitiva la formarán el Sr. Soraluze como encargado del Excmo. Ayuntamiento de esta Ciudad de San Sebastián para todo lo concerniente a la organización y dirección de esta función cívico--religiosa, juntamente con algunos señores vecinos de Zubieta.

El orador sagrado, el Pbro, D. Isidoro de Bengoechea, predicará en vascuence.

La charanga y el tamboril, alternativamente, a las 9 y media de la mañana tocarán primero en frente de la fachada principal de la casa Aizpurua, en que se halla la gran lápida conmemorativa dedicada a aquellos héroes en 9 de Septiembre de 1877, y, satisfecho este acto de justo homenaje, después recorrerá hasta las 10 las inmediaciones de las casas centrales del barrio e iglesia, ejecutando aires de cantos euskaros.

Celebrada la citada misa cantada, el Alcalde pedáneo y su comitiva, con la demás de la concurrencia, pasarán al son de la música y del tamboril al frente de la preindicada fachada principal de la casa Aizpurua.

Ante ella, los trovadores vascongados, hijos de la contigua villa de Usúrbil, que espontáneamente se han ofrecido al Sr. Soraluze, ofrecimiento que ha aceptado con gratitud en nombre del Excmo. Ayuntamiento, don Manuel de Sagarria (a) Olloquiegui, octogenario del cabello tan blanco cuanto sonora voz y aún potente inteligencia y memoria; y don Juan José de Alcain (a) Udarregui, respetado aun entre los mismos poetas, cantarán versos euskaros en loor a los insignes patriotas de las memorables Actas celebradas en los días 8 y 9 de Septiembre de 1813 en el salón de aquel frontispicio y lápida. Ambos son de los 4 poetas de los

*certámenes euskaros celebrados el 15 de Agosto próximo pasado y 9 del corriente en San Sebastián. Tal será la parte primera del programa».*

## Parte segunda

*Después del cambio completo de decoración y aspecto, merced al satisfactorio desempeño de las interesantes funciones gastronómicas, para lo cual la isla Urbitarte, allí situada, es tan pintoresca cuanto apropiada, la música y el tamboril recorrerán de nuevo desde las tres y media en la misma forma que a la mañana.*

*Seguirán a esta excitante llamada para la juventud, aurrenencus, o sea zortzicos, y después bailes del país en la plaza pública en varias agrupaciones al son de la música, alternando con el del tamboril».*

Amalaugarren bertsoak esaten duana, beraz: «musika ta bertsolari eta denboliña». Onela jarraitzen du:

*«Se jugarán partidos de pelota a rebote y a blé en oportunos intervalos, singularmente desde el medio día hasta las tres y media de la tarde.*

*Una media docena de los más aventajados jóvenes de los discípulos del señor don Marcelino Soroa, que dirigirá los ejercicios gimnásticos de la barra, desde 4 a 5 de la tarde, tocando en espacios dados la música, contribuirá también a dar mayor variedad a esta función cívico-religiosa de Zubietta, que ha de ser perpetuada como gloriosa memoria dedicada a aquellos insignes patricios que, en los días más aciagos para San Sebastián, nos dejaron tan gratísimo legado».*

Soroa ori, euskal antzerkiaren alde ainbat lan

egindako idazlea degu. Gimnasia-eskola bat izan zuan Donostian, eta bere ikasle gazte oiek izango dira amalaugarren bertsoak aitatzen dituanak: «komediante moduko kuadrilla bat fiña».

Jaialdiak iragarrita zeuden bezela eta ezin obeto ospatu omen ziran, *Diario de San Sebastián* orrek iraillaren 16'an adierazten duenez. Bertsolariengatik onela dio:

*«Inspirados y muy felices estuvieron durante las 11 1/4 a 12 del día ante la lápida conmemorativa los antedichos trovadores Sres. Sagardia y Alcain...»*

*Frecuentes y nutridos fueron los aplausos que en aquel local merecieron dichos Sres. Sagardia y Alcain, lo mismo que a la tarde en las reuniones de la misma casa Aizpurua y en otra allí cercana. ¡Bien por estos bardos euskaros!».*

\* \* \*

Leen esan danez, Udarregi ori Alkain zan abizenez: Juan Jose Alkain Iruretagoiena, 1829'an jaio eta 1895'ean illa. Aren bizitza eta bertsoak, bere 56'garren zenbakian argitaratu zituan *Auspoa*'k. Baita sail au ere. Baiña liburu onen gaiak berriro emen agertzea eskatzen du, berari buruz aal ditugun argibide guziak emanaz.

Bertsoen egillea Udarregi dala, azken bertsoak esaten du: «Alkaiñ'en predikua orra nun dagoan». Abizen ori zuan beste bertsolari bat izan zan Urnieta'n. Baiña 1877'an jaioa. Gaiñera, bertso auen beste bi iturri ere badaude, eta oiek «Udarregiren



predikua» edo «Udarregiren itzaldiya» esaten dute.

Esan degunez, 1878'ko iraillaren 15'eant, Udarregi antxe zan Zubietan bertso kantari, Ollokiegi bertsolaria lagun zuala. Bertso auetan esaten dituanak ere, geienak beintzat, antxe jasoko zituan. Soraluze eta beraren idazlanaren aitamenak nola egingo zituan, bestela, irakurtzen eta idazten etzekian batek?

Alboan zuan bertsolari lagunak ere zerbait esango zion gai ortaz. Ollokiegi orrek, izan ere, larogei urte omen zituan 1878'an; amabost urte, beraz, Donostia erre zanean.

Orregatik esango du bosgarren bertsoan: «ondo dakiyenakin nago ikasiya».

\* \* \*

«Bertso-sail au, Jose Aranburu zanaren etxetik jaso degu. Len ere esan degun bezela, jaun au Usurbil'ko organista zan, eta «Jose Txiki» esan oizioten izengoitiz. Beragana etortzen zan Udarregi, bertsoak jartzeko asmoak artutakoan».

Orrela esaten genduan *Auspoa*'ren 56'garren zenbakian, Udarregiren sail onen aurretik, ondoren onela jarraituz:

«Bertso auek eskuz idatzita daude, ta puntu asko, lendabizi jarria zegoana tatxatu ta gañetik berrituta daude. Bañan guk lenengo era jarri degu,

bigarrena oarretarako utzirik. Puntu berritzeari euskera garbitzearren ekin diotela ematen baitu».

Aldi ontan, berriz, oarretan ez, baiña emen ezarriko ditugu aldaketa oiek:

1/7: arritzeko moduan; edo: arritzeko zerate; 1/8: nola entzutian; 1/9: Donostiya ere erretzeraño; 1/10: bada azkenian; 3/5: orobat etorri zan; 3/6: bada portugesa; 3/7: orduan erretiran; 4/1: Naigabia, Desgraziya; 4/2: gerra dagonian; 4/5: ordenak kunplitu gabez; 4/7: Donostiya erre zuten; edo: Donostiya erre zan; 4/8: San Roman egunian; 5/5: nundik nai lapurreta; 5/6: negar karrasiya; 5/9: nork esan zenbatek zuan; 5/10: orduan utziya; 6/3: adierazteko dana; 6/9: istillu gorri artan; 6/10: ai zer naigabia! 7/7: zitudadia jartzearren; 8/4: bada notiziya; 8/6: baita Justiziya; 8/8: onradua guziya; 8/10: junta itxusiya; 9/9: eman zituzten danak; 9/10: biar ziran pausuak; 10/2: gauza ikusiya; 10/5: asmua artu zuten; 10/7: len baño ere ederrago; 12/8: dute erantsiya; 12/9: Juantako jaunen onran; edo: jaun aundi oien onran; 12/10: txit ondo jarriya; 13/4: Santiagoren onduan; 13/5: oroipena izateko; 13/6: betiko munduan; 13/7: aditutzen danian; 13/8: gertatu zana orduan; 13/9: negar malko samiña; edo: errukizko sentimentua; 13/10: sortzen da barruan; 14/1: Donostiarrak egiten dute; 14/2: beren alegiña; 14/7: Aiuntamentua ere bai; 14/8: da gauza jakiña; 14/9: Zubieta'n juntatzen zan; 14/10: kuadrilla atsegiña; 14/7: Zubieta'n juntatzen da; 14/8: kuadrilla atsegiña; 14/9: Aiuntamentua ere bai; 14/10: da gauza jakiña; 15/1: Donosti'ko jendien; 15/2: ongi etorriak; 15/3: ta borondati az daude; 15/9: aditzera ematen du; 16/7: graziyak ondo emanaz; 16/8: nai litzake itzegin; 16/9: estimatu ondo ta; 16/10: ez albait utsegin; 17/3: bera leiala izan; 17/4: dalako nai diyo; 17/8: diyo egin seriyo; 18/5: lenago kondaira; 18/6: atzendua zeguan; 18/7: berritu biar dala; 18/8: jarri zait buruan; 18/9: Udarreiren predikua.

Bertso auen beste kopia bat, eskuz idatzita nos-

ki, geroztik ere eskuratu degu, Donostiako Anbro-  
sio Zatarain jaunaren eskutik jasota. Amabost  
bertso ditu. Iru falta, beraz: 11, 15 eta 16'garrena.

Gaiñontzeko aldaketak: 1/1: Milla zortzireun eta; 1/7:  
arritzeko moduan; 1/8: nola entzutian; 1/9: Donostiya erre-  
tzeraño; 1/10: bada azkenian; 2/5: naspilla txit gogorrak;  
3/3: baña arren kontra etorri; 3/5: igualmente etorri zan;  
3/6: bada portugesa; 3/7: orduban erretiran; 4/1: Naigabia  
maiz da; 4/2: gerra dagonian; 4/5: ordenak kunplitu gabez;  
4/7: Donostiya erre zuten; 4/8: San Ramon egunian; 4/9:  
aguztubaren ogeta; 4/10: amaikagarrenian; 5/5: nundik-nai  
lapurreta; 5/6: negar karraxiya; 5/7: iñola eziñ aldegiñ; 5/8:  
ura desgraziya; 5/9: zenbatek utzi zuan; 5/10: erreta biziya;  
6/3: adierazteko dana; 6/9: istillu gorri artan; 6/10: ai zer  
naigabia; 7/7: zitudadia jartzearren; 8/4: bada notiziya; 8/6:  
baita Justiziya; 8/8: onradu guziya; 8/10: junta itxusiya; 9/5:  
bezino jaunak eta; 9/9: eman zituzten denak; 9/10: al ziran  
pauzuak; 10/2: gauza ikusiya; 10/5: asmua artu zuten; 10/7:  
len baño ere ederrago; 12/1: Ikusirikan orren; 12/2: erri  
eder aundiya; 12/3: urte oro egiten zan; 12/8: dute eran-  
tsiya; 12/9: Juntako jaunen onran; 12/10: ederki jarriya;  
13/1: Festa zelebratzen zan; 13/3: meza ta sermoiakiñ; 13/5:  
oroipena izateko; 13/6: betiko munduban; 13/7: sermoiyan  
esatian; 13/8: gertatu zana orduban; 13/9: errukizko senti-  
mentuba; 13/10: sentitutzen da barruban; 14/1: Donostia-  
rrak egiten zuten; 14/2: beren alegiña; 14/7: Aiuntamentu-  
ba ere bai; 14/8: da gauza jakiña; 14/9: Zubietara juntatzen  
zan; 14/10: kuadrilla atsegiña; 17/3: bera leiala izan; 17/2:  
dalako nai diyo; 17/6: bada kontrariyo; 17/8: diyo egiñ  
seriyo; 18/5: lenago kondaira ori; 18/6: atzenduba zeguan;  
18/7: berritu biar dala; 18/8: jarri zait buruan; 18/9: Udarre-  
giren itzaldiya.

## ZER NITZAN? ZER NAIZ?

Len txikia eta itxusia,  
orain ederra eta aundia,  
Donostia!

«Milla zortzi-eun ta amairugarren urtean, Napoleonen gudariak edo soldaduak gelditzen ziran Donostian eta Iruñen edo Panplonan, azkenekoak bezela. Irunen, Ondarrabian eta Oiartzunen jabe egiñak zeuden españatarrak, ala nola beste Gipuzkoako inguruetan; eta Naparroan ingelesak eta portugesak, elkarren lagunak gudan edo gerran, Napoleonen jendearen kontra.

Donostiako guarnida lau milla frantzes geiagorekin izan zan indartua. Gerrarien nausi gidari jeneral ingles Graham'ek, alaz ere, inguratu egin zuen bere jende eta portugesakin.

Ibai Urmea edo Urumearen eskui aldetik eragin azi zuen bateri sall bat, irikiaz bide gorde bat Pasaia aldetikan ibaiaren eskiñaraño.

Frantzesak zeuden San Bartolomeko bapildean (konbentuan), zazpi edo zortzi eun kanara Donositikan. Inglesak gogoz egiñ arren suba lurreratu arte guztia, frantzesak egon ziraden txit zeken, eta azkenerako bear izan zan baionetaz garaitzea. (*Uztaren amazazpian.*)

Andikan denbora gutxira, Graham ingelesak ausi zuen erriko murrua edo muralla bi aldetatikan, bialduaz mandatua erriko gobernariari errenditzeko, bañan ez zuen nai izandu onek mandatuarekin joan zana aditu ere. Guztiz asarraturik ingelesa eginde onekin, agindu zuen urrengo egunean bertan (*uztaren ogei ta seia*) eraso eta asaldatzeko.

Asi ziran bada alegiñ guztian, bañan izandu zan alferrik lenbiziko aldian.

*Uztaren ogei bostetik aboztuaren bia* bitartean sei milla ta zazpi eun gizon galdu omen zituzten gure aldekoak, eta frantzesak oraindik geiago.

Alkarren aldeko soldadu españatarrak, ingelesak eta portugesak, bazezateken berriro asi ta estutu geiago Donostiaren ingurua, eta ala, illaren *ogei ta seian* ausi zuten berriz sua. Arrats berean artu zuten Santa Klara ugartea edo isla. *Ogei ta amarrean* iriki zuten murrua, lengo biak geiago zabalduta.

Onela gelditu ziran beste ekiñ aldea egiteko urrengo egunean.

Egun au argitu bañan lenago, amaseitik emezortzian milla frantzes zetozten Donostira, beren lagunetara ustez; bañan San Martzialen eta inguruan zeuden guretakoak, eta purrukatu zituz-

ten aurreratu nairik asi ziranean. Egin zuten ala ere bigarren saiua, ekarririk sutunpa edo kañoi asko, bañan gelditu ziran lenengo aldian bezela. Oraindik, irugarren aldian ere, nai zuten beriarenkin atera, bañan alperrik izan zuten len bezela. Beren etxe aldera joan biar izan zuten, nai bañan nekezago.

«Gure aldetik -zion D. Manuel Freire agintari aundienetatik batek-, *eun ta irurogei eta bat gudari aurren* (ofizialiak), *bi milla lau eun eta irurogei ta bi soldadu* galdu ditugu. Geiago askorekin izan dute frantzesak, izan diran bezela botiak iru bider alde guztietatik».

Eziñ izan zitekian bada frantzesak alkar laguntzia, eta, esan dan bezela, *illaren ogei ta amaikan*, ekin zioten berriro gurietakoak, aurreratuaz beren lurupairak (trintxerak) denbora bateko Miserikordi etxera eta Santa Kataliñako pasioraño.

Goizeko amaiketean zijozen ingelesak Uru-mearen ezker aldetik, portugesak asaldatzen zuten bitartean, eskuieko murruba ebakitzera.

Beste uste gabeko gauza batek egiñ zioten mesere aundia ingeles eta portugesak.

Zan au, suak artzea muralla ondoan zeguen zertegi edo almazen batek, soñu aundiarekin dana ondatzeraño.

Frantzesak orduan, zer gertatzen zan jakiñ ez da ikaratu ziran gogotik, nastutzeraño bakoitza bere aldera. Itsasi ziran gaztelura, ingelesai utzita zazpi eun gizon arrapatuak (prisioneruak).

Bi milla gizon bezela galduko zituzten ingelesak eta portugesak.

Orain arrituko da jakiten duena zer gertatu zan ingelesakin, eta zer egin zioten Donosti barrengo jende gaixoari, sartu ziranean barrena.

Lapurretak, eriotzak, sinist ezin ditekela, egin zituzten txit denbora gutxian. Ez zar indar gabeak, ez jende gaztea, irten ziran soldaduen eskuetatik baldatu ta zatitu gabe.

Alabak beren amaren magaletan, amak beren senarren besoetan, golpatu, zanpatu eta purrukatu zituzten. Zer lotsagarri eta negargarrikeria!

Ondoren, berriz, sutu zituzten baztar denak. *Sei eun etxetatikan gelditu ziran berrogei.*

Diruak, jeneruak, paperak, erri etxeko zuzenlekuak (artxibuak) eta beste lekutakuak, denak galdu ziran.

Milla eta bosteun famili bañan geiago gelditu ziran ezer gabe, eta beste asko, irtenik etxe ondattutako arri tarteetatik, kristauen itxurik ia ez zutela, zebiltzan onera eta ara, zer egin jakin gabe. Puskatzia eta lurperatzia besterik ez zuten egin. Afrikatik etorriak ezin egin zezatekean beste ainbeste. Aiek egunak! Aiek gauak! Alde guztietan ez zan ojua, negarra, deadarra besterik aditzen, ala neskatz gaztiena, nola andre ezkonduena. Ez da itzik esan lezakenik zer gertatzen zan.

Aditzen ziran etxe barrunbeko tiroak maiz.

Noizbait ikusi zanian bada agorraren lendabiziko egunen argia, erriko jende guztia joan zan Wellington aurreneko agintari ingelesengana, eskatzera uzteko arren irtetzen erritik.

Eskudantegi edo lizentzia onekin itzul egin zu-

ten al zuten guztiak. Txit aberats izan ziranak lenago, ozta zijoazen galtzakin; mirabe gazte piñak, kamis utsikan golpatuak edo arramazkatuak.

Iru egun zeramazkiten ingelesak, len Donostia zen errian, eta oraindikan ez zuten menderatu gaztelua, zergatik agintari frantzes Rey'ek ez zuen nai izandu makurtu bere burua oraindik.

*Agorraren bostian* egin ziran jabe ingelesak Santa Teresako konbentuaz. Ango baratzen ipiñi zituzten amazapi sutunpa leku batean bakarrik, bañan bazituzten berrogei eta emeretzi aitzen ziranak sutan gaztelura.

Eziñ ziteken oei guztiai gogor egiñ, eta illaren zortzian frantzesak azaldu zuten bandera, eskatzen baldindea (kapitulazioa).

Ingelesak galdu zituzten bost eun gizon, eta frantzesak bi milla.

Gogoragarria izango da beti Madrillen milla zortzi eun eta zortzigarren urtea; gero Cabezonon, Riosecon, Bailenen, Geronan, Zaragozan, Talaveran, Leridan, Badajozen, Tarragonan, Valenzian, Vitorian eta beste milla lekutan, bañan bai Donostian ere *milla zortzireun ta amairugarrena*.

\* \* \*

Idazlan au saritua izan zan, «lenbiziko saria irabazi duen izkribua», Donostian, 1879'an; eta onako liburuskak ontan argitaratua: «*Euskal-*



*-izkribatzalleen indar-neurtzea, 1879 ko Agorrillaren 7 garren egunean Donostian eguiña. Orretarako artu diran prestamen eta sariztatuak izan diran izkribu antolamenduen oroitza. Uri onetako Bildumaren erabakiz argitaratua. Donostian: Antonio Baroja-ren moldizkiran.- 1879 garren urtean».*

Sariketa onen antolaketak nola egin eta erabakiak nola artu ziran ederki adierazten du liburuskakorrek. Baiña utsune aundi bat du: idazlanen egileak nor izan ziran ez du esaten. Lan onek umezurtz gelditu bearra dauka, beraz.

**ARRATS IZUGARRIA  
1813'GARREN URTEKO ABOZTUAREN  
AZKENEKO GABARI**

- 1/ Gorriak daude goiak urrutiraño,  
ageri dan guzia gorria dago,  
ta lurrak baño  
izutzen du zeruak askoz geiago.  
Argitan zabaltzen da zeru goibela  
illargi gabe  
-zer doakabe!-,  
odoiak su garretan balitz bezela,  
ta infernuak balira gabaren jabe.
  
- 2/ Arrats izugarria! Ordu tristeak!  
Nora begiak jaso, penen kupiran  
malkoz beteak,  
zeruak ere bada etsai baziran?  
Uri leial, gaixoa, garretan dana!  
Ta zeru gorrak,  
agitz gogorrek,  
irabiatzen ditu berriz gugana  
elementen boaldan suzko kanborrak.

- 3/ Itsasotik sortuko lanbro dokaitzak,  
burrunbadan igoak turmoi tartean,  
ziran ekaitzak,  
eta zartatu orduko, tximist kolpean,  
odoi gañeko labe sutu artatik  
jasa ta ujola,  
eurizko erroa,  
amiltzen zan lurrera, iduriturik  
ixurtxen ote ziran sua ta odola.
- 4/ Sua ta odol gorria! Naga ta ikara,  
sutunpadak, ansiak, ilkintza nun nai,  
tximist dardara,  
biziak ta bizitzak garren errakai,  
ta ixil-ixil zijoan odol erreka,  
karrikan bera,  
itsas aldera,  
iturria geiturik illak taldeka,  
ez bazetorren sua eragoztera.
- 5/ Zeru lurak aserre... Ustez anaiak  
atzerritik ziranak gugana etorri  
ziran etsaiak.  
Nora bada begiak jaso ta egorri?  
Ez lur, ez etxe, ez esku, biotz tristea  
noraganatu?  
Nun anparatu?  
Burniz edo berunez laster iltzea,  
noraldetik onena zan aukeratu!

- 6/ Gizon ordi taldeak askai likitsan  
etxerik etxe dabiltz leian inoren  
diru irritsan,  
onraren zale, burniz pasatu ondoren  
arpegi eman duen aita, semea  
edo gizona  
iltzen dagona,  
sentiturik batean agoni epea  
ta ansi triste larri bat deitzen diona.
- 7/ Zarrak, naiz egon zarrez obiko atean,  
ez ziran barkatuak, ain gutxi eriak,  
beren oiean  
illak ziraden; ume jaio berriak,  
gorde nairik gaixoak amen kolkoan,  
bien biotzak  
burni zorrotzak  
urratzen ditu, ta amak iltzerakoan  
igaro bear ditu laidozko lotsak.
- 8/ Lotsa ta ilkintza!... Baña nora naiz eldu?  
Ez, erritar maiteak, ez det nai zuen  
beta goibeldu.  
Gure asaben gaba gurtu nai nuen,  
jarriz begi aurrean aien kondaira,  
birtute aienak  
danik onenak,  
zer diran bizia utsi ta argi joaira,  
beti ikusi zazkigun beren izenak.

9/ Asaba zar gureak joanak mundutik,  
Numanzitar errutsu aien modura  
    bizia emanik,  
igo ziñaten zuzen zeru altura!  
Jaunak bere saria dizute ematen  
    ordu ezkerok;  
    bai, errauts bero,  
martireak bezela igo ziñaten  
sugar Donostikotik pasa ta gero!

Donostia'ko Serafin Baroja (1840-1912) da bertso auen egillea.

Aurreko idazlana argitaratu zan liburuxka be-rean agertu zan olerki au ere, «Laugarren sariaren aldeera iritxi duen antolamendua» dala esanez, baiña egillearen izena azaldu gabe.

Aldi ontan, *Euskal-Erria* aldizkariak betetzen digu utsune ori. An ere agertu baitziran bertso auek, 1880 urtean. Aurretik, «arrats izugarri» ura zer izan zan adierazi ondoren, onela esaten da:

*«...el simpático poeta y entusiasta hijo de San Sebastián, D. Serafín Baroja, cuyo composición, escrita para el certamen celebrado en su Ciudad natal en el mes de Septiembre de 1879, obtuvo en él el accesit a uno de los premios».*

Beste parrafo batean, berriz:

*«Era verdaderamente extraño que a ningún poeta bascongado le hubiera ocurrido hasta ahora ocuparse de este culminante hecho, uno de los más trágicos y memorables que registran los anales de la historia de la Ciudad, y grato es confesar que Serafín Baroja ha vencido con habilidad las principales dificultades que el asunto ofrecía».*

Gai ori ikutu zuen olerkaririk ordurarte izan

etzala ez da egia. Liburu ontan ditu irakurleak Jose Bizente Etxagaray'k jarritako bertsoak. Baita iru-bat saillen kondarrak ere. Baita «Txikitan aitu niyon» itzekin asten dana, eta bai Udarregirena ere.

Bukaeran, berriz, onela dio:

*«La traducción castellana de que va acompañado el original bascongado, ha sido hecha, a instancias mías, por el mismo Sr. Baroja».*

Baroja'ren bertsoak, izan ere, garai artako *neologismo* edo itz berri eta abarrekin, ez dira ulertzen errezak. Ona izango da, beraz, itzulpen ori guk ere onera aldatzea:

*«Rojo está el ancho espacio de los cielos; cuanto la vista abarca rojo está y, más que la tierra, espanta el encendido firmamento. La luz lo invade, sin luna que ilumine las tinieblas. ¡Cuán fatídica! Las nubes se agolpan candentes, como si la noche se hallara en dominio de una infernal potestad.*

*¡Horrible noche! ¡Horas menguadas! ¿A dónde tornar los ojos, arrasados de lágrimas, si el cielo se hallaba preñado de rencores? La leal Ciudad arde en las llamas, y sordos los crueles cielos, invierten hacia la tierra, bajo el ímpetu de la tempestad, las llamas que se levantan de la inmensa hoguera.*

*Las densas nieblas, surgiendo del mar, escalan los cielos, impulsadas por el retemblar de los truenos; ruge la tempestad, y al estallar herida por el rayo, del horno en que se abrasa el firmamento precipítase la lluvia sobre la tierra, roja y encendida, como si cayeran torrentes de sangre y de fuego.*

*¡Fuego y roja sangre! ¡Abominación y espanto! Detonaciones, lamentos, la muerte por doquier; el resplandor del rayo, las vidas y las viviendas pasto de las llamas. Y quedo y*

*silencioso, un reguero de sangre baja hacia el mar, creciendo en el montón de cadáveres, o deteniéndose ante el incendio que ataja su curso.*

*¡Enemigos cielo y tierra!... Los que procedentes de extrañas naciones los creíamos hermanos, eran enemigos también. ¿A dónde volver y alzar los ojos? Sin tierra, sin hogar, sin auxilio, ¿a dónde acude el corazón doliente? ¿En dónde refugiarse? ¡Morir, herido por el hierro o por el plomo, era el mejor recurso!*

*Manadas de hombres ebrios, en infame regocijo corren a porfía de casa en casa, sedientos de oro y de híbrido deleite, después de atravesar con el hierro al que con ellos se encara, padre, hijo o esposo, que mueren sintiendo a la vez el trance de la agonía y el triste grito de las que les llaman.*

*La ancianidad, a pesar de hallarse al borde del sepulcro, no es respetada; los enfermos son asesinados en sus lechos; el tierno niño, ocultándose en el pecho de su madre, el hierro atraviesa el seno de ambos, y la madre recibe al morir afrentosa injuria.*

*¡Vergüenza y mortandad!... Pero ¿a dónde me encamino? No, paisanos míos; no quiero nublar vuestro pensamiento. Quiero recordar con veneración aquella horrible noche de nuestros abuelos, poniéndoos ante los ojos su historia y sus virtudes, su desprecio a la muerte y su resplandeciente aureola, para que les tengamos siempre presentes».*

*Vosotros, antepasados nuestros, que dejasteis la tierra a la manera de aquellos bravos Numantinos, subisteis al alto Cielo. El Señor os dio su recompensa, sí, abrasadas cenizas, alcanzasteis la gloria inmortal después de pasar como mártires por medio de la inmensa pira en que ardió San Sebastián».*

## ZUBIETAKO UMANTAI

*Itzazalkaia:*

Umant aundien oroitza  
galdutzea da txit gaitza.

- 1/ Erri aundiak dituztenean  
emengo lurrak berezi,  
odoleztuzko auzi naasiak  
naian emen erabaki,  
maitagarrizko Euskal-Errian  
sortu izan dira beti,  
gertoi estuan arkitutzean,  
umant azkarrak ugari.
  
- 2/ Ala gerta zan salkindari bat  
eunki onen asieran,  
adiskidetzat bere burua  
gezurkiro saldurikan,  
Orreagako arkaitzetatik  
sartu zanean Iruñan,  
eta orobat andikan laster  
Donostiako urian.



- 3/ Bukatutzen zan Abuztuaren  
ogeitamaikagarrena,  
bazter oetan ezagutu dan  
gaurik izugarriena,  
uri leial ta prestuak izan  
duenik galgarriena,  
su eta garrak istanpatean  
oso kiskali zuena.
- 4/ Sutunpada ta turmoiak ziran  
nasten aize txistuakin,  
txingar txinpartak eta illintxak  
tximist oñaztarriakin,  
euri jasa ta illuntasuna  
orerikan beltzenakin,  
suprearen ke itogarria  
usai kiratsuarekin.
- 5/ Ezurragatik zakur pilla bat  
burruka oi dan gisara,  
anaiak etsai biurturikan  
sartu zitzaion etxera,  
lagundu ordez atsekabe ta  
naigabeak geitutzera.  
O gau gogorra, sekula gure  
burutik juango etzera.

- 6/ Zeru-lurrak, ai!, aserratuak,  
setatsu irudi zuten,  
uri gaixoren gañera amilka  
zorigaitz denak botatzen;  
arri meta bat kantal guziak  
txorroka odola ixurtzen,  
amorratuak dauden otsoak  
gudariak ziruriten.
- 7/ O zer momentu etsimenkaitzak!  
Zeñen ikaragarriak!  
Burniaz illak gaitzikabeko  
aur kottadu ta eriak!  
Desonratuak portxaz emazte  
fiel ta neskatx garbiak!  
Eriotza ta gozageitiak  
ziran aen egarriak.
- 8/ Zer lantu eta negar samiñak!  
Malkoz begiak erreak!  
Zer egin dute gure aurtxoak?  
Non dira gure semeak?  
Non gure emazte maitagarriak,  
lagun eta adiskideak?  
Non dira gure guraso zintzo  
eta erritar tristeak?

- 9/ Merezi dute lajatutzea  
gure kabi maitatsuak?  
Okendo eta Idiakezen  
seaska guztiz prestuak?  
Emen gelditu bear al dute  
betiko lurperatuak  
oroikarrizko plaza, karrika,  
sarjin... pillota jokuak?
- 10/ Ainbeste gogo amodiozko,  
laztan bero ta zispuru,  
murru kiskali oen tartean  
bear al dute gelditu?  
Sukal txokoren oroitz santua  
ere laja bear degu?  
Uri maiteak bakardadean  
uztea merezi al du?
- 11/ «Ez milla bider, Easo zarra!  
–diote salba diranak–,  
milla bider ez! –milagro batez  
itzuri egin dutenak–.  
Arbola bati besarkatuak  
dauden bezelaxe untzak,  
zurekin daude alkarturikan,  
zurekin, gure biotzak.

12/ Etzera alargun geldituko, ez,  
o uri negargarria,  
juduak utzi zuten bezela  
uri santu urrikaria;  
erri-sume bat bizi dan arte  
izango dezu bizia,  
izengañ, almen, dinbreak eta  
gañera omen aundia».

13/ Eta bildurik Zubietako  
ibar edo etxadian,  
goseak txuti eziñ egonik,  
erdiak larru gorrian,  
erabakitzen dute, berotsu,  
batzarre oroikarrian,  
ziazalde<sup>1</sup> bat altxatutzea  
polita guztiz, abian.

14/ Asitzen dira gogoz lanean,  
uri biotzekoari  
kendu zioten edertasuna  
berriro naian itzuli;  
eta galarik galantenakin  
dute apaintzen aiñ ongi,  
non dirudien kaio nabar bat  
itsas gañean igari.

---

(1) *Plano*. (*Euskal-Erria* aldizkariaren oarra.)

15/ Gabi ardatza beziñ zuzenak  
karridak dituzte egiten,  
jauregi eta etxe edertsuak  
berdiñ guziak altxatzen;  
arkuetxe ta Kontzejuari  
ere diote erasotzen,  
eta berriro austartetikan  
dute uria ateratzen.

16/ Zer dezakean naitasun itsu  
batek laratzenganako!  
Zer amodio irazekiak  
jaioterrirenganako!  
Ain zan aundia, kabugabea,  
zutena Easonganako,  
eze aski da zentzuren fitsik  
ez duen bat arritzeko.

17/ Zuekgatikan, txoria etor  
oi dan bezela kabira,  
etorri ziran gure aitonak  
Irutxulo maitatsura;  
zuekgatikan, udaberriko  
enaratxoen gisara,  
euren kabitxo zoragarriak  
berriro moldatutzera.

- 18/ Zuekgatikan ditu geroztik  
ego azkarrak astindu,  
eta kabitik atera eta  
ezker eskubi zabaldu;  
zuekgatikan kate gogorak  
bat-batetan porrokatu,  
eta aundientsu, arrano gisa,  
lañoaz goiti egaatu.
- 19/ Zuekgatikan diote deitzen  
Kantauriako sarjiña;  
lore berezi danen tartean  
lirio zuri txukiña;  
zuekgatikan, parerikan ez  
duen perlatxo bikaña;  
zuekgatikan, ume argiak,  
Euskal-Erriko erregiña.
- 20/ Zuei eskerrak, zuei, baldin gaur  
non-nai bada ezaguna,  
zuei dizute zorko uriak  
oraingo aunditasuna;  
zuei munduban beste erri batek  
ez duen edertasuna;  
zuei gaur duen aurrerapena,  
zuei aberastasuna.

21/ Bedeinkatuak izandu bitez  
ume aiñ argidotarrak,  
gure kondairen orri santuak  
urreztaldu zituztenak;  
bedeinkatuak aiñ fama aundia  
banatua daukatenak,  
bedeinkatuak uri maitea  
erreberritu zutenak.

22/ Zuen izenak donostiarrai  
aztutzea ain da gaitza,  
non itsasoak iragotzea  
Jaunak para dion ertza;  
joango dira egunak, illak,  
urteak eta bizitza,  
baña ez iñoiz Zubietako  
umant aundien oroitza.

Klaudio Otaegi jauna (1836-1890) degu bertso auen egillea.

*Euskal-Erria* aldizkarian agertu ziran, XVI alean, 1887'an, 55 orrialdean.

Izenburuaren azpian onela esaten da: »*Composición premiada con un objeto de arte en los Juegos florales euskaros de San Sebastián de 1886*».

Bertsoak ezeren tarterik gabe daude, guztiak alkarri erantsita. Baiña zortzikoak dirala gauza barmena da. Orregatik, alkarrengandik berezi egin ditugu, eta asierako zenbakiak erantsi.

Garaian garaiko frutuak izaten diranez, orduko euskal idazleak orduko *neologismo* edo itz berriak sartzen zituzten beren lanetan, eta auek ulergaitzak biurtu zenbait tokitan, guretzako beintzat, irakurlea oartuko zanez.

Bigarren bertsoak dionez, XIX eunkiaren asieran salkindari bat izan zan. Saltzaille edo *traidore* bat, alegia. Napoleon Bonaparte eta bere gudaroztea, alegia, Orreagako arkaitzak, muga alegia, igaro eta Iruñian sartu zana; eta andikan laster Donostian.

Leen ere esanik daukagunez, 1808'ko otsailaren 16'an jabetu ziran Iruñe'ko uriaz; eta urte bereko martxoaren 5'ean Donostia'z.

Donostiako erriaren erreketeta zer izan zan adierazten digute urrengo bertsoak. Baiña zenbait donostiarrek Zubietan bildu eta erria berriztatzea erabakitzen dute andik egun batzuetara. *Umanta* edo gizon bulartsu oiek goraltzeko moldatuak dira bertso auek, izenburuak aditzera ematen duanez. Batzar famatu ori bertako Aizpurua etxean egin zan, 1813'ko iraillaren 8'an.



**BERTSO BERRIYAK**  
**FERMIN IMAZ**  
**ZENTENAYUAN GAÑIAN JARRIYAK**

- 1/ Egun bat urte igaro dira  
erre zala Donostiya,  
orain zerua dan bezelaxe  
orduan zan egaztiya;  
su ta garretan austu zana  
erri bat eder askiya,  
da arrezkero arriturikan  
daukagu mundu guztiya,  
oroitutzeko modukua da  
egin ziyoten gaizkiya.
  
- 2/ Ainbesteraño ankaperatu  
gure sortu-erri laztana,  
Iru-txulo da naigabe aiek  
danak goguan dauzkana.  
Zenbat aur txiki geratuko zan  
ez aita eta ez ama?  
Beste guraso ta senidiari  
eman betiko azkena,  
mundua mundu dan bitartian  
beñere aztuko eztana.

- 3/ Iñori gaitzik egin gabia  
gure Donosti ederra,  
tristia ez al da esku txar batek  
su eman da erre bearra?  
Gauza orretzaz oroitzen dana  
ezta munduan bakarra,  
malkoz urturik gertatutzen zait,  
ai!, nere biyotz medarra,  
zeñi etzaio orla etorriko  
begiyetara negarra?
- 4/ Ori pentsatu zuan etsaia  
etzegon zentzu onian,  
illa geratu biar zun bertan  
piztutzen asi zanian.  
Gauza gaiztuak egin zituan  
kondairak dagoanian, (*sic*)  
pake santuan ari zanantzat  
jango bazuan lanian,  
askorentzako ordu estua  
iritxi zan azkenian.
- 5/ Zori gaiztoko negar artatik  
ziranak sakabanatu,  
berriz agorran zortziyan ziran  
Zubieta'n alkarganatu.  
Bertan bizi zan jende prestua  
egin zuten bereganatu,  
nai izan arren nik ezin ditut  
merezi aña famatu,  
gizagaxuak bitarte artan  
etziran gutxi penatu.

6/ Ikusirikan galdua zala  
Donostiyako erriya,  
Aizpuru'n bertan danak ein zuten  
junta ikaragarriya.  
Berakin an zan alkate jauna  
etzan burutik urriya,  
Zubieta'ko toki alaia  
bera zalako jarriya,  
berriz andikan giyatu ziran  
egingo bazan berriya.

7/ Suak puska bat kenduagatik  
jarriya dago ordaña,  
Europa dana inbiriz dauka,  
ain da alai ta bikaña.  
Nere biyotzak ezin altxa du  
nai izan arren dan aña,  
mundu guztiyan ezta beste bat  
au dagon bezin apaña,  
indar aundiyak artuak dauzka  
orduan erre zan baña.

8/ Erantzuera txarrik eztegu  
gizon aien aurpegira,  
ondorengiak ondo izateko  
gogor saiatuak dira.  
Orain egun urte bezela  
bizirik egon balira,  
biyotzak edo barrengo odolak  
egingo ziyen mugira,  
geroztik emen egin diraden  
obra oietara begira.

- 9/ Miñik aundina izandu zuten  
aurreneko erantsiyan,  
au zan urtian milla zortzireun  
eta gañera zortziyan.  
Napoleonon ejerzitua  
sartu zala Donostiyan,  
ondo zegona gaizki jartzera  
bere arrotasun guztiyan,  
etzan izango atsegin aren  
aguantiaren azpiyan.
- 10/ Zeukan gerrari jendiarekin  
beterikan dierriya,  
sei bat urtian bere mendian  
eduki omen zun iya.  
Baña emengo ume leialak  
etzeukan lotan begiya,  
bitarte ontan bazekin ondo  
nola jan zuan ogiya,  
aguro utzi-azi ziyoten  
agindu nai zun tokiya.
- 11/ Abuztuaren oi ta amaikeko  
goizeko kañonazuak,  
iruditzen zait etziradela  
izango oso gozuak.  
Erri guztiya puskatzeraño  
beraren dardarizuak,  
aiek ikarak eta negarrak  
senire ta gurasuak,  
ariyek asko ikusitzeko  
jaiuak ziran gaxuak.

- 12/ Portugesa ta inglesa ziran  
gurekin aliatuak,  
zori gaiztoko frantzesarekin  
galanki peliatuak.  
Bereganatu zituzten azkar  
lenago guri artuak,  
bañan gerora baztar guziyak  
ziraden sakiatuak,  
orduan emen batzuk baziran  
ederki baliatuak.
- 13/ Gure Españiyak edo patriak  
laguntza zuen eskatu,  
inglesa eta Portugal'kua  
egin zitzaizkan prestatu.  
Bañan oriyen aziyo asko  
etziran emen gustatu:  
etxiak erre, aurrak kiskali,  
andriak desonestatu,  
inozentian odolik asko  
etzuten errespetatu.
- 14/ Kristabak ala derrigortzia  
zer pena ematen diten!  
Nola ez liteke gauz oriyekin  
begitik txinpartak irten?  
Ai, neri oroitu bakoitzian  
barrenak dit irakiten,  
gure amarenak giñadenikan  
oriyek ez al zekiten?  
Salbajerikan gaiztuenak  
eztu orlakorik egiten.

- 15/ Donosti leial maitagarriyan  
zer lanak egin dituzten,  
salbaje aiek ezertan ere  
errukirikan etzuten.  
Ai, odol txarrak eztu beñere  
iñola pakian uzten,  
nai zutena egin da gero ilda  
igual uzten zituzten,  
zentzuz nastuak zebiltzan edo  
etzuten ezer ikusten.
- 16/ Batak bestiai lagundutzeko  
bazeukan jende presturik,  
beste gizaldi batzuetan  
eztago ori azturik.  
Gu gaztiak gerade baña  
daukagu ezaguturik  
nola odolak jartzen diraden  
elkarrengana suturik;  
gerra dabillen tokiyan ezta  
beñere pake santurik.
- 17/ Napoleonek desiatzen zun  
mundu guzin nagusiya,  
orreatatik zan Españiyari  
gerra ematen asiya.  
Kulpa aundi gabe makiña bati  
kendu ziyona biziya,  
emengua're usteko zuan  
zeukala irabaziya,  
saiatu arren etzuan egin  
berak nai zuan guziya.

- 18/ Bonapartek zun beste anaia're,  
ark ere nai buruzari,  
negarra franko jarri zutenak  
beiratu gabe ezeri.  
Erruki gabe biziya kendu  
asko anima gaxori,  
bi gizon gaizto diran mediyo  
ainbeste odol ixuri,  
gaur bizi danak eztu esango  
ondo dagonik gauz ori.
- 19/ Gure dierriyai nundikan eldu  
pentsatu zuan poliki,  
oni pakian utzitzerikan  
etzerizkiyon egoki.  
Tropak jarrita nai zuena zan  
baztar guziyak ebaki,  
bañan emengo jendiak ere  
begiya erne eduki,  
beregatanu nai zuan baña  
aspertu zuten ederki.
- 20/ Odolarekin utzi zituan  
baztar guziyak betiak,  
jakin nai nuke orduan lurrera  
zenbat ziraden botiak.  
Arrigarriyak dirade emen  
egin zituan kaltiak,  
etzun baliyo aien aurrera  
ikaratuta juatiak,  
larrutik ondo pagatu zuten  
amaren seme maitiak.

- 21/ Bere tokiyan geldi egon balitz  
etzan izango okerrik,  
ez al da pena ixuritzia  
ainbeste odol alperrik?  
Gaitz aundi gabe illak baziran  
amaren seme ederrik,  
orain bezela etzan faltako  
gurasuentzat negarrik,  
besterik etzun inor erruki,  
bere burua bakarrik.
- 22/ Gizon azkarra izanagatik  
etzuan egin bererik,  
bañan bai utzi guraso asko  
poztasun aundi gaberik.  
Usteko zuan lur eder onek  
etzula izango jaberik,  
Españi ontan etzan komeni  
ark nai zukian legerik,  
nik esaten det: zer da munduan  
pakia bezin oberik?
- 23/ Beste inori eztiyot, jaunak,  
frantzesai ainbat errabi,  
au adierazten diyot gañera  
gure euskalduntarrari.  
Guk ere eutsi nai diyogunak  
al bada lege zarrari,  
ez odolikan ixuri-azi  
gaitzik gabeko aurrari,  
pake santuan bizi gaitezen  
utzi alde bat gerrari.



24/ Errespetatzen ditut, Elizak  
agintzen duen moduan,  
beren alegin guziya eginda  
il ziradenak orduan.  
Gure Jainkua izan dedilla  
anima oien karguan,  
guk erregutu deiegun gogoz  
gerta ditezen zeruan,  
ori egin gabe sosegurikan  
eztago nere barruan.

Or goiko izenburuak dionez, 1913'an, Donostia erre zuteneko eungarren urtea betetzen zala-ta, bertsoak jarri zituan Fermin Imaz'ek ere.

Egokiera ori zala-ta, olerki sariketa bat izan zan Donostia'n gai orrekin, beste zenbait ospakizunen artean. Baiña ez degu uste Imaz onek bereak ara bialdu zituanik.

«*Imp. Argandoña H*» moldiztegian inprentatu eta kanta-paperetan zabaldu zituan berak bertso aukeratuak. Paper oietako ale bat, Gregorio Mujika jaunaren bilduman arkitu genduan.

Bertsolari onen bizitza (1879-1929) eta bertsoekin, *Auspoa*'ren 24'garren zenbakia argitaratu genduan. Bertso-sail au ere antxe arkituko du irakurleak. Baiña frantzesteari buruzko bertsoen bilduma ontan ere agertu bearrak zirala uste izan degu.

\* \* \*

Fermin Imaz au izango da, guk dakigunez, frantzesari edo Donostia'ko erreketari bertsoak jarri zizkion azken bertsolaria.

Olerkari batzuk ere izan ziran, ordea, gai ori erabili zutenak, naiz eta aien lanak onera aldatzen ez ditugun, batik-bat erri-literatura ez diralako; eta bai ere geiegi luzatuko giñalako. Baiña beren izenak eta olerkien izenburuak emango ditugu.

Donostia'ko Frantzisko Lopez Alen'ek (1866-1910) bi olerki ditu: *Abuztuaren 31, Donostiari (1813-1888)* deritzana, bost bertsoetan, *Euskal-Erria* aldizkarian 1888'an argitaratua; eta *Oroitx bat* izeneko amalauduna, *Euskal-Erria*'n agertua berau ere, 1889'an.

Esan bezela, Donostia erre zaneko eungarren urtea zala-ta, olerki-leiaketa bat eratu zan gai orrekin. Tolosa'ko Emeterio Arrese'k (1869-1954) irabazi zuan, bere *Gora biotzak!* izeneko olerkiarekin; eta aldaera edo *acesit* beste iru jaun auek: Biktoriano Iraola (1841-1919): *Donostia aboztuaren azken gaubean 1813'an*; Jose Elizondo (1865-1943): *Amaren obiyan*; eta Ramon Inzagaray (1878-1947): *Donosti kiskalaiari*.

Lau olerki auek *Euskal-Erria*'k argitara eman zituan, 1913 urtean.

## ARKIBIDEA

«Milla zortzi ehun da hamahirur urte...» .....	7
Españolak Frantzia'n .....	9
«Gizon hoiek nor dira...» .....	15
«Bonaparte'k norat dien egin...» .....	17
«Frantzian errebuelta...» .....	19
Gerla ondoan miseria .....	23
Soldaduak desertatuak .....	25
San Bizente Abandokoaren elexan .....	27
Gauoneko kantak .....	33
San Inazio Loiola'koaren alabantzak .....	55
«Aita San Inazio Loiola'koa...» .....	61
Donostiya'ko gazteriyak .....	67
«Juan txit argitu edo ilustre...» .....	73
Juan Inazio Iztueta'ren testigantza .....	83
«Txikitan aitu niyon...» .....	101

Bertso berriak: «Milla zortzireunekin amairurren urtian...» .....	115
Zer nintzan? Zer naiz? .....	121
Arrats izugarria .....	127
Zubietako umantai .....	133
Bertso berriak/Fermin Imaz/zentenayuan gañian jarriak .....	137

## ORAINDAIÑOKO LIBURUAK

### 117'garrenetik aurrera.

- 117-118: *B. Enbeita*: Nere apurra.  
120-121-122: *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.  
123-124-125: *A. Zavala*: Zapirain anaiak.  
126: *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.  
127: *M. Arozamena*: Nere aldia.  
128: *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.  
129: *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).  
130: *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).  
131: *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).  
132: *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).  
133: *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.  
134: *J. M. Arrizabalo, A. Zavala*: Baso-mutillak. (*Aitua*).  
135: *A. Zavala*: Jaioak bizi nai.  
136: *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.  
137-138: *Ataño*: Txantxangorri kantaria.  
139: *A. Zavala*: Soldaduzkako bertsoak.  
140: *A. Zavala*: Nekazariak bai miseriak.  
141: Bertsolari-txapelketa nagusia, 1980. (*Aitua*)  
142: *A. Zavala*: Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak.  
143: *A. Zavala*: Nork bere bidea, I. (*Aitua*)  
144: *A. Zavala*: Nork bere bidea, II. (*Aitua*)  
145: *A. Zavala*: Nork bere bidea, III. (*Aitua*)  
146: *A. Zavala*: Berridi eta Kuxkullu bertsolariak.  
147: *Ataño*: Txori. (*Aitua*)  
148: *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak, I. (*Aitua*)  
149: *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak, II. (*Aitua*)

- 150: *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak, III. (*Aitua*)  
151: *Mattin Treku*: Etxe xokotik kantari. (*Aitua*)  
152: *Xalbador*: Herria gogoan. (*Aitua*).  
153: *J. K. Zapirain, Ataño*: Zure Pasio Santua.  
154: *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak I.  
155: *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak II.  
156: *F. Artola «Bordari», R. Artola*: Aritz beraren adarrak.  
157: *Elkarlanean*: Lexoti bertsolaria.  
158: *Mari Treku*: Mattin, nere gizona. (*Aitua*)  
159: *Txomin Garmendia*: Denbora pasa.  
160: *Txomin Garmendia*: Bizitzaren arian.  
161: *A. Zavala*: Kuba'ko gerra.  
162: *J. M. Arrieta*: Nere ondar alea. (*Aitua*)  
163: *J. C. Arrosagaray*: California-tik kantuz.  
164: *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak, I.  
165: *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak, II.  
166: *M. Manterola*: Lore apal bat.  
167: *J. M. Lertxundi*: Baso tarteko oiua.  
168: *P. Lazkano, A. Zavala*: Tiro tartean bertsotan.  
169: *Basarri*: Kezka-giroan.  
170: *Txomin Garmendia*: Bordaberri'ko gozo-mikatzak.  
171: *Txomin Garmendia*: Bertsolari-kurpilla.  
172: *S. Salaberria*: Nere soroko emaitzak.  
173: *I. Olea*: Otemotxeko arnasa.  
174: *A. Zavala*: Kristaubidea bertsotan, I.  
175: *A. Zavala*: Kristaubidea bertsotan, II.  
176: *A. Zavala*: Ameriketako bertsoak.  
177: *Txomin Garmendia*: Erririk-erri.  
178: *Basarri*: Bertsolaritzari buruz.  
179: *Ataño*: Espetxeko negarrak.  
180: *A. Zavala*: Euskal jokoak bertsotan, I.  
181: *Ataño*: Zigorpean.  
182: *M. Ostolaiz*: Oroipen-kutxa.  
183: *A. Zavala*: Euskal jokoak bertsotan, II.  
184: *A. Zavala*: Esaera zaarren bilduma berria, I.  
185: *A. Zavala*: Esaera zaarren bilduma berria, II.  
186: *A. Zavala*: Neska-mutillen arteko bertsoak.  
187: *A. Zavala*: Ezkondu bearreko bertsoak.  
188: *Txomin Garmendia*: Beltzak eta zuriak mendian ardiak.  
189: *Ataño*: Eltzaorra.  
190: *Pablo Zubiarrain*: Ia kantatuz bezela.  
191: *Basilio Pujana*: Egi batzuek aixetaratzen.  
192: *Ataño*: Odol-kutsua.  
193: *Ataño*: Maitasunaren lanak.


- 194: *Pablo Zubiarrain*: Gaziak eta gozoak.
- 195: *Bartolo Ayerbe*: Nere mundualdia.
- 196: *Ataño*: Etorkizuna.
- 197: *Ramos Azkarate*: Ijitoen kontratuba eta abar.
- 198: *Erramun Etchebarne*: Erramun harginaren oroitzape-nak.
- 199: *Jose Maria Etxaburu*: Neure lau urteko ibillerak.
- 200: *Jose Azpiroz*: Arbol zarraren kimuak.
- 201: *Ataño*: Maite itzazute etsaiak.
- 202: *A. Zavala*: Frantziako Iraultza eta Konbentzioko gerra.
- 203: *Jose Azpiroz*: Gogoz kontrako pausoak.
- 204: *L. Rezola «Tximela»*: Bakardadeko ametsak, I.
- 205: *L. Rezola «Tximela»*: Bakardadeko ametsak, II.
- 206: *J. Lete «Ibai-Ertz»*: Orrela ziran gauzak.
- 207: *Ataño*: Aztia usnari.
- 208: *F. Etxebarria*: Nor garan azaldu.
- 209: *B. Barandiaran*: Zartu gabe ezin bizi.
- 210: *Beñat Karrika*: Armendaritze haur begiez.
- 211: *Basilio Pujana*: Deabruak ostutako urteak.
- 212: *A. Zavala*: Frantzesteko bertsoak, I.
- 213: *A. Zavala*: Frantzesteko bertsoak, II.



1051540

G-128/71 -II





AUSPOA  
LIBURUTEGIA